ITXARO BORDA

Ezer gabe hobe

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2009 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2009ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

El mar sin agua no es mar
El sol sin luz nunca es sol
Y yo sin ti no soy nada

CUCO SANCHEZ

Jo soc l'altra. Tu ets jo mateixa
Aquella part de mi que se'm revolta

MARIA MERCE MARÇAL

We were born in a poor time
Never touching
Each other's hunger
Never
Sharing our crusts
In fear
The bread became enemy

AUDRE LORDE

1
SANGATTE

I wanna do something beautiful for you

SINEAD O'CONNOR

L'instrumentalisation de la pauvreté
Consolide les mécanismes de l'aliénation
Culturelle et de la dépossession.

AMINATA TRAORE

–1–

Eguzkiak bazterrak erretzen zituen. Argitasun bereziak begi hondoak kilikatzen zizkion. Geratuko zen malgortzen zihoazkion giharrak astintzeko. Burua huts zeukan eta bihotza zorabio: Bartzelonatik zetorren. Bakarrik. Alta han ezagututakoa ez zezakeen ahantz: amodioa zena ala arintasun sentimendu zehargia? Irriz ari zen eta noiztenka negarrak betazal azpiak hezetzen zizkion. Lurrutsaren errautsezko minean deus ez zekien, eta ezjakintasun hori gustatzen zitzaion. Alfajarinen sartzearekin, muinoaren kaskoan landatu zezen ilunaren siluetak inguruak beilatzen bezain mehatxatzen zituela zirudion.

Autopistako pausalekuan gelditu zen, gasolina hartzeko eta ur botila biren husteko: egarri zebilen eta patsetan. Europa zeharkatzen zuten burdinazko mastodonteen artean kokatu zuen kotxea. Nortasun berezirik ez zeukaten dendetako komunetara zuzendu zen, mailetan jarri jende taldeetarik zulatuz, zanpa-zanpa, aurpegia eta besondoak busti ondoan, haize meheak nahasi

biloak leuntzeko. Ostatuaren barnetik musika xoxoloa hegalda zetorren, jendeak kontsumitzera bultzatuz, beraiek nahi ala ez. Ekialdeko kamioi gidarien algara zintzurroiak bereiz zitezkeen, ordea, isiltasun sapatsuak itoriko tabernan.

Tengo la camisa negra.

Atera zen.

Autoak burrunbaz jalgitzen ziren, Lleida edo Tutera aldeetara. Burla tirria zeukan, leku hauetan arrotz gisa xarmanki konpontzen zelako.

Ekaitz biribilkatsuetan garatu solasaldiei belarrimen egon zen:

– Nork eramango du Ainhoa?

– Nirekin dator Nerea... baina nor doa Itziarrekin?

Solas-molas anodinoak. Bost axola.

Aska idorraren ezpondan luzatu autobus zaharkituari berme, gizon zardaia ari zen pipa eta pipa, gustuan. Nagi. Hurbildu eta zigarreta amoinatu zion:

– Eta sua, plazer baduzu.

– Ez dizkizut birikak utziko.

Karkazailka gordinaz lehertu zen gidaria txiste hoberik nehoiz asmatu ez bailuen. Bizkarra eman eta urrundu zitzaion.

Y una pena que me duele.

Tu l'aimes.

Gogoeta zegoen kea buhaka kanporatzean: ordu apurrak lehenago Montserrateko mendi pairatuak eta mossas d'esquadra taldea beribil bizitoreei ziuntaz aurre egiten miretsi zituen. Motoz joateko izua gaindituz gero, plazerez zaldizkatuko zuen horrelako makina lizun eta indartsu bat. Baina lotsatia izanez, ez zen orduko 120 kilometroko abiaduraz haratago ausartzen, ez hainbat ertzainen edo mossas d'esquadra haien beldurrez, baizik eta segur zelako bere mando herbalak ez zuela hori soportatuko, Iparraldean lerraketen moduan.

Zigarreta hondarra zangopilatu zuen. Oihuak eta mugikorren txirrin goibelak entzuten zituen, saparen berunezko tapakia doi bat berazten zuen galerna haziaren marrumak eta irrati urrunen kirrika elkorrak. Ur ttilika bat edan zuen. Erraiak jabal eta kaskoa huts, sorbaldan zeraman zakuan bilatu zituen giltzak. Ez zituen bere-

halakoan aurkitu, atzamarrak Bartzelonakoak oparitu argazkiaren ertzean hertsi zitzaizkiolako.

– *Yo quedo moribund@.*

– *Tu la quittes.*

Autopistako geldiuneko irratiak barreiatzen zuen abestia errepikatu zuen berekiko. Alabaina bizitzan kanta komertzialenak eta egunkarietako horoskopoak hobesten ziren garaiak batzuetan zabaltzen zirela nabari zuen, debaldearen xanfarintasun eraso horren kontrako ezintasuna areagotuz. Eguneroko borroka alaina. Anartean ttaka zilar zen ekia zeruan. Hedoirik ez zekusan. Kopeta behatzez torratu zuen: non zegoen? Alfajarinen, noski, baina edonon izan zitekeen eta izpirituz, gainera, hortik mila milioi legoatan. Haur hotza zenean, planetaren bisita hamabost minutuz egiten zuen loak hartzeko. Halaz linea zuzena irun zezakeen, Tonbuktu, New Delhi, Shangai, Sapporo, Tucson, Ayers Rock eta Otsabide oihal berean josiz. Ametsaren agorra mendera eta *yo quedo moribund@* marmaratu zuen, fotograma plegatu eta gakoak zinez eskuratuz.

Klix-klax.

Borta ez zen bristan ireki.

Esku-mutur tinkatu baten kuskako gogorra sumatu zuen soinean:

– Muga pasaraz iezadazu.

Tentetu zen.

Bat-bateko izerdi hormatua zerion matelan behera. Ez zen itzulikatu. Haragia ikaraz zebilkion. Bizkarrezur aldean altzairuzko hagin zorrotz baten ausikia baizik ez zezakeen hazta. Herenegungo Baionako gauetan bezain lotsa zen. Izuak memoria harrotzen zion: orduan auzo estatuak ordainduriko hiltzaile maskaratuak harrapa ezin zebiltzan eta Renault 14 misteriotsuek karrika desertatuetako oinezkoak haiatzen zituzten. Maitaleak kanporatu zuen ilunpe batez oroitzen zen oraino, itsas bazterrean nola ezkutatzen zen, zakurrekin iragaten ziren polizietarik ihes, harrietan harri bilakatzear. Ez zen baitezpada gaztaro ideala, baina berea zen eta ez ziezaiokeen kakotx bakar bat ere alda. Kakotx ospetsuak hatsaren berritzeko bahia gordeak zirela erantsiz baketu zen.

Xlaxlax.

Pistola-mihiaren herots herabea zena?

Galdera melengaren doinuaz isuri zen:

– Zergatik nik?

– Nehor gabe zoazelako.

– Ezin dut.

– Ezin duzula?

Arma gorraren tzarrakak egoera zehatzago bihurrarazi zion. Ahotsak ingelesez bihikatzen zituen ordreak:

– Ez zaitezela mugitu! Deus ez bailitzan egizu! Ireki bidaiariaren aldea eta deitu nazazu barrura. Adiskidekiro. Zaragozarantz gero. Erraten dizudana betetzen baldin baduzu ez zaizu ezer gertatuko.

Bozak manatua konplitu zuen xeheki. Hitz soberakinak ezabatuz. Ez zion ezkel begiratzen, ez zen ausartzen. Taustera ari ziren jadanik, zeramatzan afera arrunt eta urrinduetan kukutuz, ezezaguna pistola beltzaz aurkeztu zenean:

– Posa Ngaka naiz. Pigmeo leinuko kantaria, nahi baldin baduzu. Londresera noa. Paperik ez dut eta horregatik muga trabeskatzen lagunduko nauzu. Ez dut hauturik.

– Zergatik nik?

– Ez al dakizu besterik erraten? Bihotz ona duzu. Otserbatu zaitut Alfajarineko aparkalekuan

argazkiari amultsuki begira. Nor zen, zure kuttuna ala? Ez zara mintzatu, zigarreta oparitu dizunarekin salbu. Bakarrik zoaz eta hori neuretzat abantaila handia da.

– Norbaitentzat bederen...

– Ez etsi.

Hizlariari so egin zion azkenean, ebaslea bailitzan, agudo eta ahalke. Ehiztariaren xederetan harrapatu xoxoa baino zozoago sentitu zen.

– Bahitzen nauzu beraz. Beti gauza bera da: uste duzu bortizkeria baliatuz erdietsiko duzula?

– Ez naiz segur biolentziaren funtsaz kezkatzeko legitimitaterik duzun istant honetan, baina bego horretan. Nola deitzen zara?

– Sigma.

Posa Ngaka zela zioena autoan zuenetik, Erriberako lautadetan ekia zein ukigarri jaisten zen miresteko gutiziarik ez zeukan. Noizbehinka kidearengana estiratzen zuen betizkina: larruz beltza zen, beltz-beltza, argi amiltzearekin distira zezakeen beltz sakon eta uhargikoa. Sabela burbuilaz zerabilkion. «Egundainokoan arazoak niretzat daude» murdukatu zuen pigmeoak aditzeke. Alabaina zorrizaku batetarik libratu baiko,

mamuzorro handiago batera erortzen zen: destinoa horrelakoxea zukeen. Ez zen negarrez urtuko bistan dena, malkoek jasaniko giroa lautuko ziotela jakin arren.

Musikagailua bultzatu zuen. *My songbird.*

Iruñea. Andoain. Donostia. Irun-Frantzia.

Migratzailea mutu egon zen bidaia osoan. Bi herronketan zeingehiagoka lehiatzen ziren auto eta kamioi ipurdietan zintzilikatzen zituen begiak. Oiartzungo ordaindegian Emilou Harrisen diskoa irakurgailutik ilki zuen Sigmak, urduri.

Ttottogian uzkur eta ikara, afrikarrak eskatu zion:

– Hurbiltzen ari gara, ez?

– Bai. Amen batean dago muga.

– Zer eginen duzu?

– Baneki...

Gogoa bipildu zuen. Zinez ez zekien.

Egiaz, muga fisikorik ez zen gehiago. Tresna alimaleak Behobiako itsuskeria arkitekturala suntsitzen ari ziren eta laster, Europako edozein eskualdetan bezala, ziztuan igaroko zen iragan mendeetan hainbeste daldara eragin zuen frontera. Ordu erdi gaitzak higatu zituen Donostiatik

edo Bilbotik zetorrenean. Gizon armatuek larderiatsu geldiarazi ibilgailua setiatzen zioten, drogarako hezi orek kofrea usnatzen eta poliziek galdez itotzen zutela:

«Nondik zatoz? Nora zoaz?».

«Bilbotik Baionara».

... *Alua itsasoa* xuxurlatzen zuen zetorkeenari xerrent beha.

Erantzunaz konturik gabe, zetxikatenaren pentsamendu isilez mesfidatzen zirela, are astiroago lotzen zitzaizkien miaketari, errotetan edo jargietako zoladura bikoitzean kalaxnikov berriak aurkitzea espero bailuten. Sigmak ez zuen maite muga aldea. Halatan, aspaldi hartan, ahal zuen oroz norbaitekin joaten zen hegoaldera. Behobiako ttattoletan gudari bilatuenen potretak dilinda zeuden eta haietariko batzuk ezagun zitzaizkiola agitu zitekeen. MK adibidez. Traka oneko lagun ohia, argazkian terrorista hiltzaile, salbai plantan azaltzen zitzaion, eta halakoa bihurtua zitekeen erakundeko organigraman gora abiatuz geroztik. Sentimenduak ezinegon nahasia, uherra, milakoitza sustatzen zion.

Garaiak aldatu ziren.

Laster ordaindegi bilakatuko zen frontera ageri ez zenez, hegoalde ala iparralderik ez zen, Schengeneko esparru zabala baizik. Bakarti burutazioetan korapilatzen zihoala Sigma, Posa Ngakak eskuak bihurdikatzen zituen, artega.

– Nola eginen dugu?

– Ez dakit. Paperik ez duzu?

– Ez. Ceutan egin faltsuak banituen, baina El Ejidon ebatsi zizkidaten. Beldur zara?

– Bai. Pìxka bat... Baina badut ideia bat. Begira, Patxiren bentako ateetan jaitsiko zara eta Hendaian utziko dut ene zamaria. Etorriko naiz zure bila eta marra madarikatua elkarrekin pasatuko dugu oinez.

– Aizu, lanjerosegia baldin bada, abandona nazazu hemen. Ulertuko dut.

– Duela hiru oren pistolaz gatibatu nauzu eta dagoeneko atzera egitekotan zaude? Ez dut konprenitzen. Badakizu, Rubicon erreka derrigorrez jauzikatzekoa da *alea jacta est* oihukatuz.

– Non dago ibai hori?

Airearen dildila.

KM Zero magasinaren parean Iparraldeko matrikularekiko ehunka auto zeuden, erosle fa-

langatsuek herronkan gasolina, alkohola eta tabakoa merke eskuratzen zutela. Posa Ngakak askiko zukeen kontsumitzaile errabiatuen saldoetan zeporatzea eta Sigmaren aiduru egotea. Herabeki irten zen. Ez ziren agurtu ere egin.

Duda-mudaz hantzen zihoan Sigma: Posari muga gurutzatzeko esku ukaldia eman eta *ciao-ciao*. Zer bestela? Salbatua zen bera behingoz. Problemarik ez zuen nahi alaina. Zergatik ez zuen alde eginen Posa Ngaka gosearen ulitxekin teman Irunen ahantziz? Zalantza laburbiltzen zion borobilak. Bigarren aldian alta gelditu zen parkinean. Ez ote zen hitza hitz gurean, jendea jende, aita zenak urguiluz zioenez? Eiki, ele aisetak ziren aitarenak, ez baitzuen sekula klandestino bat baserrira ekartzearen beharrik izan. Kontatzen zuen alemanen denboretan ogi zakuak okupatzaileari ez uzteko pentze patarreko azeri zulo irekietan gordetzera atrebitzen zela, amaren isilik, bai eta istripuz zenduriko behorraren hilotzaren hobian ehortzi zuela osaba Leonen eskopeta herdoildua. Segolenek zerasanez, bizitza aspergarri bezain baliogabean *bravitude* oren laurdenaz goza gintezkeen denok.

Kosta zitzaion erabakitzea.

Poltsa astunez zamaturiko oldeetarik mugaratu zen sigi-sagaz. Han, bentaren eskuineko kantoian Posa Ngaka zegoen, beltz bakar. Beltz berezia zela baimendu zuen urrunetik, ileak gorri kizkur zituelako. Pigmeoaren txikitasunaz ez zen konturatua. Nondik heldu zen? Londresera zihoala salatu zion baiki, baina egia zena? Zertara behar zuen Ingalaterrako hiriburura? Ezezagutza aieru sobera bazen istorio bitxi horretan Sigmaren izpirituaren ez inarrosteko, kuriosa eta lanjerraren kontzientziarik ez baitzuen. Haurra zenean sendiko izeba andanek ahalkeizungarritzat jotzen zuten, gerezitzeen azken abarretaraino hupatzen zelako urtxintxaren moldean, eta belarretan ari zirelarik hauta baitzen orgetan haga meharra ozkan ezartzeko. Ez zuen parerik. Ume aroko oroitzek akuilatzen zuten, urte parrasta bat lo higatuagatik ez zen hila, kotxinos, ezetz, eta bereber Sam Shepard imitatuz, ukaraia tinko, kasik auhenez *I'm not dead* murmurikatu zuen.

Pigmeoaren ondoan zegoen urrats batez. Mesfidati, ttattit zegokion, bere behialako barne

ika-mikaz jakinean egon bailitzan. Ez ote zion jadanik deus gordetzen ahal? Bihotza zimikoz bastatua zeukan Sigmak.

– Emadazu eskua. Pasa dezagun frontera.

– Banator. Seguru zaude?

– Ez naiz ezertaz seguru, are gutxiago nitaz. Baina aukerarik ez dugu, ezta?

– Ez, aukerarik ez dugu.

Kotxeek arrasatzen zituzten, bikote zuri zenbaitek bekaitz begiratzen zieten, gurasoen besoetan zeuden xingarren orroak eta eki sutuarekin nekez bazebiltzan adineko lodikoteen hatsankak oihar. Posa Ngakaren ahurra Sigmarenean idorra zen, zainarta, erabakiorra. Muga iragaitean irriz ari ziren, ez bata besteari, magasin ugarien berinetan lurrintzen zitzaien munduaren aurpegi anonimo hitsari baino. Autoan sartu eta Sigmak pizgailua haiatu zuen.

– Egina.

– Non gaude?

– Frantzia deitzen duten Euskal Herriaren partean.

– Eta Londresera joateko?

– Miarritzetik hegazkinez joan zaitezke, ordu eskasa. Baina paperik ez daukazunez airekoan kokatzea zaila dukezu. Hemen den-dena giltzapetua da, kontrolak garratzak dira, ez duzu ur botilarik ere eramaten ahal! Trenez errazago menturaz. Bada interesatuko zaizun batto, Hendaiatik Lillerakoa. Gero Eurostarrak lilia bezala Londresen errotuko zaitu.

Posa Ngakak beltzuria pairatu zuen. Larrua urratu zitzaion. Behatz ttittilaz kokotsa altxarazi zion, trista ez zedin bederen. Kongoko oihanetarik honaino etorri baldin bazen, Londres formalitate bat zitekeen, sinets nazazu, fundi baietz. Eztiki mintzo zitzaion, penarik ez egiteko eta haren kuraia sustatzeko. Animatzeko ordez, malko uhargi lerroak larrantzi zuen pigmeoaren matela. Sigmak ez zion erran *hemen bereizten gara* edo harremana ernatu baiko ebaki zezakeen elerik. Ez. Alderantziz, *sar zaitez eta itsasertzeko zoramen bat erakutsiko dizut* perpaus konplexua moldatu zuen.

– Zenbat badu ez zarela ohe batean etzan?

– Lau gau. Lleida eskualdeko fabrika kimiko batean nintzen langile. Jan eta lo trukean. Bortiz-

keria fisikoak jasaten nituen, txikia nintzelako, eta Ceutakoen ordezkatzeko Bartzelonan eginarazi agiria ebatsi zidan gazte nigeriar mozkor batek. Klandestino naizenetik sasietan, arteagetan, lur hegietan gorde naiz. Etxera eramanen nauzu?

– Bai. Baina ez naiz nihaur bizi. Lamdarekin baino. Biziki jeloskorra da. Ez dakit onartuko zaituen. Ez diot deus erranen. Zure bisean bis aurkituko denean ohartuko da hor zarela.

– Arazorik ez dut nahi.

– Orain arte ongi pasatu da...

Hondarribia. Txingudiko bahia. Hendaiako Kasinoa.

Marrazotik baleara punpaka zihoan Sigmaren pentsua:

– Noizbait ikusi al duzu Atlantikoa?

– Hartu dudan ontzi bakarra Ceutatik Malagarako Gurutze Gorriarena zen. Gaizki nintzen, eri, unatua, botaka, sabela nahas, kalbario bat zen. Berrogei ginen, zenbait, ahulegiak zirelako ez zuten iharduki, itsasora bota genituen hilotz. Amets gaiztoa zen, ustel eta goitiki urrin hura...

Berrisailak. Hilotzak. Indiferentzia. Lege zinikoak.

Hendaiako lehorrean enpatia zerbait sustraitzen ari zen astiro Sigmaren baitan. Mugan jasan adrenalina uholde berdinak korapilatzen zion garun aldea. Ondarraitzetan ziren, Dunbarriak begimen. Eskuineko leihoa apaldu zuen. Gazitasunak biribilaren barnea eta Posa Ngakaren begitarte xifritua zipriztindu zituen.

– So egizu.

Pigmeoak ez zuen aski ninikarik berde-gris hantzen zen itsasoaren irensteko. Orlegitasunaren ilusioari uko eginez, olatuak hagun zuritan puskatzen ziren eki-sartzeak urretu harkaitzetan. Kalatxoriak, haizeari esker, olatuen bitsarekin jostari zebiltzan, desafioz. Ozeanoaren ezpondan Posa Ngaka bezain txikia sentitu zen.

– Atlantikoa da.

– Uki dezaket?

– Bai.

– Gure oihana bezalakoa da.

– Hori da.

Posa Ngaka arraposki ibiltzen zen sablean. Erortzearen beldur bailitzan. Sigma, gerritik hel-

tzeko gutizia menperatuz, estiraz higatzen zen, hondartzan jendea bazegoelako. Eskualde hauetan ez zen anitz estimatzen edozein modutako mugen gainditzea figuratzen zuena, non ez zen muga, politikoa, militarra edo zortzi milakoa.

Zapatak kendu zituzten. Pigmeoa makurtu zen. Bustitasunak ikara eragin zion eta intzirika askatu zen. Sigma malenkoniatsu zegoen: beharbada, duela hogeita hamar urte, eskolarekin Hendaiara bidaiatu eta urak ziliportatu zuenean, abere atrapatu baten antzeko garrasia zitzaion zintzurretik iradoki. Atzoko errekontru maritimoak bizitza aldatu ziola aitortu zezakeen: xendra guztiek, Erromara ez ezik, itsasora eroaten zuten garbiki. Argi zeukan. Itsasoa zen herrian, Basamortua, Ogellak, Ilbarritz, Amuaitz eta Loia Bahiarekin batera, kuttunenei erakusteko zuen gauzarik ederrena.

– Goazen.

– Zabala da!

– Bai, ama-ontzi bat da. Gure ama-ontzia.

– Londresera behar ez banu, mongolua hemen eraikiko nuke.

– Zer da hori?

– Txabola. Etxola. Sutearekikoa.

– Aterpea Baionan dukezu egun pare batentzat.

Kostaldeko hirien kordela. Inor ez zen mintzatu. Gatzak mututu zituena? Posa Ngakak A-8ko sarrera seinalatu zion, baina Sigmak, agiri gabeko batekin, bide arruntagoetarik zirristatzea hobe zela ihardetsi zion, deus ez bailitzan erantsiz:

– Miarritzeko ordaindegietan ardura hedexuriak daude. Droga dute bilatzen. Bai eta klandestinoak. Paper bako langile-trafiko galantak daude Schengengo eremuan, jakizu. Ez uste izan dena arrosa denik.

– Ohartua naiz.

Getaria. Bidarte. Miarritze. Angelu.

Hiri etengabeak azpiltzen zuen RN10a. Arbola ahulak bermatzen ziren hegietan, burdinetan preso eta arrotz, etxe, lantegi, supermerkatu eta jatetxe exotiko sailen erdian. Posa Ngaka Europako herrien itxurari ohitua zitekeen, den mendrenik ere ikaratu ez zelako.

Baiona bertan zegoen:

– Segundo bi eta heldu gara.

Sigmaren agerpena elkor amildu zen. Posa Ngakak, zer edo zer erantzuteko partez, kantatzeari ekin zion, boza begiak adina jauresle. Pigmeoen sudur ahotsez ari zen, neurri kolpekatuan, soina aitzinera eta gibelera higituz. Sigmak karrika bazterrean paratzeko gutizia zeukan, baina ez zezakeen puska graziaren pegarra, txukuna, sakona, belaitza, gerizagarria eta ederra baitzen. Ezer ez zuen kontrolatzen. Abeslariak, aldamenean, soinua libratzen zuen mihia ahosabaian klaskaraziz eta Sigmarentzat arraroak ziren fonemak aireratuz.

Tu l'aimes ou tu la quittes.

Kolkoa setiatzen zion kordoka gorriaren galerna ekiditen saiatu zen:

– Baiona, 40.000 biztanle, gutxi gorabehera. Hogei metroko goratasuna. Euskaldunen, juduen eta txokolatearen hiria. Besteak beste.

– Hau al da zure herria?

– Bai, hau da. Lamda aurkeztuko dizut.

– Eta ene aterpetzeko ados ez baldin bada?

– Oraintxe kantatu didazun erara kantatuko diozu eta gauzek hobera eginen dute. Eresialdi batek salba gaitzake ardura.

– Eskertzeko abestia zen.

– Baliatuko zaigu.

Ez hain aspaldi ijitoen karabanen errezibitzeko zetxikaten Glaineko parkinean laga zuten mandoa. Gaurkoan ez zitzaien geldiunerik nehon zilegitzen, biltzeko eta otoitz egiteko. Donibane Lohizuneko Akotzeko geratokia CRSek haizaturik kitatu zuten. Angeluko *Ainara* elkartearen aurkako oldarra halaber aintzakotzat hartu zuten botere publikoek. Gadjoak ez ziren gozoak nomada gisa zebiltzanekin: baztertzen zituzten, oilo, oilar eta ume ebasleak zirela deiadarkatzen zuten, herritar txukunak izuz atxikitzeko. Eredu burges neoliberalaren zurrunbiloan alferra, ohoina, baliatzailea, likitsa eta saihestekoa zen hurkoa beti. Urrikia ezabatzen zuen kapitalismoak, alafede.

– Zakurik ez daukazu?

– Poltsa honetan daramat dena. Konpontzen naiz. Oihanean biluzik genbiltzan.

Posa Ngakak Bob Marleyren potreta zeraman atorran laketu zen Sigmaren soa. Oihal merkean moztu jeans pare bat zeukan beherean eta errautsez emokaturiko kiroletako oskiak. Milaka

gazte beztitzen zen Bob Marleyren ordez, Malcom X, Che Guevara edo Franz Fanonen aurpegi koloreztatuak soineratuz. Sigmak, ahal baldin bazuen, Monique Wittig, Maria Merce Marçal edo Audre Lorde begitarte ortzadartuez hornitu t-shirtak jantziko zituzkeen, harrotasunez eta ohorez. Baina ez zitzaion inori horrelako xede komertzialik jaukitzen. Egia zen hargatik Jamaikako izarraren melodiek izakiak edonon kulunkatzen zituztela eta halatan omenaldi beratzak merezi zituela:

– Stand up for your rights...

Posa Ngakaren xuxurla.

Etxeko atean zeuden. Sigma zainetan zebilen: nola agertu Lamdari zenbait egunez klandestino bat apartamentuan edukiko zutela? Behin Josu ezkutatzeari uko egin zion, Lamdaren haserrea eraginez. Astebetez mutur egon zitzaion:

«Ez dakit zer duzun buruan! Josu ihesean dabil. Polizia guztiek bilatzen dute eta ez duzu nahi atxiki dezagun hemen, soto seguruago bat finkatu artean?».

«Hiru urteko presondegi gaztigua bilduko dugu, gurean terrorista bat txispiltzen dela sumatzen baldin badute».

«Nork dakike? Ez da arriskurik. Mendizalea dela erranen dugu».

«Hiltzaile bat da».

«Aurrejujatzen duzu. Ene betiko adiskideetarik da. Eta ez du gaizkirik egin».

«Zergatik eskapatzen da orduan?».

Sigma umekerietan trabukatu zen, bizikidearri beldurrak akuilatu ezezkoa zemaiola. Ez zion barkatu. Hortik ebatzi zuen barkaezina zelako sentsazioa.

Posarekin arinago zihoakion iraganaren zama.

Hegatsak balakatu zituen euriak.

Tu l’aimes eta kito.

–2–

Lamdaren hatzik ez zen bosgarren estaiko egoitzan sartu zirenean. Lanetik landa ardura, hirian zehar ausatzen zen, Sigma eratorrian zelarik bereziki, Bartzelonan, Erroman edo Berlinen.

Ondoko astelehenean Mexikora zuzentzekoa zen Lamda, kongresu batean parte hartzeko, planetaren berotze fenomenoen espezialistetarik baitzen. Erleak zituen nagusiki aztertzen bost kontinenteetan. Eta baleez maitemindua zen. Noiztenka goizeko oren zurbiletan mamiferoen abestien grabaketarekiko KDa sakatzen zuen irakurgailuan. Desira berotzen zien soinu elkorrak, minberak, itoak.

Posa Ngaka kukuzka zegoen, hormetan zintzilikatu argazkiei beha. Ekuatore Afrikako eta Amazoniako oihanak ageri ziren, Bardeetako mortuak eta Ogellako harridiak. Pigmeoa berriz ere kantuari lotu zitzaion. Beltzorriaren ahotik jazarri melodiek erotzen zuten Sigma. Munduarekiko samurtasun itzelak korapilatzen zizkion her-

tzeak. Lehen aldia zen horrelako zerbait sentitzen zuela, eta behingoz zintzo ekiteko unea hurbiltzen ari zitzaion.

Euskararen eta Euskal Herriaren aldeko borroketan nardatu zen alabaina, haize farfailaren antzera erabili militante arruntena izanez. Orduan modestia bera debekatua zitzaion. Ohartu zen denborarekin odol eta ele uholde guztia boterea erdiesteko modua baino ez zela buruzagientzat; astiro saihestu zen, baztertu zutela ez errateko, aski fermua, aski fedetsua, aski itsua ez zelako. Lamdak nazioaren ideiaren getarian zerraikan, eta maiz kexatzen ziren gai bat edo beste zela medio. Hargatik Lamdak maite zuen Sigma, eta vice-versa gorputzen epelaz mulikatzea, ibiltzea, solastatzea, gosaltzea, larrua jotzea. Politika aburu kontrajarriak ukanagatik.

Liburuz mukurutu sukaldeko mahaiaren gainean Lamdak abandonatu papertxo bat aurkitu zuten: *Kaparenean nago afaltzen, sarri arte, maite zaitut*. Erlauntzak zeuzkan barnealdeko Kapa laboraria konturatua zen, erleek uzta mendreagoa ekoizten zutela auzoek arto transgenikoa ereiten zutenetik. Lamda deitu zuen gerta-

karia aztertzera hurbil zekion. Erleak naturaren *seinaletzaileak* ziren, eta izakirik txikienak pairatua –oraindik mina jasaten ez zuen arren– handienak sufri zezakeen. Bizitza katearena azpimarragarria zen, ez bakarrik Lamdaren begietan, Sigmaren eta Posa Ngakarenetan berdin. Mendi orlegiaren kaskoan, aterki sareduna buruan eta esku-larru lodiekiko Kaparen potretaren azpian erlastu zen Posa:

– Zertan ari da?

– Erleak artatzen. Hauspoaz kea barreiatzen du kofoinaren barnera, eta erleak aztoratu egiten dira. Horrela ezti oparoz hantu oholtxoak eskura ditzake!

– Guk ere eztia biltzen dugu gure oihanean.

– Denek orok hori dukegu bilatzen...

– Kongoko erleak salbaiak dira eta ez ditugu aurpegiak gordetzen erlakume multzoen gatibatzeko. Ehiztariak kantu bat hegaldarazten du, arbola luzekoien oinetan sua pizten eta han bertan keak burtzoratzen ditu. Ederra da erlea: beltza, horia, ahula eta batera indartsua. Legenda zaharrek diote, izakia mendeekin uretarik jaukiriko molekula batetik datorrela eta intsektu moldean

bukatuko duela. Brazzavillen nengoelarik, Cronenbergen *ulua* irentsi nuen eta haurtzaroan aditu istorioez gogoratzen nintzen.

Irriz zeuden elkarri.

Beltzen tratuak Ganbia, Senegal, Benin eta Ghanako lurraldeak larrutu zituen hiru mendez. Europarren eta arabe-musulmanen razzien junta-toki gisako kontzentrazio zelaiak hedatzen ziren San Luis, Ziguinchor eta Goreeko uhartean besteak beste. Goreeko esklaboen etxearen buruzagi 1785 aldean egon Boufflers zaldunaren izenaz bataiatu zen Aturri hegiko Baionako karrika burges bat.

Baina zer derasat?

Giltza herotsa.

Lamdaren begitarte zabala ilun zebilen Kaparen argazkiaren azpian, ezezagun zitzaion Posa Ngakaz konturatu zenean. Aurkezpenerako prest, aldiz, Sigma zoriontsu zen. Pigmeoa, bien artean zer ari ote zen gertatzen galdezka. Kanpamenduko kideak behialako misiolari baptista haserretuen parean bezala, hobendun sentitu zen, bekatoros, lizun, zikin. Sigmak Lamdaren

ahurra tinkatu eta matelan musu bustia laga zion. Lamda ez zen kantitu:

– Nor da hori?

– Kongoko pigmeo bat, Londresera behar du. Paperik ez dauka eta Bartzelonatik itzultzean, bortxaz baina, frontera pasatu dugu. Kuku-gordeka.

– Gezurti bat zara. Zure infidelitatea estakuru humanitarioz apaintzen didazu. Uste duzu sinetsiko zaitudala? Ez dut nahi hemen gera dadin. Edo biek kanpo duzue.

– Lamda, otoi...

– Humanitarioan zu! Ez da hoberik! Azken aldian Josu gure sendiko euskaldun suhar eta herritar propioaren aterpetzea ezeztatu zenidan, lanjerosegia zelako, eta gaur, muga klandestino batekin iragaten duzu. Bekaitz bat baizik ez zara! Zer xerkatzen duzu?

Pigmeoak bostekoa luzatu zion:

– Posa Ngaka naiz. Sigmarena egia da. Arazorik baldin bada, edozein zubipetan ezkuta naiteke. Afrikatik abiatu eta plaza ez gomendagarri anitzetan etzan naiz... Euskal Herria ez da Tonbuktu.

Posaren hitzek Lamdaren baitako tentsioa jaitsarazi zuten. Lamdaren telefonoak jo zuen. Gelako leihoa herstean, bero sapadunaren ondorioz zerua lainotu eta jada lantxurda emeak lurra besarkatzen zuela baimendu zuen Sigmak. Behereko belardiko lanparen argitan uharra bihika zihoan, samur, ukigarri, amoretsu. Lamdaren etsia zuen:

– Larunbatean Londresera abiatuko gara. Trenez. Hegazkinez eta pasaporterik gabe ezin du Posak. Sobera kontrola bada. Anartean gurean egonen da. Astebete. Ez gehiago. Zin dagizut.

– Mendizalea dela erran dezakegu.

– Lamda, mesedez.

– Ez dakigu zer gerta dakigukeen.

– Ez... Zer dira ordea bost egun bizitzan? Dokumentu faltsuak merke marrazten dituen bat badela badakit, sasi-hiri horietan. Ezjakinago eta askoz hobeago zuretzat.

– Posa, zergatik ez duzu Frantzian gelditu nahi? –Lamdarena tximist atera zen–. Politika arrazoiengatik ihesean baldin bazoaz, erakunde egokietara bidaltzen ahal zaitugu unean uneko

paperak lortzeko. Arrotzez axolatzen den elkarte bateko buruzagiarekin harremanetan jar zaitzaket.

– Ingalaterrara noa. Frantziako legeak bortitzak dira klandestino afrikar gizagaixoekiko. Parisek aberats eskolatuak baizik ez ditu onartzen. Gainera, Londresen arrazismo gutxiago omen dago. Eta Sohon ohatu da Sambakwa herritarra. Harengana behar dut.

Mututu zen Posa Ngaka.

Isiltasunaren edukia konprenitu zuen Sigmak. Solasaren hariari tiraka tematu zen, soako arranguratsua Lamdatik Posara lerrarazten zuela:

– Egoera konpondu artean bederen, ez al duzu gurekin geratu nahi? Aipatu dizun arduraduna elerranen du Lamdak. Hilabete baten afera da.

– Sambakwa Londresen aiduru daukat. Paperak han eskatuko ditut. Badakizue, Bamakon nengoela, egoitza neokolonial bateko jabeen sehi lanetan, Frantziatik arras biolentoki kanporatu RBK gurutzatu nuen. Hegazkinetan sartzen dituzte, zainak hiltzeko txertoekin zaintsuegiak baldin badira, poliziaz inguraturik bidaiatzen

dute, batzuetan hegaldiko hiritarrak biolentzia horren kontra oldartzen direla. Lehendakariak Malira *charter* haboro hitzeman zituela berretsi zidan ostalari bihurtu RBKk. Sambakwak Ingalaterran erresidentzia karta du jadanik. Bere familiakoa naizela froga dezake menturaz. Akwa leinukoak gara biok.

Franzafrik hustukatu zuen Sigmak.

Nortasun nazionalaren eta inmigrazioaren ministerio agerroia sortu zuten gobernuaz jabetu orduko. Oraindik ere Goree irlako kate hotsak eta larderiazko mintzaldi xenofoboak mihimin zapalduenen puntetan tu oihartzen ziren.

Begiak hezetu zitzaizkion.

Baina jainkoa jadanik beltza zen.

Lamdak afaria prestatu eta Sigmak Bartzelonatik ekarri liburuak hostokatu zituen. Posa Ngaka hara eta hona zebilen. Hondarrean gogoetari eman zitzaion. Pigmeoaren hatsartzea ez zen entzuten, desagertu bailitzan. Ez zuen kantatzen. Sigma mahaiko ogi mami puxinkekin jostatzen zen. Lamdaren belarria musurikatu zuen. Barrez ari zen, baina Lamdak esku gibelaz haizatu zuen:

– Utz nazazu bakean! Ez duzu ikusten okupatua naizela?

– Kexu zara nirekin?

– Pixka bat. Abisatzen ahal ninduzun. Ez zenuen mugikorrik ala?

Ez zen beranduegi listorraren burrunbaren entzuteko:

– Bizkitartean zu zara Posaz alfatik omegara axolatzen. Ni asteazkenean Mexikora noa. Eta ez ahantzi hitzordua dugula han datorren hilabetean. Billetea hementxe daukazu.

– Nahi zaitut gaur.

– Zein nazkagarria zaren!

Sorbalda ukaldi xeheaz bultzatu zuen Sigma.

Posa Ngakaren aldamenean ttottotu zen: *flüchtig bleiben*.

Hori baitzen, nehoiz ez zen gelditu behar, nehon, tai gabe ekinez, Posaren antzera eskapatzen edo ingurukoek Sigmari leporatzen zietenez, azalkerietan galtzen. Ez baitzen alabaina, bospasei hizkuntzetan errepika zezakeen *hurrengo geltokirik*. Zena zelakoa, begia aldizka Posaren ahur ilunetan, eta Lamdaren bizkarrean lausotzean bazekien *ultima fermata* hark herioa

zekarrela. Garrantzitsua zen ez hiltzea, bizirik irautea derrigorrez, izpiritua alha eta bihotza pil-pil.

Ezagutzen zituen noski zainak anestesiatzea garaiz erabaki zutenak. Behin, begi-kliska batez Yotaz maitemindu zen, haria hiruzpalau astez irun zuten, noizbait kaferako gonbidapen baten aitzakiaz, tabernako eguteran argiki mintzatu zitzaion arte:

«Ez dakit nola has».

«Ez nauzula gehiago maite erranen didazu, bestela ez zenuke halako zailtasunik».

«Horixe da: ez zaitut maite. Uste nuen neuretzat zinela, baina ez, engainatu naiz. Engainatu nauzu, hobe».

«Nitaz trufatzen zara? Zer egin dugu elkarrekin hilabete honetan? Hori ez baldin bazen maitasuna –altzairuzko zinominoka marraztu zuen Sigmak–, gauzen izaeraz dudatzera ekarria nintzateke».

«Larrua jo dugu. Ezberdintasun handia dago zuk amodioa deitzen duzunarekiko. Tronpatu naiz. Ez zaitut ildokoa. Gainera jasanezina zara, higikeriaren gaitza duzu, funts bako perpausak

ahosabaian, ohantzean itzuli-mitzulikaz akitzen zabiltza, lotarik ere bakerik aurkitzen ez bazenu bezala».

Sigmaren ninikak busti-bustiak ziren. Posak eskuaz berea balakatu zion, kolore zuriak eta beltzak sosegu bila batzen zirela. Oroitza beratzen zion Yota hura hila zen, txio eta jauzika ibili arren, sentimenduak udalatu elgeen ereiteko gutiziarik ez zeukalako: desiraren ehorztea, inozentziaren kriminalkeria soilez, norberaren erailtzea baitzen.

Ordaintzeko orduan Yota mintzatu zitzaion, lakar: «Eta hurrengoan norbaitez erremintzen bazara, atxik ezazu distantzia eta barrutik jabal zaitez amiñi bat, bestela nehork ezer ez dezake zuretzat».

Yotaren gomendioak zeramatzan kaskoan laztan zezakeen batengana hurbiltzen zen oroz, edo Lamdak, gaurkoan nola, haserre gorriaz haizatzen zuenean. Itarekiko soka-muturra behin suntsitu zuen, hain zuzen distantzia sobera mantendu zutelako biek eta sentimenduari helmugarik ikusten ez ziotelako: zepo tepotik ez zen sekula jalgiko.

Zutitu zen.

Posak abestu zuen giroaren jabaltzeko. Janariaren usaina erregin, hirurak hormatu ziren bakoitza bere katilua ahurretan. Lamda gaitzitua zitekeen. Posa aharrausika, nekatua zelako hainbeste ezuste jasanik. Eta Sigma goibel. Hargatik Lamdak prestaturiko arrain-saltsa deliziosa zen. Ur basoa gorarik, Sigmak Posari eta Lamdari handizki deklaratu zien:

– Ongi etorri gurera, Posa.

Lamda karkaraz lehertu zen, misterioski. Posa Ngaka poztu zitzaien eskerrak bihurtuz. Sigmak, ahapez:

– Bulegoa daukagun gela horretan lo galantak eroango zaitu. Bihar lanetik landa joango gara Aliasengana, egiazkoaren itxurako pasaporte faltsua irarriko dizu hark. Lilleserako treneko txartelak ere hartuko ditugu larunbaterako. Artean hemen geratuko zara gordean. Lamdak ez du arazorik nahi.

– Bai, ulertzen dut. Igandean Londresen izango naiz beraz?

– Dena ongi baldin badoa, bai. Sambakwa deitzen ahal duzu jagoitik. Eskukorik baduzu?

– Ez, ez dut ezer.

– Kargatu eta neurea prestatuko dizut, non daukadan ez dakidan arren.

Lamdaren begiak lizundu ziren:

– Portablea etxean uzten duzu ateratzen zarenean. Bartzelonan, gabe zeunden. Zer edo zer agitzen ahal zitzaizun eta ez nuen deus jakinen?

– Nigatik kezkatzen zara?

– Nola ez? Maite dudana zara, besterik ez.

Geldoaldi horretan, hasiera-hasieratik trukatzekoa zuten musuak apaindu zizkien aho-izkinak. Sigmaren bihotzean *Sarà perche ti amo* ernatu zen eta behatz deliberatuaz musikategian gatibatu zinta buklatu zuen. Italiarren aire xoxoloaren arintasunaz uzkaili ziren leihotik urturiko ilunpea, Posa Ngakaren aurpegia eta pegartegian itzalduriko Lamdaren silueta.

Posaren ohea egin zuen Sigmak: mihise garbiak, burukia, elefanteak, tigreak eta zebrak marrazkitan zekartzan estali lodia.

Logelako atea zabalik utzi zuen pigmeoak. Lur hasean zetzan, besoak gurutze, zurrungari emana. Lamda bainutegitik itzuli bezain laster, Sigma ganbara hezera lerratu zen sugetzar joa-

reduna bailitzan. Ezpainen gazitasunak akuilaturik bezala, hatsa bahitzear, gorputzak magma malgu, elkarren baitan batzera haiatu zituzten, auhen eta xuxurla estofatuz. Bidaiaz zenetan Sigmak eskas zuen Lamdaren leuna, beroa, zakarra, borobila, sorbaldak, lepondoa, sabela, hankartearen mikatza. Falta fisikoa zen, izartu ezina, mutilazio edo anputazio baten modukoa. Hiri arrotzetako karriketarik ibiltzen zen orduan, kafetegien terrazetan auhertzen zirenei beha edo ortzadar koloreko ghettoetako dantza-lekuetan gau bakarrerako izengabeko amante bila.

Lamdarekin hasiz geroztik, noiztenka tekila freskoaren pindarrak barruak sutzen zizkiola, ezkerraldean murgiltzen zitzaionaren perfumearekin askitto zuela erabakitzen zuen. Sigma ez zen nehoiz fidela izan, baina Lamdarekin saiatzeaz beste erremediorik ez zeukan.

Bizkitartean larrualdiaren ekinean kontzentratu zen, hausnar likitsen zernaitzak abandonatuz: plazerezko olatuak haragi malguen harkaitzetan kraskarazi zituen maitaleak. Sigmaren mihia Lamdaren papondoan zirristari, jaitsi zen, jaitsi, jaitsi irakitear zegoen iturburua aurkitze-

raino. Han, milikalapa intzirikariz egarria ase zezakeen. Lamdaren atseginezko oihuaren gogortasunak munduaren hondar mugetara bota zuen birindika, ukitua, itxuraldatua. Negarra begietara jauzarazteraino.

Amodioa eta exilioa posta-kartaz zedarritzen ziren:

Senegalgo Dakar hiritik lau kilometrotan dago Goree, itsaso erdian. Txalupaz hogei minututan. Egoitzen arkitektura, diotenez, estilo kolonial orekatu bezain perfektuzkoa da. Miresgarria. Bisitarien urratsak trabatuz hamarnaka haur aurkitzen dira baobab eta bougainvillier delako zuhaitz tropikalen maldetan.

Sigma, gaumin, altxatu egin zen, edan eta bulegoratzeko: pertsianak zeharkatzen zituen ilargi arraioan, Posak sudurrots xeheak adierazten zituen, Kongoko oihanaren bakean bailegoen. Alabaina nomadak ez zuen sortaldeko ihaurgi marduletan lotaratzeko ohiturarik. Nahiago zituzkeen buztinaren bihotz taupadak edo lur peko hodietan zebiltzan xinaurri eta zizare malatsen irrista tematsuen xirri-xarrak hauteman: nork ze-

kien? Ororen buru Sigma Lamdaren ezkerraldean kuzkurtu zen, umeki.

Pigmeoaren bezperako abestiaren oihartzunak urratu zion gogoa: melodia hura urrunetik zetorren, amodioa irudika zezakeen, exilioa, esker ona eta berriz amodioa. Wangari Maathai izena jin zitzaion neuronen mustupilkatzera. Izpiritua troxatu zuen memoriaren inarrosteko. Bakearen Nobel saria 2004an erdietsi zuen Mombasa aldeko emazte kenyar bat zen, green belt mugimenduaren eta edonork globoan barna hazkurritzat erabil zezakeen *autobus okerraren sindromea* zelako metaforaren sortzailea.

Zergatik sartzen ginen autobus okerretan? Erkideen erruz zitzaizkiguna beti makurrik okerrenak agitzen? Nolaz ez genuen arreta gehiago jartzen obratzen genituen gauzetan? Zelan genbiltzan botereak kritikatzen, maioriaren legearen arabera geronek ezartzen genituelarik gizon nazkagarri oldeak gobernuetan? Ez ote genezakeen ezer opilaren ontzeko, gure desirak eta premiak garatzeko? Autobuseko txoferrari bortitz arrabokatzeaz beste ilkibiderik ez al zen? Gure nortasun ezkutatuak laidoztatzen zituzte-

nean, zergatik txalotzen eta alaitasun orokorraren parte oso ginelako bekokia salbatzen genuen? Kuraia eskasez? Aita sinbolikoak errespetatzeko bakarrik? Zertako hain erraz apaltzen genituen kopetak? Galerna pasatuko zela sinesten genuelako arauz? Bertolt Brechten moduko galdetegietako mailetan behaztopatzen zihoan.

Wangari Maathaik kenyarrak beraien egunerokotasunaz axolatzera eta idorteak erraustu lautadetan zuhaitzak landatzera animatzen zituen. Arbola baten egoeraz kezkatzen zena bizitzaz ere ardura baitzitekeen, jendeak eta arbolak enbor berdinekoak ginelako.

Kolonialismo garaietan Port-Jesus izeneko Mombasako azkorriak imajinatu zituen Sigmak. Ezezagun zitzaizkion, baina arrazoia ematen zion Wangari Maathai andereari: ikastekoa zen aldrebesturiko autobusaren geldiarazten, zinez pentsatua salatu eta eginez.

Astia ukatzen zitzaigun.

–3–

Posa Ngaka sukaldeko aulki mainguan zegoen, nagi. Kafe makinara zuzendu zen egun on-ka Sigma aharrausika. Pigmeoa aspaldian iratzarria zen. Pistolarekin jostari zebilen. Izuak kateztatu zuen itseskatzen zihoana.

– Zertan ari zara?

– Har ezazu ene arma. Ez da lagun txarra.

– Ez, alaina, ene bahitzeko erabili zenuen. Hori gabe nehoiz ez zinen goiz honetan Baionan esnatuko.

– Damu duzu ala? So egiozu: plastikozkoa da.

– Emadazu arren.

– Ez dut horren beharrik.

Sigmak sagu-muturrarekiko tresna eskuetaratu zuen. Beltza zen baina ez astuna. Alegiazkoa zen benetan. Argi zirrinta hartako lehen karkazail zaintsua askatu zuen. Sinestezina zitzaion. Egia zen, bestalde, Posa pistolaz baliatu ez balitz, Sigmak ez zuela sekula pigmeoa muga zeharkatzen lagunduko. Zergatik ibiliko zen normalean baztertzen zituen arazoetan barna, klan-

destino batekin beribilean, asfaltoak izerdi zirauen bitartean? Alfajarineko autopistako aparkalekuan sentitu lotsaz ernari zen oraino:

– Zertako ni neu?

– Erran dizut. Kafea zerbitzatzen diguzu!

– Beltz-beltza da.

– Ni bezala.

– Eta beroa.

Anartean, sukaldeko mugimenduek harroturik, Lamda ohantzetik erori bezala zen, alegrantzia orokorrean parte hartu nahi bailuen. Alta isilik dutxaratu zen, agur apurrak banatu eta bainugelako atea giltzatuz. Sigmak, kikara ahurrean, musikagailua piztu zuen, gorputz etenduak astintzeko *Lesbians on ecstasy* taldearen KDa hain zuzen. Posak, lehen aldia bailitzan, arrapaladan hustu zuen katilua. Azken xortara heltzean berriz luzatu zion Sigmari, arradatu zekion.

– Zer eginen duzu egun?

– Gorderik geratu behar dudala erran didazu. Eta zuk?

– Langabezia bulegora noa. Duela bi aste lanetik kanporatu ninduten, gintuzten funtsean,

oihal fabrikako ehun eta lau kide, adin batekoak oroz bat, denak fuera, denak inutilak, denak debalde badakizu. Lizentziamendu gutuna postaz bidali ziguten, postaria bera hits zegoela. Nagusia Txinara doa, oinarrian benefizio ahalik handienak desiratzen dituelako aitzakia ezkutatzearren, goraki diolarik hemen guztia, bereziki langilegoa, garestiegi ateratzen zaiola. Pentsa ezazu prentsak eta gainerakoek bere biktimahitz xifrituak gureak baino agudoago errepikatzen dituztela!

– Eta lanik gabe zer bilakatuko zara?

– Asko ere ez genuen irabazten, baina gaurko mendean bizitzeko minimoak sakelaratzea sakrilegio gisa aurkezten duen gizartean gabiltza. Aberatsenek SMIC hura pribilegio bat dela deiadartzen dute. Zoaz zu zerbaiten ulertzera...

Posa beha zegokion, pigmeoarentzat aberats okituetarik baitzen Sigma. Musu trukean ibilia zen Brazzavilletik Baionarako kalbarioko hamalau estazioetan: Doualan, N’Djamenan, Niamein, Bamakon, Nuakchoten, Tangerren, Andaluzian eta Katalunian. Malagako Gurutze Gorriaren egoitzan ekiaren ausiki gaziez sendatzen zute-

nean ikasi zuen Costa del Soleko lehorreko Motril hiriaren bahian desagertutzat eman zirela Marokoko harkaitzetarik fortunazko ontzietan abiaturiko hogei bat klandestino: Kongokoak ziren, anai-arrebak, Senegalgoak, Nigerrekoak, irriz ari ziren galernaren erdian, herioa uxa asmoz. Itsasoak hilotz ilun muskerrak aurtiki zituela zekusan geroago telebistan. Ordurako Ebro deltako baserri erraldoi batean irrisa landatzen ari zen, ase eta lo trukean. Ez zeukan Ingalaterrara edozein moldez heltzeaz beste iraunerarik.

– Karga bat nintzateke zuretzat, ezta?

– Ez, konponduko gara. Gutxirekin ihardukitzen irakatsiko didazu eta, astia dudanez, harrak zerebroaren meandroetan kurruskari uzteko ordez Londresera eramango zaitut.

Ogitik lastora bereber marmaratu zuen:

– Herrialde honetako nagusi eta politikariek ez dute bakerik izango harik eta langileak astean berrogeita zortzi orenez ari araz eta hilabetean hirurehun euro ordaintzeraino. Errumaniarrak eta, Dassault zaharraren arabera, txinatarrak dituzte eredu sozial. Baina berdin dio, ez gara ho-

rregatik desesperatuko, eta larunbatean Sohon izanen gara.

Lamdak biloak orrazten zituen. Sigma maite zuenari so geratu zitzaion lainoz gatibaturiko haran trinkoetako erreka ezpondetako azti uhergarria bailitzan: bat baizik ez eta hura zuen bihotzaren susta harri, zutoin eta minarri. Ogellako harritzarra zitekeen amodioa, lakarra, meharra, naharra, zakarra, izarra.

– *This the way that we live and love*.

– Garbitzera noa.

Posa Ngakak Sigmaren ametsa hautsi zuen.

Anartean Lamda ordenadorearekin teman zebilen distrito federaletik etorri mezuei boleran ihardesten. Sei-zazpi hilabete pasatuko zituen Mexikon, zioen urguiluz, natura gerizatzeko nazioarteko gobernuz kanpoko elkartekide gisa. Itsasoa, baleak eta kutsaduraren ondorioak jorratuko zituen. Erleak ere baiki, Yucataneko oihanetan multzo eder burrunbariak bazebiltzalako baobab zaharren abar gorakoietan.

– *E bella la vita*.

Sigmari hizkuntza arrotzak mustupilkaz jazartzen zitzaizkion. Posa halaber noizean behin

bere mintzairaren menera lerratzen zen. Halako batean Sigma oroitu zen Bartzelonako begi berdea nola burlatzen zitzaion El Ravaleko karriketan:

«Harrigarria da zenbat eledi ezagutzen duzun! Bartzelonan geratzen bazina, katalana ikas zenezake».

«Menturaz bai. Eta badakizu zergatik? Amamintzoaz biluzi haurra naizelako. Mutuarazi nindutelako mukizu hotza nintzenean, ahalkez hezi ninduen erdaraz aparteko adiztegi guztiek fazinatzen naute, denak jakin nahi nituzke».

«Eroa zara».

«Bigarren abizena, horrelakorik banu, Babel izatea nahiko nuke. Isila naiz, burua hargatik aurrizkiz, atzizkiz, deklinabidez, lexikoz eta gramatika ezberdinez toteltzen zait».

«Patologikoa da nolabait».

«*Kali nikta* kamarada».

Sigmak itzala urtzen ikusi zuen Rambla animatuen gauean. Saltegietako txorien txioak aditzen zituela, ahurrean zeraman begi berdeak oparituriko argazkia, atzean lau telefono zenbakiekin. Posa Ngakak Alfajarineko aparkalekuan

potretari begira kukuzkatu zuen, iheserako aukera lagungarria zitekeela iritzi bitartean. Pigmeoak, Allande Oihenarten moduan errateko, Sigmaren ahul bulta amoriotsua baliatu zuela aitor zezakeen espantuz.

Langelatik Lamdaren oihua jazarri zen:

– Etzi aireporturatzeko zurekin konta dezaket?

– Bai, bihotz.

– Ez al duzu jada ANPEra behar?

– Hamarretan dut hitzordua. Posaz axolatuko zara? Sarri aterako gara. Eta itzultzerakoan *arratseko mahaietarik* iraganen gara.

– Ez dut konprenitzen nola sartu zaizun supituki, langabezian zaudenetik, humanitatearen aldeko amultsutasun iragankoi hori! Betidanik erran duzu urrikiarekin ez zela ezer konpontzen, justiziarekin baino.

–Hori diogu justizia pixka baten alde borroka daitekeelarik. Justizia ongi ikusia delarik. Orain mundu osoan, egitura egokitze egitarauen biktimatzat jo daitekeen gehiengoaren buruetan justiziaren oihal gerizagarriaren urratzea lortu dute eskuineko politikari zein kazetari neoliberalek,

justizia luxu zaie, eta dagoeneko urrikiaz baizik ez da petaxatzen ahal hondatzera doan *eroen ontzi* soziala. Pobrezia goberna tresna abantailatsua da, langabezia halaber.

Borta banbarazi zuen.

Langabezia bulegoa hiriaren hegoaldean zegoen, urrun, zer gerta ere. Karrikan bizidun presatuak bazebiltzan, adinekoak sustut, aizinantak, lehendakariak urguiluz itotzen zituen goizik jaikitzen zirenak, berrogei urtez lanean zinpurturikoak, erretreta ongi merezia zutela ziotenak gazte alferrenganako mendeku airez. Botere kontserbadoreak zituzten igortzen gobernutegietara, errestaurazio urrina zerien haustura iragarriak txalotuz eta Herria herritarrentzat zainduz. Aberastea hitz ematen zitzaien bozka-kanpaina zurrunbilotsuetan baina krisiak engoitik bazterrak geldotu zituen: ez zen gehiago metaliteratura neutrala kometitzeko tenorea, ideologia pornografikoen kontrako krimen zeken eta itsuak baino.

Atzerritarrek, aitarik gabeko umeen ama bakartiek, homosexualek, ezkertiarrek, grebalariek, funtzionarioek, idazle sarituek, hiru urteko

haurrek, laborariek, artista tunanteek, paganoek, erretzaileek, lodiek, darwinzaleek, autogaitzesleek, langabetuek eta RMIstek larrutik edo zorrotik kario paga zezaten zuen desiratzen azkenean aurpegi leunarekiko auzo plaxentak. Etsaiak zituen denak, kalitzekoak. Errentagarritasunaren malenkonia eta dolua garatzen zuten debaldeko izateek pentsalari egokien agresibitatea merezi zuketen, lurraren pean behin betiko satortu zitezen: irabazleek bakea eta segurtasuna zuten galdatzen.

Eskaleak marrumaz ari ziren, kokotsetarik tua zeriela. Lan-zerbitzuaren barnean, deboilamendu sozialaren ezpataren lehen motzaldiaren emaitzatzat aurkeztu zitezkeen desjabetuak zeuden herronkan, mutur: harro izatekorik ez genuen alaina. Sigma ez zen pleinitzen, lanean hilabete sari ona eskuratu zuenez, bi urtez bederen horren ehuneko hirurogeita hamarra sakelaratuko zuela jakinarazi ziolako aholkulari xarmantak. Hiru enplegu-aukera bidaliko zizkioten eta hirugarrena onartzekoa zuen derrigorrez, langabetze-diruaren koteraren jarraipena erdiesteko.

Laurogei zenbakia zekarren papertxoa ahurrean bere aldiaren aiduru, egoeraren larritasunaz konturatu zen Sigma: ASSEDIC eta CAFaren bortetan belaunikatzen ziren herrestak. Zerbitzu publikoen maldan. Besoa luzatzen zuten, politeziaren heina zainduz: *egun on bat pasa ezazu hala ere* zioten, kukusoz perlatutako lau egunetako bizarrak ferekatuz edo akote ezkelak ozkan ezarriz. Gizonezko bezainbat emakumezko bazen petirisantzen gurtzaileetan, Sigmak askotan baimen zezakeenez, bizitza osoa lanean zitzikatu eta hondar zatia amoinari bukatzen zutela. Ikusgarriak ez zien esperantza handirik zilegitzen gaurko lantegietan errausten zirenei, sosdunak airos zebiltzala, geroaren jabe.

Sigma gardostu zen.

Posa Ngakaz ments.

Bulegoko gela argitu zuen afrikar basamortuetako jantziz apaindu beltz zardai batek. Arropa urdin brodatua zeraman soinean. Nigertarra edo maliarra zitekeen. Herrialde txiroak biak. Afrika hiltzear zegoen, Afrika, Afrika, Afrika, jendetasunaren sehaska, hizkuntzen arragoa, lurraren bularra, zirikatua, zikiratua, eritua, gosetua,

menperatua, europar eta amerikar egitura sozio-politikoek xurgatzen zerraitena, txinatarren azuzkuluen ausikiaren zain kolonialismoaren garairik hoberenetan bezala. Kanpoko botereek sustaturiko gatazketan, populuak bata bestearen kontra oldartzen ziren Ruandan edo Darfurren, elkar masakratzen zuten, frantses soldaduen nahiz UNOko indarren begirune auherraz. Gerla etnikoetarako jaidura genoman zeukatela zioten ahuntz ahots karkaralariaz Afrikaz mintzo ziren zuriek.

Ontasun mineral hutsak bailiran, umeak ebasten zitzaizkien mediku operazio humanitario faltsuen aitzakiaz, Europako familien haur falangak sosegatzeko. Pigmeoez, gabondarrez, ghanarrez, benindarrez, maliarrez edo nigertarrez kargatu batelak eratortzen ziren Mediterraneoan zehar Malagako lehorretan edo Lampedusako basalto puloetan xirtxikatzeko. Bezperan horrelako *boat people* bat setiatu zuen Espainiako Armadak, berrogei bat jendeetarik hamabost itsasora boteak izan zirelarik, gehienak *primaderako florian* kanta zaharrek lerraketenez.

Telebistetan salbaturiko emakume eta gizonen soak ikaraz hertzear zebiltzan, artatu eta ez ote zituzten berriz beraien zelai biluzietara bidaliko galdezka. Espainiako lehen ministroak deklaratu zuen Sahara aldeko Afrikaren eremu horrentzat zerbait egin behar zela derrigor, Italiar herritarrak migranteak salatzera animatzeko legea erraz pasarazten zuela *cavaliere*-ak, Europar Parlamentuan frantses lehendakariak klandestinoen eta urak zeharkatzen zituztenen kontra bere amorru irribarretsua aurtikitzen zuen artean.

Maliarra Sigmaren parean jarri zen. Zilarrezko gurutze bat bazuen papoan eta hatzak eraztunez hornituak. Langabetutako griot bat zela imajinatu zuen, Posa Ngakaren kantak memoria iraultzen ziola. Apartamentuan zetzana ere bere herrialdeko abeslaria zen, poeta agian, erritual zehatzen egiaztatzailea, agertu zionaz behintzat. Ez zen, are gutxiago maliarra, hemeretzigarren mendean zientzialari progresista zurbilek finkatu salbaien ereduetan sartzen: etnologia ikasia zuen Brazzavillen, oihanera itzultzen zen

maiz, janari eskasak eta menturaz amodioak Londresera bultzatu zueneraino.

Europako laborarien antzera, afrikarrak orokorki jende ezjakintzat hartzen ziren, irakurtzen doi-doia zekitela uste genuen gure hizkuntzen idazkeran baizik zirelarik ez-trebe –nola gintezke gu banbara, swahili, wolof edo akaz-ez aritzera bortxatuak bagina?–, eta geronen zuritasun handikoi zurrunaren gailurretik gutxiesten genituen, esklabotzen, baztertzen, edo hoberenera jendetasunaren mugagabetasuna ukatzen zuen paternalismo zizkolatsuaz pozoitzen. Bat batean, sortaldekoek kontzebituriko zibilizazioa nazkagarri zitzaion: non idatzi zen Yahve zuria zela?

Ikerketa xehe eta luzetik landa langabetu estatutua lortzeko baimen papera izenpetu zuen Sigmak. Besteek bezala zegikeen diru apurra poltsaratuz formakuntza eta bidaiak eginez. Denak berdin ari ziren, estatua kritikatzen zuten bere ezagun aberezaleak barne. Zer zen bada lanik gabe inor ez zela ustezko konplexu likits hori, heziketa euskaldun-fededunaren emaitza dorpeetarik bat ala? Euskaldunak langilea izatearen fama zeukan eta esklabo izaterainoko

langilekeria laudatzen zen prediku aulkietan edo igandeetako familia bilkuretan, sekulan proletarizatu gabeko izeba zaharrak biltzean bereziki.

Behingoz baliatuko zituen sosa eta denbora. Hilabetea bazen kasik lizentziamendu gutuna izenpetu zuela eta opor bailitzan desplegatu zitzaion ordutegi libre berria, Bartzelonan lau egun, Bilbon bi eta Arlesen astea pasatuz. ANPE-tik jalgi zenean, maliarra zur eta lur zegoen, ez zen kantitzen. Leihotik iraiztu eguzki-leinurua larruaren belztasunarekin keinukari zebilela ohartu zen Sigma eta, hor, zehazki munduaren oreka zehatza laburbiltzen zuen graziazko une baten lekuko zela pentsatu zuen.

Zanpa-zanpa itzuli zen hiri erdira. Nahi zion Posari goizean begimendurikoa xeheki kontatu, nola lehen Lamdari sekretuak ereiten zizkion. Jadaneko Lamda ez zen ardura Baionan, alderik alde ibiltzen zelako. Globoaren arazo globalen uholdeek gainditu zituzten bikotearen kezka existentzial minberatsuak. Baina ez zen gaizkiago, horrela bakoitzak berea zeramalako, besteare-rekiko zor barik. Gulf stream hura salbatzean bi-

kotea eta jabetasun sentimentala purruskatzen ziren... hainbat hobe.

Bosgarren estairaino eskailerak lasterka igo zituen. Zoriontsu zen giltza zirrikituan sakatu zuenean. Posa Ngaka egongelan zen, liburu bat belaunen gainean. Pigmeoak ez zuen bekokirik mugitu. Liluratua zen:

– Zer irakurtzen duzu?

– Italiar trecento pinturekiko obra lodi hau hartu dut zure bibliotekan. Zu joanez geroztik urdin eta urre koloreak nahasten zituzten maisuen konpainian nago. Taula txukun hauetan beltz askorik ez dagoen arren.

– Hori egia da. Alta Erroman baziren esklabo beltzak enperadoreen zerbitzuan. Orain denetan badira beltzak, baina ez dira mass medietan ageri, ez eta artisten margoetan. Badakizu duela bi urte tele-kate pribatu batean berrien aurkezle aldaketaren karietara, aburu ikerketa bat izan zen eta jendearen gehiengoak erantzun zuen kazetari beltzik ez zuela jasanen arratseko zortzietako *prime time* horretan. Rap edo R&B kantari eta kirolari beltzak ugari dira, baina ez ditugu onartzen pantailetan afaltzera goazenean...

Sigmaren logorreari muzin egin zion Posak, urduri:

– Noiz goaz paper horien eginaraztera?

– Sarri. Artean zaude hemen prestu-prestua... Lamda etorriko da. Ordu biak aldera.

Adostasun samurra azaldu zion Posak. Irri zegien baina negarrez ari zela ematen zuen. Bozkarioa batzuetan tristezia sakonarekin ezkontzen zen: eleak isilduz norberaz aritzeko manera xumeak ziren malkoak eta matelen zirrimarrak. Noiztenka hitza maskara bat baino ez zela hausnarrean oraino, Baiona Txiki karroitua trabeskatuz ibai ertzera jo zuen Sigmak. Izaki mozkoteak zebiltzan taldean edo banaka, ostatuetan metatuak edo magazinen bitrinen milikari tentel. Aturri hegiko Gambetta plazatxora iritsi zen.

Ezponda erretzen zukeen eguzkiaren iraizturaz iluminatu zen. Marea behera zihoan Santizpirituko zazpi zutoinak lehortuz. Itsas usaina hegaldatzen zen bazterretako belar malgor epeletarik. Zubi gainean banderak zafla-zafla ari ziren. Mundua bertan juntatzen zen, eta erantsi zuen, kirets: *nonbaitetik ere Afrika beltzeko oihalik ez dago*.

Aho sabaiko idorreria irentsi zuen.

Kopetarik gehiago ez zutenak ezagutu zituen, lankide ohiak zenbait. Bat-batean, Santizpiritu zubiaren maldan Bob Dylanen abesti ahantzi baten errepikak zohartu zizkion neuronak *chimes of freedom flashing* eta ernatu zen. Erritmoak sustatzen zion kemena. Ez zen damutuko alajainkoa, ez eta Alfajarin aurreko egoera pertsonalera nehoiz itzuliko. Loustau Hotelaren saihetsetik ezker bihurtu zen, geltokira. Merkantzia tren batek, anakonda kulunkaria bailitzan, aiduru-gelak daldarazi zituen. Kaialdea betea zen. Bidaiariz. Poliziaz. Zinpeko zaindariz. Eta bi eskale gurintsu baziren berina automatikoekin jolasten, haurturik.

Herrestak oro alabaina, hiri-bihotz opulantean lekurik ez zitzaielako zilegitzen, Santizpiritu zubiaren inguruetan bipiltzen ziren, ardo botila mikatzak behatz pean, nagitasunaren baldeko dantza eskaintzeko. Lauzpabostek kartoi zikinez troxaturik pasatzen zuten gau hotza ibai hegiko banku beilegietako zakartegien eskuinaldean eta goiztirietan haien ez iratzarrarazteko ahalik isilen iragaitea zen Sigmaren ohizko erronka. Ile

lakarrak zituzten eta talde amilduetarik urrin kakatsuak eskapatzen ziren. Haur gaixoen izpiritu ahulak eta jada orokorturiko moral neoliberala ez kolpatzeko, eskaleak zentroetan ez ziren patitzen ahal, eta polizia munizipalek zakur alimaleekin desiragaitzak errekaz bestaldera haizatzen zituzten, batzuetan ezti, besteetan bortitz.

Musika memeloa irentsi zuen, trenen orduak kordelatzen zituen andere birtualaren boz azukretua eta maleten lerratze asotsa. Billeteak saltzen zituen makinaren parean gotorturiko lerroan landatu zen, desertuko lore.

–4–

Afalondoan Sigma eta Posa geltokian zeuden berriz. Lau argazki atera zituzten fotomatonean. Ondoko dendariari ogitartekoak manatu zizkioten, jende presatuen erdian alfer. Seguritate patruilak eskaleak eta bidaiariak bista kolpe batez jujatzen zebiltzan. Tentsioa palpagarria zen, hargatik inguruko zekentasun basatiaren atzamarretarik eskapatzen zenean Sigmari iruditzen zitzaion bizitza osoa urrats galduen eremuetan zipriztindu zitzaiola:

– Garai batean tren ordutegia neukan burumuinaren ordez.

– Txantxetan ari zara!

– Ez. Irri gutxi dut garai haiekiko.

Le Figaro besapean, aurpegia moltsa bezain zerratuarekiko aferagile urduritsu bat hurbildu zitzaien kuskari. Bera baizik ez zen munduan. Bera eta telefonoaren puntan, beretarrak noski. Gizonaren begitartean beraien soberakinkeria irakurri zuten, zer egin ordea, ez ziren desagertuko hiru piezako kostuma zeraman urguilutsu

horren kausaz. Sigmak pigmeoaren eskua tinkatu zuen. Posa Ngaka kantuz hasi zen potreta txikiekiko laukia itsatsirik:

– Ni al naiz hau?

– Bai, kapetut. Ez duzu zure muturra ezagutzen ala?

– Neke zait, beti eta nekeago. Brazzaville abandonatu nuenetik ez dakit zer bilakatu naizen, hainbat gauza jasan ditut, gurutzatu, sufritu, oihanean baino gose garratzagoak, bortxak. Berantetsia dut Londresera heltzea, badakizu?

– Imajina dezaket.

– Zuen apartamentuan lasai nago.

– Baina Londres azken helburu, ezta?

– Aha...

Axular karrikaren puntan ziren jadanik. Breuer-ek marrazturiko egoitza merke sugelarien auzunean. Burdina, zementua eta gristasuna ziren nagusi han. Mediterraneoko kozina usain betegarria hegaldatzen zen leihoetarik eta eskaileren kaioletan umeak jostatzen ari zitezkeen, gazteak dantzan eta neskatxak taldean eleka, iragaten zirenen itzalez axola gabe. Papoaldeak hantzen zituzten andereñoek zapiak ze-

ramatzaten kasko gainean, indartzen zihoan ekialdeko fedearen arabera ileak gordetzeko, nahiz eta rap doinuak aditzean, ipurdi mazelak edo gerri gotorrak sentsualki kulunkatzen zitzaizkien. Kontraesanik ez, guztia eta bere kontrarioa ahalezkoa bihurtua zen jendartean genbiltzalako.

Sigmak mukizu turrunpilodunetarik bati Alias non bizi zen eskatu zion. Mutikoa ez zen ihardesten luzatu:

– Hirugarren dorrearen bosgarren atean eta...

– Hamahirugarren estaian –gehitu zuen begitartea ikatz zeukan potikoaren anaiak.

Izurde-ahotsekiko nerabeak algaraz mustupilkatu ziren, gorputzak erakusgarriki okertu eta txalupa bilakaraziz.

Salam... *shalom*... *inch'alajinkua*... *com'on baby*...

Hatsa trenka hurran iritsi ziren Aliaseneraino. Gaizki argiztatu kuluarrak dardarikatu zituzten. Herotsak zetozkien borta itsuen bestaldeetarik, musikak, kalapitak, oihuak, senar haserretuen larderiazko predikuak. Baten batek erran zeza-

keen emazteen doluzko auhen eta negarrak hautematen zitezkeela, nahiz eta ilunpea etsai, arraposki mandokatuko zen, krisketen haraindiko hotsak zehazteaz baino xendra urratzeaz arranguratuago.

Txirrinaren pean, ninikak laurdenkatuz, Alias zekarren plaka zekusaten. Posak gaztaina koloreko orkatza lehertu zuen. Minutuak bihikatu zitzaizkien. Xoki xerrenten asotsa aditu zuten eta norbaitek sarraila askatu zuen: Alias zitekeen, handi eta, lanpara ahulean, euria bezain uher.

– Zer dela eta?

– Paperak behar ditu Posak.

Sigmak ez zion galdekatzeko betarik utzi. Gaiaren haragi malatsean sartu zion labana, deblauki. Alias durduzatu zen:

– Uste duzue nik egin ditzakedala?

– Bai. Nigeriatik zetorren Peterri egin zenizkion duela hilabete zenbait, ongi gogoratzen baldin banaiz. Ingalaterraraino heldu zen haiei esker.

– Nola dakizu hori? Ez zinen bada zu eskatzaile orduan? Berdin dio, sartu arren, ez hor egon nork ikus ere. Mihia josten ez dakien hainbeste

jende badago gure artean. Haatik arazo bat badaukagu.

Gela bakarreko apartamentuaren aizolbean, auzoko lauzpabost biztanle biltzen ziren. Larruaren belztasunak distiratzen zuen kanpoko argiaren menpean. Aliasek harritzear zeuden Sigma eta Posari hasperenkatu zien:

– Afera bat badugu trenkatzeko. Zuetaz okupatuko naiz berehala. Ttotto zaitezte hemen. Isilisilik.

Etxe jabearen gomendioak baieztatu eta belus gorriz hornituriko kabinetean kuzkurtu ziren. Alias alabaina aztia zen, amodioa, birilitatea, lana, bikotekideak, suertea, dirua itzularazteko ez zuen parerik, inkantazioak eta kreditu kartak zirela medio. Noiztenka, hirian zehar, bere txartel espantutsuak barreiatzen ziren autoetako berinetan: voyant médium, grande renommé d’efficacité et rapidité, sciences nocturnes, herboriste, tradipraticien...

Anartean saihetseko ganbaratik marmarak entzuten zituzten gertatzen zena ulertzeko gisan: arratsaldean Mabeka anderea arrestatu zuen Mugetako Poliziak, paperik ez zuelako. Ma-

beka administrazio handi bateko xahatzailea zen, enpresa pribatu baten kontura. Gammak nonbaitetik jakin zuen kaxketadunak atzetik zebilzkiola, eta Aliasen sukaldean juntatu taldeko zuri bakarra etsitua zen:

– Banekien zer edo zer egitekoa nuela Mabekaren salbatzeko. Lantokitik jalgi nintzen ebaska, baina hor zeuden, kotxe banalizatuetan. Deltarengana jo nuen Mabekaren eske. Enpresan bertan ez zuten Mabeka ezagutzen. Nehork ez zekien deus, ez haren izenik, are gutxiago non aurki nezakeen. Kolegak erran zidan, salatua izan zela menturaz eta Madrid Hotelean zegokeela. Ordutegia murritz neukan. Hoteleko harreragilea egunkaria irakurtzen ari zelakoaz balia, hogei logelak miatu nituen xeheki: inor eta ezer ez zegoen, nahaspila, zikina, urrin likitsa eta arratoiek berek onartuko ez zuketen giroa salbu. Harritzen nintzen gaurko mendean eta Baionan horrelako tokiak bazirela ohartzearekin. Sinestezina zitzaidan. Bostak aldera ordea, bulegoaren gibeleko sarreran poliziak Mabeka ukaraiak burdina zeramala kukuzkatu nuen.

Gamma zurtu zen.

Ez hain aspaldi Mabekak paper ofizialak bazituela gehitu zuen Aliasek, baina dibortziatu zenean ez zizkiotela berritu eta Madrid Hotelean zetzan ganbara berean hiru emazte gehiago bazirela, ume banarekin. Guztiak klandestinoak. Lanean ari zirenak bestalde. *Ongi Heldu Euskal Herrian* ekimenaren karietara, Miarritzeko kasinoan, urrezko makila erdiesten zuten lantokietan anitz horrelako bazirela ondorioztatu zien sorginak, ez zitzaiela dokumenturik eta deiturarik eskatzen, lanorduak pilits ordaintzen zitzaizkiela, sortaldeko herritarrak omen lumpen proletaritza zereginetan ahalketzeko alferregiak zirelako. Behin, erantsi zuen Gammak hitza berreskuratuz, lanaren zuzendaritzak Uztaritze aldean kontrola jarri eta hamar bat klandestino atxilotu zituen, euskal nagusien kontu goizean goizik beharrera abian: errumaniarrak, kurduak, georgiarrak, azeriak, ekialdekoak orozbat.

Murmuruak eten ziren.

Erridauaren arrailduratik azaldu zen Alias.

– Zuen aldia.

Baturikoak banaka zutitu eta jalgi ziren, minutuko tartea errespetatuz bata bestearen ar-

tean. Ez zen arraileriazkoa. Telebistan lehendakaria emigrazio klandestinoaren aurka mintzatua zen, ahoak eman ahala, mundua, berea eta beretarrena baizik ez zela dekretatuz. Hauteskunde kanpainetako histeria ildoa bilakatua zen jada honako tematika: inseguritatea atzerritarrek dakarte eta atzerritarrak migrazioetarik datoz beraz migrazioak ditzagula errotik borroka. Ez ote zekien presidenteak Erroma modu batez lehertu zela migrazio oldeak irensten jakin ez zuelako?

– Zatozte.

Posa ederki moldatzen zen Aliasekin. Gizon meharraren atzeko horman zegoen baobabarekiko margo psikodelikoak Afrikako *arbre à palabre* bat itxuratzen zuen. Arazoa arrazoitzeari ekin zion:

– Paperak behar ditut. Londresera noa. Treneko txartelak badauzkagu. Baina badakizu bidaian edozer gerta dakiguke eta...

– Badakit. Argazkiak badituzu?

– Bai.

Aliasek fotoak edeki zizkion. Alderik alde begira zegokien. Posaren aurpegia ikusi orduko as-

matu zuen zein leinutakoa zen, nondik zetorren eta sustut, errauts, bakartasun eta lanjerrez mukuru, nola aztalkatu zuen honainoko asfaltoa. Alias senegaldarra zen, Casamancekoa, sasitzarrak geriza zituzten etxe gorakoi hauetara etorri arte. Senegaldarrek herrialde auzoentzat harroputz fama zeukaten arren, Posa Ngakak irriño lagunkin bat oparitu zion:

– Kongoko pigmeetarik zara?

– Igarri duzu. Abeslaria naiz. Familiatik urrundu ninduten eta serora eskoletan ibili nintzen. Oihana jostaleku baino ikerketa eremu neukan.

– Ez zarete anitz maitatuak gure eskualdeetan.

– Eiki. Jendalde zaharrenak gara Afrikan, dirua zer den ez dakigu, nomadenak eta jakintsu ingeles apurrek diotenez, ziminoarekiko lotura biologiko hurbilenekoak. Beltzen artean ere gaitzeko arrazismoa dago...

– Egia da, atzerrietan halaber elkar hilka gabiltza... eta zuriei dagokienez badakizu gustatzen zaiela falta zaien kabalatasunaren katea norbaiten gorputzean datzala oraindik ebaztea, beraiek direna baino handiago, abilago eta jen-

deago direla sinesteko. Ardurenean berak dira zimino lehenak.

Karkaraz uhertu ziren hirurak.

Aliasek jargiako burukoak higitu zituen, tauleta batetik dokumentu faltsu birjinak eskuratzeko. Olivetti markako idazmakina zaharkituaren parean eseri zen Posa Ngakaren ezaugarriak izkiriatzeko: izen deiturak, aita eta amarenak, sor lekua eta eguna, goratasuna, begien kolorea, egon lekua. Baionako zuzenbidea harilka zezakeenez Sigmari galdatu eta honek gogoeta laburretik landa, baiezkoa eman zion: arrotzen erdian are arrotzagoa zen Sigma, Lamdaren ustez bederen bekaitz eta indibidualista errea izan arren. Alabaina ez zeukan urrikirik nehorentzat eta bere baitako konfiantza izpirik ere ez. Hor, Aliasen saloi post-kolonialean, beste norbait zen, ez hobea, ez txarragoa, beste norbait. Sosegatzen zihoan harriduraz harridura.

Laster Posa Ngakak paper berde arinak harroki erakuts zitzakeen:

– Hauekin noranahi joan naiteke?

– Egonaldi karta baten eskaeraren agirondoa baizik ez da.

– Aski zait Frantzia trenez zeharkatzeko?

– Bai, noski.

Ehun euroko billete orlegia ahurrean sakatu zion Posak Aliasi. Lamdaren emaitza. Belagilea hozkailuratu zen. Familiakideek, bisitaz zetozkionean, ekarri botila muskerra mahaian banbarazi zuen. Musikagailua piztu eta Angelique Kidjo amultsuaren bozaz alegeratu zuen pausagunea, bete, hantu, neurtu, zabaldu, zurgatu. Bikaina zela zioen berekiko Sigmak: *this is our world* xuxurlatu zuen, ohikoan, deus erran gabe sekula, mundu mota hori baitzuen hobesten, ez pantaila urguilutsuetarik zeriena, diruaren, boterearen eta bazterketarena alegia.

Adornoren *minima moralia* hitz taldea doidoia aldatuz *minima mundi* izendatuko zukeen bizitokitako suertatu zitzaion erresuma zehargia: ezezagunen arteko adiskidantza zilarra, laguntza pixka bat, barre aldiak, negar zotinak, derrigor maitalearen jabetzak ez ziren amodio maila urriak, botere politikoek manipula ez zitzaketen min handitzaileak, kezka eta duda anitzak jasanez norbera baino urrunago lehiatzeko ihesmen

urdinak. Migratzaileen bihotzetan sustraituriko mundu txiki bat hots, txorienaren antzekoak.

Mundu horren leuntzeko berriz ekin behar zitzaion. Larru zurbilekoak, aberatsenak bai eta maila apalekoenak, sedentarioegiak bihurtuz, ez ziren gorputzez mugitzen, are gutxiago izpirituz. Posari beha zegoen: biluz zebilenak hondarrean dena zeukan, ez zuen irabazteko errabiarik eta galtzeak ez zion izurik hazten. Noizbait, Derridaren gatuaren soa aitzakiaz, izatearen oinarrizko abiapuntu honetara itzultzea eskatuko zitzaigun, uniformitateak ez zekarrelako inongo berdintasun, haurridetasun eta libertaterik.

Alderantziz.

Bizidunen, jendeen, kulturen, hizkuntzen arteko balio-zurubiak zizelkatu zituen industrializatzearen mendeetan finkaturiko ereduak: beltzak halatan zuriak baino zozoagoak ziren, eskualde mintzairak hiriburuetan ahoak oilo-uzkien maneran plegatuz xuxurlatzen zirenak baino eskasagoak, nekazariak hiritarrak baino atzeratuagoak, Europako jakitatearen argi-tximistak bortxaz hedatzekoak zirela oihukatzen zen, zuriek berenkoi zela sinetsi betekizun zibilizatzailearen izenean.

Zegoeneko lehendakari nazional-liberalak misio jainkotiar kasik ahantzi horretaz oilarki ari ziren sarraskiengatik barkamendu eskatzeko partez.

Nehork ez zekien zuzen, nor zen salbaia.

Aliasen edaria mistikoa zitekeen.

Angelique Kidjo jabaldu zen. Basoak hustu ziren. Alias bizkarrez leihoratu zen. Posa Ngakak agiri salbagarria sakelan tolestu zuen:

– Eskerrak zuri, Alias.

– Suerte. Agian Londresera iritsiko zara.

– Espero dut, tribuko kide baten ezteietan kantatu behar baitut datorren hilabetean. Ez bakarrik hori. Londresen biziko naiz, oihaneko anaiarreba ugarien erdian.

– Alde hemendik.

Sigmak Posaren ukondoa tinkatu zuen.

Laztan gura zeukan.

Hiri ertzetik jaitsi ziren. Sigmak behialako gogoeta-mortuak saihestu zituen behingoz arrats epelaz gozatzeko. Ahotsak garatzen zihoazkion kasko pean, eresiak, marmaren zirri-zarrak eta oroz bat garrasiak, doluzkoak, sufrimenduzkoak, esperantzazkoak. Santizpiritu zubia zeharkatzean, Europako banderak haizean klaskari zebil-

tzan, harro bezain hotz. Egunero zekuskien itzalak, ongizatearen eta perfekzio sozialaren ikurrak zirela bazekien, ez zela beste aukerarik, bestelako helbururik, lorpen seguruagorik. Sigma Aturrira tuka ari zen, azken ehun urteotan *parler en basque et cracher par terre* debekatua zelako:

– Whiski ttilika bat hurrupa nezake.

– Nik ere bai.

Udaletxeko Atlantic Bar-eko terrazan eseri ziren. Zerbitzaria etorri zitzaien. Sigmaren lankide ohi baten semea zen. Oroitzen zen ez zuela nehoiz grebarik egiten, semearen ikasketak ordaintzeko dirua irabazteko gisan; mutikoak ordea ez zuen estudiatzeko gutizia bipilik eta, ofizio ohoretsu anitzetan saiatuagatik, zerbitzari bezala idortzen zuen kopetako izerdia. Hobeko zuen ama desesperatuak orduan grebalari higatzea. Baina istorio zaharrak ziren eta mutiko adeitsua zenez, Sigma taberna hartan ausatzen zen, batez ere udan, alfer ego bila.

Whiskiak ekarri zizkien, baso hondoak beilegi. Bikoteak pasatzen ziren plazako iturri hegitik, haurrak ur ziriztekin jolasten zirela. Udaltzainek

eremua zelatatzen zuten, binaka. Ahalkerik gabe. Bizkitartean, karriketan sirenak airean, auto zirurikariz lerratzen ziren poliziak. Hedexurientzat jagoitik hiritarra, edozein, susmagarria zen. Begietara so zegozkion egin ez zukeen bekatua aitortuko zueneraino.

Ametsaren dildilean gerizatu ziren:

– Nor dira pigmeoak?

– Bantuen zelaietan kokatzen gara Kongoko oihanetan. Biziki pobreak gara uste komunaren arabera, telebista, etxe finko eta funtsik ez dugulako. Baina oihan osoa gurea da.

– Nago ez ote zaitudan ene eskakizun txepelekin nekatuko?

– Ba pentsa! Eta gainera, Alfajarinez geroztik, uste dut agerpen batzuk zor dizkizudala. Ez dea hala?

– Prefosta.

Mimenezko ttottogian eroso kuzkurtu zen Posa Ngaka. Betazalak pinpirinkatu zituen eta, ipuin mitikoa bailitzan, murmurka hasi zen bere jendaldea azaltzen:

– Berrogeita hamar mila pigmeo gaude ekuatoreko oihan handian barna, libre, ibiltari, ehizaz

eta bilketaz jarduten. Pigmeo izena greko zaharretik datorkigu. Esploratzaile zuriek deskubritu gintuztenean neurtu eta aztertu gintuzten. Gutariko bakarrak Londresera eraman zituzten gatibu, ikerketak lekuan bertan jarraitu asmoz. Abereak baino ez ginen haientzat eta hipopotamoekin batera bidaiarazten gintuzten ontzi herbalen behereko sotoetan. Pigmeoa laburra da, metro bat eta erdi nonbait han. Afrikako eta Asiako populuok pigmoideak deitzen gintuzten horrexegatik. Tribu bakoitzak deitura ezberdina dauka, hala nola Bazimba, Tumandwa, Batwa, Bakunda, Bayaka edo Mbuti. Ni Akwa leinukoa naiz. Larrua beltz gorrixka dugu eta ilea gorrail kizkur. Batwakoek demagun larrua beltzagoa dute. Ez gara denak antzekoak alaina. Bayakak Ituriko arboladietan dabiltza. Gorpuzkeraren txikitasunari esker zuhaitzei egokitzen gara, igotzeko baiki, igaliak karruskatzeko eta bazterrak miatzeko. Asko gustatzen zaizkigu gailurrak, gailurrak ordea guretzat zuhaitzen kukurustak direlarik.

Hitzaren itxindua ureztatu zuen Posak, STA-Beko lehen lineako autobusaren geldialdi mantsoa jarraitzeko.

– Mongoluak, gure etxolak, ez dira behin-behinekoak, ibai hegietan altxatzen ditugu, mozanbi edo lianaz, baobab gorakoien maldetan. Eguna ehizan emanik, gizonak ez dira eguerdi baino lehen jaikitzen, bitartean emazteek bazkaria apailatzen eta haurrak zaintzen dituztela. Mongolua emakumeek dute eraikitzen. Barruan dagoen kea mamuen kalitzeko baliatzen da. Janariak eta ohizko laneko tresnak hala gerizatzen dira. Musika jotzen dugu orrazi ikaradun batekin. Poltsikoan daramat neurea, so egiozu...

Leinu mehatxatuak zirela erantsi zuen gero Posak, orrazi ikaraduna eriaz ferekatuz. Ez zuten nortasun agiririk eta jende moduko eskubide arruntenak ukatzen zitzaizkien. Egurra esplotatzen zuten konpainia multinazionalek beraien ingurune naturaletarik betirako haizatzen zituzten. Oihanaren suntsitze izugarriaren bezperan zeudela erraten zion Posak, horregatik tribukide franko hiritaratzen zela, hirietan duinki bizitzerik ez zenez, segidan Europara eskapatuz, dakizkigun arazo eta oztopoekin. Estatu afrikarrek populu indigenekin, hemengoek bezain biolentoki jokatzen zutela murdukatu zuen, denetan leta-

nia bera zela, guztiek alta amets berdina genuelarik: artamenduak, ikasketak, bakea eta bekokiak zohar humanoki garatzeko kalipua.

– Zazpi urte nituela oihanari idokirikoa naiz.

– Itzuliko al zara inoiz zure sendiaren mongolura?

–5–

– Ez zaitut konprenitzen –oldartu zitzaion Lamda, Posa Ngakarekin etxeratu zenean–. Ez zaitut konprenitzen. Lotsakorretarik zinela uste nuen eta pigmeo horrekin zabiltza, klandestinoa delarik, arriskurik ez bailego.

– Orain baditu paperak.

– Hala ere.

– Zeren beldur zara?

– Izutzen nauzu. Betidanik gaitzetsi ditut zeronen ibilera bazterretsiak eta zure baitan duzun konfiantza eskasa. Baina gaur... bost axola, bihar Mexikora noalako. Eramango nauzu aireportura?

– Bai. Zaitugu.

– Ez, nauzu.

Solasa elez hustu zitzaien. Ulertzen ez ziren gauza franko bazen istorio honetan: geldotasuna, misterioa, disgustua, ezjakintasuna. Nehork ez zezakeen esplika. Posa Ngakak sakelatik orrazi ikaratia jalgi eta melodia xehea bihikatzen zuen. Ahotsak larderiaz hantzen zirenean, pig-

meoak ez zekien non gorde, nola ezabatu, desagertu, amildu. Sukaldeko kalapita gehientsuenen aitzakia zen bera. Hargatik, susma zezakeenez, orbaindu gabeko zauri anitz zuritzen zituzten Posaren estakuruz. Behialako gudari-mendizalearen gaia zen maiz haguntzen Lamdaren haginetan. Sigmaren ezetza ez zuen irentsia. Ez ziokeen barkatuko. Batez ere egunotan, Posaren konpainian asfaltoak zamalkatzen ziharduela, gusturik hoberenean.

Afaldu eta Posa luzatzen zen bulegoan lo egiteko. Ganbaratik, itsaso sakonetan grabatu baleen intziriak oihartzean, Sigmak eta Lamdak azkenean amodioarekin bakea zegitela imajinatzen zuen. Baleen auhen monokordeak Posari ere erraiak urratzen zizkion: zerbait zen, zintzur eta buru soinu lanzinante hura, aspaldidanik ehizaturiko ugaztunen eresi urdina; noski balearik ez zuen sekula ikusi, baina haienganako espezie elkartasun bat indartzen zihoakion kolkoan. Ondoko gelan larrua jotzen zutelako zitekeen. Urteak eta hilabeteak bazeramatzan plazerik gabe, bihotza hil eta bizia bil hari soilaz bastatuz.

Londresen Sambakwa topatuko zuen, Brazzako umezurtzentzat eraiki frantses komentuko ikaskide ohia, Akwa bat. Sambarekin etorkizunaz gozatzeko ideiak bultzatu zuen Afrikako desertuetarik at, ibaietan gora, portuetan zehar eta fortunazko gabarretan kulunkaz, pasaiarako bi mila euro hartuz ur gainean doi-doia ibiltzen ziren arrantzale ontzi pikarraiek eta Gurutze Gorrikoek lehorrera ekarri zuteneraino. Andaluzian eta Katalunian aurpegia gorderik albaindu zen, hormak arrasatuz, lan askotan musu-truk higatuz. Samba, Samba, Samba banatorkizu xuxurlatzen zuen orrazi ikaralaria ateratzean.

Lamdak bidaiako bizkar-zakua apailatu zuen biharamunean, argazki makina, grabatzailea, ordenadorea, USB giltzak, arropak. Iparla gailurreko potreta eskuratu zuen. Saiak ortzian. Lamdaren lepoaldean dilindatu zen Sigma, niniak ñirñir:

– Ez nazazula ahantz.

– Ahaaa... Ardura ez banintza bezala dagizu eta ez zintuzket ahantzi behar, laztana?

Lamda arras amoroski mintzo zitzaion, hizki bakoitza musu gori eta lekedatsuz artekatuz.

Sigma ala Lamdak alderik alde ekiten zutelakoa ez zen alabaina arrazoi aski bata bestearen abandonatzeko eta irekitzen ziren lehen besoarteetan amiltzeko, maitasun bila, maitasun mutua benetako maitasuna ez bailitzan.

Hara eta hona bazihoan Posa Ngaka apartamentu hertsian, nora ez. Sigma garbiketa egiten zekusan: erratza eskuan, *Ibilaldia* bateko zapi koloretsua kopetan bildurik, salbai eta malestruk obratuagatik. Lamdak bizkitartean Mexikoko kontaktua deitu zuen, kongresu eta hitzordueta-rako apailaturiko paperak metatu zituen, bederazka sailkatu, tinta horiz azpimarratu mintzaldietako zati garrantzitsuenak. Ez zen txantxetarakoa, sei hilabetez baleak ikertuko zituzkeen nazioarteko aditu talde batekin Kalifornia Beherean, eta erleak, nola ez, Merida aldeko sasi prekolonbiarretan. Urpekari jantzia tolestu zuen jabearen zigilua zekarren maleta beltzean. Erran zuen, beratz:

– New Yorken behin ezagutu Coatli zientzialaria aurkituko dut Mexikon. Bozkariatzen nau. Ez dezakezu asma zein heinetaraino. Eta bistan dena baleak miresteko ilusioak...

– Eta Yucatango zerua.

– Horixe. Zoragarria da. Ezin sinetsizko lainoak pasatzen dira ekialdetik sartaldera, Kukulcanen piramidearen sei izkinetan tatxa ilun erraldoiak eraginez.

– Ametsa da.

Zer bada erants zezakeen Sigmak?

Bera ere abian zen Londresera Posa Ngakarekin. Lehen aldiz oinezkatuko zuen Ingalaterrako hiriburua. Posa ez balitz izan, ez zitzaion bereber sekula hara joateko gogorik erauziko, jakin bazekien arren haurrideak bazeuzkala bertan, genero finkoen mugak uhertuz ziharduten herritarrak hots. Askatasun indibidualaren jarduera akuila zezakeen eremua zen Londres, lurraren magma malgua irensten zuena bestalde, migrazio, musika, diru jario, komertzio eta hainbat alorretan. Gainera Maggie Thatcher andereak zerbitzu publikoak eta baliabide sozialak zitzikatu zituenetik Ingalaterra aspalditik sartua zen neoliberalismoaren sasitzarretan. Europako politikari ahozabal guztien eredua zen. Telebista pribatuetako erreportaien edo Ken Loachen filmen arabera, Liverpool eskualdean autobusak gidatzen zituzten

laurogei urteko aitonek eta migranteen errabiaz baliatuz aberasten ziren noizbehinkako lan-enpresak.

Alta ekialdeko gosetiek ez zuten Paris gutiziatzen, munduko miseriaren katilua ez zatekeela deiadartzen zuen Eliseoak alderantzizkoa sinetsaraziagatik. Londres zeukaten helburu denek, afganiarrek, irakiarrek, indiarrek, ukrainarrek, Asiako urmaeletarik zetozenek, pakistandarrek, batzuk baizik ez aipatzeko. Afrikarrei halaber Londresen juntatzea laket zitzaien, Sohon Frantzian baino arrazismo gutxiago zegoelako.

Miarritzera lagundu zuen Lamda. Soa heze zeramaten:

– Etorriko zara Mexikora, ezta?

– Ez dakit noiz arte egongo naizen Londresen.

– Eta kasu egizue. Ez nuke nahi Posa Ngakari zer edo zer gaizki atera dakion. Eder zaizkit bere kantu eta musika tresna xeheak. Zurekin gogorra izan naiz, amiñi bat...

– Barkamendurik ez, otoi. Elkar maite dugu eta askitxo da. Billete elektronikoak kartsuki

zainduko ditut eta gutxien uste duzunean agertuko natzaizu.

Karkaraz lehertu ziren. Lamdak aduanako barrakia trabeskatu zuen, Sigmak agurka, aireportuko berinatik hegazkinera presatzen segitzen zion bitartean. Malkotxo bat ahitu zitzaion betezpaletan. Nahasia eta galdua zen, baina deliberatu zuen Lamda gabe ez durduzatzea, ez haustea, ez eratortzea.

Baiona.

RN10a ohiko auto herronketan geldotzean, bi hirien arteko lehiaketa hutsalaz pentsatu eta irri arin bat marraztu zuen: debaldekeriak utzi eta Posaren ondora beharra zen, agudo. Zulo palpitagarria sakontzen zihoakion papoan: Lamda, Posa zioen, nor da Samba galdez zinpurtu bitartean. Izen dantza baten antzeko letania zebilkion buruan. Behingoz bizirik sentitzen zen, eta beragatik zela aitortu nahi zion Posa Ngakari.

Trena hartzerainoko egunak apartamentuan zerraturik higatu zituzten, telebistari beha, amerikar sailak irensten, *Les guerillères* nobela tai gabe hostokatzen, *elles disent* hitzekin hasten ziren parteak ahotsez ozenarazten, eleka, eta

Posa musikari. Wim Wendersen *Bis ans Ende der Welt* sei oreneko obraren pertsonaietarik batek kotxeko zinta irakurgailuan sakatzen zuen grabaketako artista anonimoaren pare zegien pigmeoak orraziarekin: eresi izugarria, hil hurranekoa, sudurretik liraindu nota kordelak planeta kateztatuko zuen segurki. Sigma fazinatua zegokion aldamenean. Segundoen metronomoak geldi eta hain zuzen bere izaera neurtezinaz oka egiten bailuen.

Afrika agorra agertzen zitzaien hiru dimentsiotako pantaila numerikoetan. Irudi perfektuak ziren, eta zehatzak, kontinente osoaren odolustea erakusteko. Lehor zaintzaile italiarrek, Tunisia edo Libiako kostetarik ausartu patera gainkargatuak arrazoitzen zituzten Mediterraneoan, jende eri, egartsu eta ahulez mukuru. Ez baldin baziren berehala haizatzen, Lampedusara heltzean artatzen ziren, batzuk atzera bidali aitzin. Klandestinoek errabiaren suaz kiskalarazten zituzten Sardiniako erretentzio zentroetan biltzen ziren zalu-zalua. Handik jalgitzeko dretxorik ez zuten. Neskatxa blonda nerabeekin akomodatzea gustatzen zitzaion *Il Cavaliere* urguilutsua-

ren gidaritzapean, medikuak bezero paper gabeen salatzera deitu eta arrotzen zein rom-en aurka astunki armaturiko hiru mila soldadu barreiatu zituzten Italiako karriketan: militarizaturiko neofaxismoliberal mota horren hedatzeak adinekoak bake zitzakeen noski, baina gazteagoei egoera hori *preocupantea* zeritzoten.

Posaren matela bustitzen zen anai-arrebak ihesean ikusten zituenean. Goseak kurruskatzen zizkien erraiak, materia lehenen prezioen igotzeak, urdeen sukarra baino latzagoak ziren gaixotasun pandemikoek eta atzerrietarik akuilatu tribuen arteko gerla sarraskitsuek. Frantsesak, ingelesak, belgikarrak, beranduago sobietarrak, amerikarrak eta zegoeneko txinatarrak sartzen ziren herri afrikarren interesak gerizatzeko, aberastasunak ebasteko egiaz, Nigeriako petrolioa, Dogon herrialdeko eta Ipar Kivuko ekai mineralak kasu. Nazioarteko instantzietan ongi kontsideratzen ziren indarrartze basatiok, afrikarren *onerako* zela iritziz. Zapalkuntza, suntsiketa, desjabetze kulturala beti zapaldua, suntsitua eta kulturalki desjabetuaren *onerako* zirela orroatzen zuten, apaletsiaren gogoan berarekiko

nazka oratzeraino, nazka eta oldartzeko jaidura malenkoniatsua.

Sigmak orduan Posaren ezinegona sumatzen zuen.

Hemendik urrun sortua naiz eta urrundu arau itzultzen natzaio marmaratzen zuen ardura Posak, arratsaldeetako kafea hurrupatzean. Egunez eki-begitik gorde eta gauez oinetako inurriak trabukatzera jaisten ziren. Europaratuz geroztik herresta saldoek ez zuten pigmeoa harritzen: hor zeuden mutiko eta gizon zainartak, emazte apurrak, edaten eta borobilean solasean, zereginik gabe, hiri erdietarik haiatuak, zikinak, urrinduak, duntzetarik jauzten zirela gainera noizbehinka. Karim Kofeirekin uztartzen zen, Marco Ndiayerekin, eta Yolaine bakarrik zetzan arkupeetan mutur, auzoak herenegun, tipus-tapasean, pitbull zakur bastarta pozoitu ziola orroaz.

Brazza, Dakar, Abuja, Lagos edo Cotonouko sasi-hirietako txabola eskasetan Europa ahoskatzean, zerrasan Posa Ngakak, ez zen hor zekusan egoera nagusitzen, baizik eta diruarena, baldintza kiskiletako lanarena edo talentu berezia edukitzeagatik zurubi sozialean hupatzeko auke-

rarena. Afrikarrentzat Europa sosez okitua zen, orokorrean. Hala zen, baina populuen zati handiak jada gabetasunaren kiratsa dasta zezakeen, salbamen, urriki eta laguntzarik ez zuela nehondik erdiesten. Alderantziz: txirotasuna alferrenganako jainko neoliberalaren gaztigua zen. Den mendreneko soldata eskuratzen zuena, kontzientzia txarrak bezain baliabide ekonomikoen dialektika berriarekiko halako ezintasun lobotomizatuak zurgatzen zukeen. Europako kaleetan gurasoek eske igorri neskato moldaviarraren ahalkeak eta Somaliako gatazketan balaz hiltzen zihoan umearen negarrak gutariko bakoitza bere segurtasunen zutoietan zalantzaz hantzen zuten.

Bitxia zen, arras.

Kafea siropatzen zuten. Ostatuko telebistan zortzietako berriak ziren. Lehendakaria mintzo zen, Frantziak deliberatu zuela buruzagi afrikarrekin batera immigrazio hautatuaren xendrari lotzea. Xede horrekin Afrika medikuz, informatikariz, ingeniariz eta goi mailako langileez pribatuko zen. Jadanik Europako leku ugaritan erizainak afrikarrak ziren, apezak ere bai, bokazio-

neen krisia garatu zelako, Afrikara hainbat apez, misiolari eta soldadu igorri zuen Euskal Herrian berean.

Doualako Trenzekin noizbait eduki elkarrizketa errepikatu zion Posari:

– Kamerunen dabiltzan euskaldunak? Denak apezak edo militarrak dira. Ba al dakizu? Ezpata eta gurutzeak baino ez dizkiguzue mendeetan ekarri.

– Herriko apez garaztarrak hamabost urte eraman zituen Abidjanen eta afrikarrak bagina bezala predikatzen zigun, ahoan bilorik gabe, hangoek gure aldean zuhurtasun gehiago zutela azpimarratuz. Norbait ezkontzen zenean, kukutegi batekoa baldin bazen behintzat, argiki zerasan bekatuan bizi izan zirela ezteiak ospatu artean. Ehortz mezetan berdin, hil kutxan zetzanaren memoria kitzikatzen zuen, jendalde dolutuaren pena areagotuz.

– Bahaia?

– Eta gainera umeak ginenean, diru biltzeko bestak antolatzen zituen kantonamenduan Abidjaneko haur behartsuentzat. Jakizu gogotik joa-

ten ginela ospakizun haietara, katiximan ikasi aireak zirimolari *yukulele nama nama*...

Trenz duda-mudari zegoen. Pentsakor.

Zubiaz bestaldeko tabernan Posa isiltasun luzetik esnatu zen. Murruan zintzilikatu ikurrina seinalatzen zion behatzaz Sigmari.

– Euskaldunen bandera da. Zuria, gorria eta berdea. Bandera borrokalaria, gorriak odola sinbolizatzen du, zuriak fedea eta berdeak menturaz hariztiak.

– Denak gurutzean dabiltza.

– Bai. Eremu kalbariotsukoak gara. Nik bestelako ikurra asma nezake, geografiari eratxekiagoa. Berdea iparraldeko zuhaitzentzat, urdina Bizkaiko itsasoarentzat eta urrea Bardeetako desertuarentzat. Marra ubel batekin erdian. Horrela dakusat sortu nauen lurraldea.

Pigmeoek banderarik ez zuten. Eskubide minimorik ere ez. Izaera fisikorik gabeko jendaldekoak gaituzu, hasperenkatu zuen Posak. Mozambi lau eta mongolu bat. Orrazi ikarati bat erritmoa markatzeko. Afrikako hirietako hegietan batzen zirenean musika jotzen zuten eta soinua zen haien nortasun agiri bakarra. Sigmak zintzur

korroka bat urkatu zuen Posaren argitasunak irenstean. Oroitu zen, lanean zegoela, Fifadjik murmuratuaz:

– Larruaren koloreak eta kultura ezberdintasunek engainatzen gaituzte. Jendea bat da eta horren lekuko ahotsa badabil. Kantatzen dugunean, umiltzen gara eta orduan ohartzen ere zein neurritaraino planeta urdineko edozein tokitako biziduna den bat. Kantuaren garrantziaz ez gara aski axolatzen, botere ekonomikoek gaurkoan dirua sakelaratzeko mediotzat baizik ez daukatelako. Hitza baino sakonagoa da, unibertsalagoa; kanta urrats komuna da, eta kanta bat ardatz, begiak zerraturik, ibili bagabiltza, humano.

Sigmak Fifadji ederra ez zuen berriz gurutzatu, baina haren eleak izpirituari sekulakoan txertatu zitzaizkion. Posaren xuxurla belarrian, bazekien errotik mundu anitza bakuna zela, ez zela beltzik, ez zela euskaldunik, ez zela frantses hanpurusik, espainol handiosik, ez zela musulman, animista, taoista edo kristaurik. Ezer ez zegoen, boz bakar eta kolpatua salbu. Melodiaren doloreak azkenean makurrarazten gintuen.

Berria egunkaria hostokatzen zuen goizetan eta emigrazio afrikarrarekiko notiziak irakurtzean zituelarik, Posari helarazten zizkion:

– Zortzi mila euroren trukean agiri faltsuak marrazten zizkieten Malagako pasalari talde bateko kideak atxilotu dituzte.

– Aliasekin zorte ona ukan dut beraz.

– Bai... Gezurra badirudi ere.

– Paper ofizialak nituen. Lleida aldean ebatsi ez bazizkidaten ez nuen arazorik ukanen.

Bidaia unagarriko gertakizun dorpeak harilkatzen zerraikan, lelotzeraino traumaz joa bailitzan. Londreserako trenean lupeztuko ziren, Posak horrela bizitza bizigarriagoa dastatzeko gisan. Sigmak Posarekiko amultsutasun zamatsua nabaritzen zuen. Ulisesen sindromeaz ari zen Arte telebista-kateko erreportaia baten oiharrak larrantzi zion gogoa.

– Bartzelonako Joseba Atxotegi psikologoak aztertu duen sindromea da. Klandestino afrikarrek gaitza pairatzen dute paper gabeak direnean bereziki. Triste doaz, antsiatsu, ez dute lorik egiten, isolatuak direnez bakartasun gorria sufritzen dukete. Nostalgiaz erretzen dira.

– Ni nahikoa inguratua nintzen.

Posak jarraitu zuen:

– Bi mila euroko saria ematen dute Senegaldik Malagara etortzeko, hamaika eguneko periploa da, eta batzuentzat aurreneko aldia itsasoan dabiltzala. Hona heldu eta ez dute dokumenturik, lanik ere ez, zainetarik eritzen dira. Gainera, gordagietarik ateratzeko beldurrak zirikatzen ditu. Ez dira itzultzen ahal: herrian familiek haiengan kontatzen dute, ezen aukeratuak izan baitziren plazetako *arbre à palabre* haien itzalean. Hemen, poliziaren presio ikaragarriak eta Europan emigratuen kontra gogortzen diren legeen ondorioak jasaten dituzte.

Edozeinen moldean migranteek harpeetarik jalgi behar zuten. Sustengatuak sentitu. Baina ez zen erraza, gobernuek papergabeen elkarteak kriminalizatzen zituztenean. Atxilotuek suak pizten zituzten erretentzio guneetan, eta kartzela zokoratuen atarietan manifestatzen zutenak feldkaporal aurpegiarekiko inmigrazioaren eta nortasun nazionalaren ministroak istiluen erruduntzat zeuzkan. Roissy ondoko Mesnil-Amelot hiriko gertakizunetan demagun. Zerratuak iza-

nez eta kanporatze manuak egiaztatu bitartean, migranteak duntzetarik erauzten ziren. Industrializatzearen mende garratzean dretxo bako langileen antzera, itxindua buhatzeaz besterik ez zegiketen.

Etxerainoko bazterrak argi eskasez dorpe zeudela, Sigmak Posari Hanatxvili georgiarraren destinoa azaldu zion: auzokideen herratik salbatu zuen ipurdia balantzatuz eta, eskua delikatuki airean, eme maneran Tbilisiko kaleetarik zebilkion semea. Europan, zioenez, Michalek bere izaera bete-betean garatzen ahalko zuen, heriora zeramaten dohaiko bortizkerietarik urrun. Hanatxvili piano irakaslea zen eta hemen langabetua. Klandestinoki egin bidaiaz neholaz ere ez zela damutu zerasan.

Sigma isildu zen. Bihotzaren punpak. Norbait segika zetorkien. Posa besoetan tinkatu eta ate baten sakonean gerizatu ziren biak, hatsanka. Hiritar arruntez beztitu poliziaren bat ez ote zen galdezka zebiltzan. Alta ez zen herotsik momentuan eta berriz abiatu ziren, arraposki, gibelera so egiten zutela ardura. Deus ez balitz bezala eleka zerraikaten ordea:

– Eta badakizu zer jakin nuen laneko ene azken goizean?

– Erna gaitezen. Ez nuke nahi, Londresera abiatzeko bezperan, aipatu didazun *villa chagrin* horretan bukatu.

Zanpa-zanpa ari ziren. Ezagunen agurtzeko astirik ez zuen Sigmak. Posaren gorputz daldarak sentitzen zituen. Hargatik eta izua mendratzeko eran, ahapez erran zion Roissyko aireportuan aduanakoek hamar afganiar atzeman zituztela, kronopostaz Ingalaterrara bidaliriko kontainer batean zerratuak.

Tempo jatetxearen kantoian itzulikatu ziren oraino, urduri, jarraitzen zitzaizkiona zakur zorritsu meleka bat baino ez zela ohartzeko. Hondar ehun metroak tiranagoak zitezkeen. Pixa urrina zerion kalearen minean algaraz lehertu ziren, korrikari emanez, zer gerta ere.

Posak zakua puskaz hanpatu zuen. Pentsamendua aldatu zion aste horretan gauza asko bereganatu zituen Sigmak, Aminata Traoreren liburu bizitore bat hostokatu bailuen. Migranteak ezberdin kontsideratzen zituen jadanik. Ez zen alabaina nahikunde naturalez eta borondate

osoz sartu menturaldian, Alfajarinen pigmeoak pistola erabili zuelako Sigmaren laguntza erdiesteko. Plastikozko arma sukaldeko mahaian zegoen, kazeta zahar eta supermerkatuetako poltsa biodegradagarrien azpian, elkartasun derrigortuaren lekuko.

Posarekin klandestinoki jarduten ikasten zuen Sigmak: egongelan giltzatu eta kasu egiten, leihoetara ez hurbiltzen, gerla hotzetako espioien pare, oroz bat isilik, auzoak deus ez zezan suma. Salatari-kalakari sobera ba omen zen eta ez ziren ondoko erkide plazentaz, bisean bis laudorio eta atzetik ausiki, aski mesfidatzen. Gobernu nazional-liberalak aspalditik burumuinak herraz, desesperantzaz eta errabiaz ereinak zituen: denak ginen bata bestearen balizko etsaiak, inozentzia frogatu arteko gaizkileak, sistemaz baliatzaileak.

Orai düzü ene maitia partitzeko tenorea...

–6–

Sigmarekin zihoanak ez zuen trenaren huts egiteko paradarik. Garaiz baino garaizago iristen zen, nahiago baitzuen denbora aiduru higatu, karriketan presaka ibili ondoan izerdi patsetan iritsi ordez. Bidaia baten bezperan, ohean ziruri-kaz gaizki lo egiten zuen, ametsetarik oihuka, garraiogailuaren gibeletik lasterka akitzen zela-ko. Lamdak ulertzen ez zuena. Horregatik men-turaz, harrotasun puntu batekin trenik ez zuela nehoiz galdu zerrakeen, tren erreal bezain meta-forikoak noski. Posa Ngakaren urrats era berdi-nean sartu zen Baionako geltoki berrituan, berri-tuan baina zorigaitzez lekuan lekuko indigenen-tzat ez euskaldunduan.

Zortziak eta laurden.

Eguzkia iraitz zekusaten Santizpiritu zubitik. Ekialdeko Aturri ezpondetako lantegien ke diafa-noak argitasunean uhargi bermatzen ziren, ura-ren, zubien eta hegien marrak azpimarratuz. Itsas aldera aldiz, arrantzale ontzi txikien zirkulu zurbilak ibaiaren azalean, saldoan zetozen kala-

txori karrankariak eta ohiko lau ubarroi jostariak errekaren erdian zazpi borobilez azpildutako zulotxoak egiten miresten zituzten. Lanerakoan kasik goizero agertzen ziren hegazti beltzak tenore horretan, eta Sigmak zeru goibelean ttakatxoak bilatzen eta aurkitzen zituenean, bizitza normaltasunez isurtzen zitzaiola berrets zezakeen. Sosegatzen zen, azkorri honetan Posa Ngaka pigmeoarekin bezala, paper-maper buruhausteak behingoz itzuriz.

Posa puska gutxirekin zebilen. Pistola sukaldeko mahaian utzia zuen, kontrolik balitz, seguritateko piztien hirarik ez sustatzeko. Sigmak berak bizpahiru egunentzat Londresen gauza askorik ez zeraman. Abestietan eta filmetan agertuaren ildotik milaka *beautiful laundrette* bazegoen Londresen. Ahots sintetikoak ozenduz zihoazen itxoin gela zoharrean, jende herabetiaren korrok disgustatuak halaber eta herrestarien algarak ate kantoietan, pozik azkenean diru multzoa eskuratu zutelako Europako ardo merke heste bihurtzaile botila baten erosteko.

Bi gizon talde ziren barrandaz, altzairuz astun, hiritarrak ikertzen zituztela, bakoitza ba-

lizko gaizkilea bailitzan. Nazional-liberalismoak boterea irabazten eta atxikitzen zuen horrela, kalapitak mutuaraziz: errudunak ziren, hobenik ez baldin bazen ere, batek bazekien eta ontsa zertaz. Inhumanitatea gehiengoaren bizkar zetzan eta humaninatearen ereduak elitekoen kontu eta bi sosen trukean hersten zituzten eztabaidak. Zaindari baten soa gurutzatu zuen Sigmak eta, ironia maltzurra perpausari josiz, *mea culpa* marmaratu zuen.

– Zortziak eta hogeita hamalau. Goazen bigarren kaira. Zein da dagokigun bagoiaren zenbakia?

– Hamasei. Jargiak, berrogeita hiru eta lau.

– Agian Pariserako bidaia jarririk dagikegu. Erreserbatzen duzun arren, bada beti norbait zuk baino gorago orroatzeko eta arrazoi ez duzula sinetsarazteko. Martxoan Bordelera nindoan sindikatuaren eskualde bilkurara. Bagoi onean nintzen, baina nire tokian bi burgeskume iltzatu eta ez ziren handik kantitzen, nolabait larderia apurrekoa nintzela susmatzen zutelako, ez ederra, ez aberatsa, ez kementsua; badakizu zeinen garrantzitsuak diren ezaugarriok gure egunetan.

Neskatila oldartu zitzaidan, ttottogian bermaturik, beste bidaiariak jakiletuz:

– Bikote bat gara, bakarrik zabiltza zu, ez da ene mutila trenaren haraindiko puntan egoten ahal... Zer egingo zenuke ezkondua bazina? Begira maitea, ni hemen nago, non zaude? Normala zaizu hori?

– Erreserbatua dut.

– Zoaz pikutara! Bada leku libre anitz. Hauxe argamasa!

Hargatik Posari esku-ukaldia ematen hasiz geroztik argasmaskeriarik ez zeukan Sigmak kolkoan golde: hate speech zelakoen mamia zitzikatzean zetzan hatsaren irauneraz gozatzeko askatasunerako harmaila bizitorea. Trenera hupatzean Trenz begimendu zuen, Barcelona futbol taldearen atorra horia soinean. Keinuka agurtu ziren, barrezka. Harro zebilen Trenz kamerundarra, herritar batek markatu zuelako Manchesterren aurkako tantoetarik bat. Raperoen moduan kulunkatuz eta behatzak bizkarrera zuzenduz Samuel Eto’o-ren izena erakusten zion. Egia erran, Sigmak Posari salatzen zionez, gol ederra izan zen, Afrika behingoz bozkariatzekoa. Drog-

ba bolikostarraz ere ari zen, baina Posak ez zuen batere kirola segitzen. Mugak onik pasatzea eta Londresera iristea zen pigmeoak ezagutzen zuen kirol mota bakarra. Ehiztarien gauaren hondotik zetorkion zintzur karrankaz ausartu zen Posa:

– 2005eko irailaren 29an Ceutan eta urriaren 6an Melillan ehunka gazte Europa gerizatzen zuen harresiaren alanbre zutuna gainditzen zutela, gasatu, matrakatu eta tirokatu zituzten espainiar eta marokoar mugalariek, asfaltozko loiroetan metatu itzal eratorlariak ziren eta bamanankeraz tunkaranke deituriko migranteentzat Nadorreko hariztoia xedera engainakorra izan zen...

Sigmak ez zuen Posaren logorea arrunt ulertu. Eztiki ari zitzaion alta trenean kolokatzeaz axolatzen ziren bitartean: egunkariak, ura, liburuak, musika, orrazia ikaratia. Bost orduko bidaia zeukaten Paris-Montparnasseraino. Eurostarrarekiko juntaldia Gare du Nord hartan zegoen, arratsaldeko laurak eta hamahiruan. Astia bazuten beraz aspertzeko, gogoetatzeko, zurrungatzeko, irakurtzeko, memoriaren harilkatzeko, Posarena urratzen zihoalako itxuraz: ez zuen deus

kontatu ordura arte eta bat-batean Ceuta eta Melilla mailukatzeaz beste lelorik ez zeukan.

Hainbat urtez bertan lanean egonagatik ez zen Sigma aspaldian Parisera itzuli. Herriratu zenean, hasieran hiri handi hura gabe ez ziraukeela zirudion, baina gero eta gutizia gutxiago zuen Pariseratzeko, Frantziako hiriburua baino nahiago baitzituen Erroma, Bartzelona, Atenas, Viena, Firenze, Berlin, Dublin, Venezia, Bilbo edo Madril. Euskaldun puntako poetei uzten zien Paris, erreferentzia papun eta kultu moduan balia eta erabil zezaten. Posa Ngakak, alabaina, bere zalantzen menpetik jauztera akuilatu zuen Sigma, indiferentziaren loeriatik esnatzera, Alfajarineko aparkaleku idorretik Londreseraino joatea ezinbestekotzat jotzeraino.

Landetako eremu orlegiak trabeskatu zituzten, tenpestaren ondorioz hautsi arbolak zenbatuz: Posak etengabe aipatzen zuen jungle zelakoaren nostalgia sumatzen zukeen bi egun zaharreko *Berria* hostoka eta horoskopoa irenstean. Hiriak bihikatzen zihoazkien. Exilioaren orrialdeko oharrak bailiran. Oraindik ere walkmanean zein kanta aditzen zuen oroitzen zen: U2-ren

With or without you, Peter Gabrielen *Biko*, Sinead O'Connorren *This is to mother you* eta Tracy Chapmanen *For my lover* (bis). Ez zen ordea ibilaldia beti alegera, haurrak Parisen preso zeuzkaten guraso euskaldunak noiztenka gurutzatzen zituelarik bereziki. Posak solasaren haria auhenkatu zuen:

– Leinukideak ere kartzelan sakatzen dituzte, Brazzavilleko sasi-hegietako egoitza ahulen aterpean mozkortzen, drogatzen edo gorputzak saltzen atxilotzen dituztenean.

Ez zuen inork ezer barkatzen.

Ceuta eta Melilla zerraikan:

– Daoud elerran nuen, Malagako Gurutze Gorriaren aizolbean sukartsu geundela. Erraten zidan lagun batekin hastapenean bospasei aldiz iragan zirela Melillako alanbreetarik, baina behin ere «agiririk» lortu ez zutenez, kanporatu eta autobusez eramanik Sahara desertuaren erdian abandonatu zituzten, ur eta janaririk gabe.

Azkenean erdietsi zuen Daoudek, baina Ceutatik abiatuz.

Bordele. Angulema. Poitiers. Saint Pierre des Corps.

Posak musika orrazia atera zuen sakelatik. Mugikorren txirrin nazkagarriek belarrien agorra uhertzen zutela, ume negarrek, maitaleen balentriek, pigmeoaren soinu tresnaren eresi samurra zen, zerbait ezberdinen etorrera otoizten bailuen.

Kontrolatzaileek txartelak zulatu zituzten. Mary J Blige-ren *No more pain no more trouble* behatzen zuen beltz pottoloarekin pataskatu ziren, txartel elektronikoa geltokian ez omen zuelako balioztatu. Akomodatzera iritsi arren aburu publikoaren harramantza hantzen zihoan.

– Arazoak egundaino horiekin gertatzen dira. Edo beilegiekin. Ez dute deus errespetatzen. Alta, dauden zepoan, umilagoak izaten ikasi beharko lukete. Ez al duzu uste?

– Bai. Bat nago zurekin. Espero dut lehendakariak, kuraia duelako, ttakak i-en puntetan zehatz jarriko dituela. Familien biltzerako DNA azterketa legeari ongi deritzot, ez baitu alaina Frantziak munduko miseriaren saskia bilakatzerik. Alemanian eta Italian berdin dagite.

– Hemen arrotz sobera bada. Europak bere ekonomia maila mantenduko du migrazio uhinak

garrazki kudeatzen baldin baditu, eta ez bestela. Kanporatze *charter* delakoen alde naiz, erabat.

Posa, ez egin negar: maliarrak gara denak.

Vous êtes arrivés à Paris Montparnasse. Assurez-vous de n'avoir rien oublié dans le train. Nous vous souhaitons une agréable journée. Attention à la fermeture automatique des portières. Eloignez-vous de la bordure du quai s'il vous plaît:

– Daoudek zioen zuhurritz zahar baten arabera, tunkaranke bat helburua erdiesteko laido, tu, erdeinu, gaitzeste sailak pairatzen zituena zela, gorputzen berotasun lizuna ukatzen eta bihotza harria bezain gogor zizelkatzen zuena zitekeela finean. Oinez ahitzen zitzaizkien hilabeteak Ceuta eta Melillako alanbreen maldan aterpetzeko. Hirietarik urrun gordetzen ziren pasaia ordaindu, antolatu eta obratu bitartean. Nadorren eta Aaiungo presondegian biharra ez zen neholaz ere hobea, sordeia baizik.

Posa, ez egin negar: salbatuko gara gu.

Geltokiko zementu grisean oinak itsatsi zituenerako megapolisetako urduritasuna zainetan ziklona bihurtu zitzaion Sigmari. Posa nekez eta

malestrukaki jarraitzen zitzaiolakoaz ez zen ohartu. Itzulikatu zenean anonimoen multzotik larru gorrailekoa zehaztu zueneraino arrangura-tu zen. Igurikatzea erabaki zuen. Hurbil ibiliko ziren, biak haragi bakar bailiren. Tiketak erosteko metatu herronka dorpean urtu ziren. Geltoki aldaketaren egitea sinplea eta zaila zen aldi berean, baina Sigma Parisen gida ona zatekeen, azoteaz heziriko aberea hots, behialako erreflexu urbanoak berraurkitzen zituelako.

– Hau erokeria, ezta?

– Bost urtez Parisen zokoratu nintzela pentsatzen dudanean, ez dut ulertzen jada nola ihardokitzen nuen. Lanaren premia, dudarik ezin edo ezer gabe etxeratzearen ahalkea. Eta jada langabezian nago eta berdin zait.

– Hara, guri da.

Metroko hormetan pantaila alimaleak txilintxautzen ziren, erreportaiez, iragarkiz eta aholkuz mukuru. Orotan ezartzen zituzten tresna horiek, adimena gatibatuz, itxura handiosek populu opio zalea kalmatzen zutela oharturik. Posta bulegoetan halaber. Eta erresuminez zartatzear zeuden lerroaldi artegak pazifikatzen ziren,

gogoa desbideraraziz, langile eskasiarekiko amnesia ereinez eta zerbitzu publikoengana botereek beraietan txertatu herra hilkorra arinduz. HD eta 16/19 kutsuko filmek hipnotizatzen gintuzten. Olde-bultzada baten karietara, egiaz nahikoa fida ez zen Ngakari erran apokaliptikoa oparitu zion:

– Hitzaz haragitu zen alfa eta irudiaz ezereztatu omega.

Edo horrelako zerbait.

Ez zuten perpausaren sakontzeko astirik ukan, Montparnasse Bienvenue-ko hodi elkorretan zebiltzalako, ahurrak heze eta gangarrak idor. Lasterka ari ziren jende batzuk, gehienak tapiz mekanikoen abiaduran tentel: nora zuten horrelako presa? Posa Ngakaren burumuinean hozitu zen galdera. Begikera kezkatuak trukatu zituzten. Porte de Clignancourt zekarren seinale ubela zekusan Sigmak. Masa akritikoaren zati mardula bertara murgildu zen, urratsen zarata uherra baino ez zela ozen.

Ceuta eta Melilla. Posaren elasturia:

– Maroko eta Espainiako lur muturraren auzoko oihanetan ez nuen orrazia erabiltzen, ez nin-

tzen paseatzen. Herrikideak baziren urte andanetan hor, gordeak, zaurituak, gaua aprobetxatzen zutela herrira jateko bila joateko. Isilik. Ez zen hitz egiten, edo doi-doia, baizik eta irauten, egiazki bizi artean.

Posa, ez egin negar: mugarik ez dugu.

Bozgorailuak kasu egiteko mezuak airarazten zituen: kontuz pick-pocketekin, maleta ez edonon abandona, produktu ilegalik ez erosi... Gomendio lizunak oihar, akordeoilari trastuak melodia kolpekatua eskaintzen zuen hauspoa mailukatuz, *lau kiwi bi euro* garrasitzen zuten maingukari asiarrek, mokanes zikin baten pare zimurturiko izakiak eskua luza zezakeen *bi haur ditut gose naiz eta ez dut etxerik* izkiriaturik zeraman kartoi puskaren saihetsean, urrunago belaun gangrenatu odoltsua agerian zetxikan ezindua protesiaren eskuinaldean zetzan, predikari islamistak bizarra ferekatuz munduaren azkena totelkatzen zuen, bikoteak musukatzen ziren izkinetan, adineko bi gizon eskutik zebiltzan anonimotasunean eta... korrespondentziarako kaira heltzean, polizia saldo bat ari zen nortasun agiriak ikertzen.

Sigmak geldiunea markatu zuen. Ihes suertedunik ez zen engoitik. Behiala aipatu destinoarekin bekoz beko zeuden, argiki, lepoak trenka zitzakeen unearen ezpataren meneko. Bihotzak kaioletarik jalgitzear zituztela etorri zen metroa:

– Vos papiers.

Hortzetaraino armatuak ziren. Ez zen arraileriarik. Lehena, zaluki, Posa Ngakak erakusten zion paper faltsuari so geratu zen. Aliasen obra alde orotara aztertzen zuen, baina ez zion zakar susmorik aurkitu.

– Milesker.

– Eta zureak?

– Hara.

Barnetik zebilkion izua gordetzen saiatu zen Sigma.

Barre egin zuen, umilki, bigarren metroaldi bat lerratu zitzaiela. Polizia Sigmaren nortasun agiriarekin tematzen zen. Mingurikatzen zuen akatsez betea zela, horren frogatzeaz segur bailitzan.

– Zure kartak ez du balio.

– Nola ez duela balio?

– So egiozu zeronek... epea aspaldian gainditua du. 2007ko maiatzaren 5az geroztik hain zuzen. Komisaldegira eramango zintuzket. Baina, elkarrekin bidaiatzen baituzue eta zure lagunak paperak ozkan dituela, berehala desagertu zaitezen erregutzen dizut. Datorren astelehenean zoaz udaletxera, nortasun biometrikoaren eskatzera.

– Bai, bai, bai.

– Egun on bat desiratzen dizuet.

Ikara zen Sigma. Ez zuen behar. Hurrengo metroan urtu eta bisean bis jarri ziren. Ez zuten salbamenezko putz handirik askatu, eritasunak zurgatu txistularia sartu zitzaielako, sudurkatzen zuela:

– Presondegitik atera naiz atzo, sei ume dauzkat sasi-hiriko txabola batean, emaztea minbiziarekin, ama parkinsonarekin, edozer hartzen dut: ogi puskak, janaria, dirua bistan dena, eta plazer duenak eman diezadake kreditu txartela, *premier* den ber –erantsi zuen kokin.

Nehor ez zen mugitu. Metroak urratzen zituen haize hego usaineko ilunpeetan galdua zen Posa, mirakulutsu baten antzera, Sigma gogoe-

taz zamartzen zihoala: fribolitate nazkagarriaz paperak maiz ahanzten zituen. Kasketadunen parean baizik ez zen damutzen. Behin baino gehiagotan kinka larrian malgortu zela aitor zezakeen, asteburu oso batez klandestinoen egunerokotasuna dastatzen, astiro hatsartzen, berezitasun eta espantu barik, normala bailitzan, ez zena izaten entseatzen. Noizbait zinez atxilotuko zuten eta espulsatua izateko herria aukeratzeko tenorean bazekien *maliarra!* deiadartuko ziela migrazio uholdeen kateztatzeaz beste zereginik ez zuketen funtzionario mozkoteei.

Posaren segurtasuna zozokeria hutsez zalantzan jarri zuelakoaz bere buruarekin haserre zegoen. Eskerrak Aliasen lanak begi zorrotzeko indar-zaintzailea mistifikatu zuela, airez aire.

Puntu ona bederen.

Chatelet Les Hallesetan ziren. Zanpa-zanpa. Eskailerak. Tapizak. Ateak. Marmarrak. Desagertu behar zuten. Ez mugitu. Kontrolak baziren denetan, haboroxienetan arrotzak eta arrotz trakakoak zituztela geldiarazten, larru koloreztatuak, jantzi lakarregikoak edo ardo urrin zakarregikoak. Ez zituzten miatzen enpresariak, krisia bar-

katzen zitzaien bankeroak eta UV leinuruz beilegitu blonda patinatuak. Baina beltzaranak bai, derrigorrez, beltzaranak, bizardunak, ilediak zapiz estaliriko neskatxak (poliziek begirada trufakorrez goratik hartzen zituzten) eta Bobignytik zetozen potiko zoratuak, hauek baiki...

Tu l'aimes ou tu la quittes.

RER-eko biziraule biluziak.

Sigmak besoetan tinkatu zuen pigmeoa, betidaniko maitalea bailuen. Ohartu zen daldaraz zela, bera bezainbeste. Ez zuten ihardokiko, herri hau kitatzekoa zen agudo: gorroto soziala, konpetentzia, xenofobia, totalitarismo zuria, Barne Ministerioaren esku-hartze hastirela, zinismo politikoa zilegia.

Beldur ziren ez ote zieten *Cahier d'un retour forcé au pays natal* balizko tituluarekiko Aimé Césaire-ren olerki bilduma berridatzaraziko laster, herri hau lehen baino lehen desertatzen ez baldin bazuten.

Quitter la France.

Ezpaina irriaz bortxatu zen.

Ceuta eta Melilla: aditza jada lurbeltza zen.

– Abiatu ginen familiek dirua bildu eta jainko zekenek haiaturik. Helmugak lortzera kondenatu gintuzten, hiltzera beharbada, zorrik ez zuen herioa urmaelen sabel hantuetan sekretuki zirtziltzen zelako.

Sasihirietarako tren urdinean, borta kantoian kokatu zen Sigma, Posaren men. Lau neskatila ari ziren airoski elkarri desafioz:

– Ez diet mutikoei ezer zailtzen nik. Nahi dute edo ez dute nahi. Bat galtzean, hamar baditut egoitza zolako igogailuko xeilan aiduru.

– Ez da hain erraza. Badakizu, nik fidelitatean sinesten dut. Bricekin nabil eta imajinatzen dut ene semearen aita datekeela urtea barne.

– Zer diozu MC Solaren abestiaz? Bonba bat da...

– NRJ irratian maiz pasatzen dute, baina bai, Madonnaren lau minutuak Justin Timberlakerekin... Uhau, super gustatzen zait.

Hori zen, fantasiaz eta ihes minez imajina zitekeen etorkizunaren anitza. Madonna. Rihanna. Beyonce eta Eminem. Rokia Traore eta Oumou Sangare. EH Sukarra eta Anari. Maddi Oihenart eta Niko Etxart. Buffy Sainte-Marie eta Guadalu-

pe. Egileok konpilatuz molda zitekeen diskoa merkaturatzearen ideiak eroan zuen Sigma. *Egun bereko alargunar*en kanta megabass sarkorrez apaindu sexy remix moduan asmatu eta Gare du Nord-en ziren.

Sigmak Posaren ukaraia behatz epelaz balakatzen zuen, samurtasunerako unea zetorkien, bazekiten horrela ekinez *incognito* pasatuko zirela. Hatsartzeko leku murritza aski zuten, RERaren kaitik Eurostarraren maldaratzeko xendra txikia eta Londreserako trenaren itxoiteko ttottogi zilarra. Ikusezinak bilakatzekoak ziren, arratsaldeko laurak eta hamahiru minutuak erabat ahitzeraino.

– Gure tribuetan arbolaren baten larrua urratuz erdiesten da ikusezintasunaren ahala multiplikatzen duen esne zuri malgua. Akwa zenak ur hura edaten zuen eta ehizara zihoan. Abereek ez zuten ikusten. Edari hartarik bagenu gaur?

– Begira, bost urte eman ditut Parisen neronen ikusezintasuna deitoratzen eta hara, zurekin, epaitzen eta azaleratzen gaituzten inguruko-en begiak ezkeltzen zaizkigu. Gaizki nago.

– Enegatik da.

– Ez da zuregatik. Niregatik da. Noizbait, zin sakon baten eraginez ikusgai egin nintzen. Zoaz zu zergatik den jakitera...

Ordubete oraindik.

Ceuta eta Melilla. Posaren lelori tragikoa:

– Daoudek piroga jabearekin hiru saiakera finkatzen zituen, hitzarmena izenpetu zuen azken ekonomiak xahutuz. Hirurak antzu. Gurutze Gorrikoek salbatu zuten Daoud zeraman ontzia, lau egunez Mediterraneoko galerna latzetan eratorrian higatu ondoren.

Sigmak ez zuen gehiago pentsatzen. Antsiaren zirimola sentitzen zuen erraietan gora, betezpalak bustitzeraino. Urratsak nekearen zigilua zekarren. Batzuetan okerrean zebiltzan, eta besteetan ustekabeetarik sano eta salbu.

Salbatuko gara gu Posa...

–7–

Londreserako trenak, abiadura handian, Parisko eta Normandiako lur lauak aztoratu zituen. Isilik ziharduten. Montparnassen nortasun agiriarekiko duda-muda zela kausaz hausnar okaztagarrian ihalozka zihoan Sigma, kopetatik kotera hotzak isurtzen zitzaizkiola. Gogoeta nahas zebilkion: Bartzelonatik ekarri ezagunaren argazkia xerkatu zuen esku-zakuan, debalde. Ordez, izenik gabeko mugako hiri batean behin onarturiko larru joaldi baten ankerrak izpiritua ito zion: Mega edana zen eta amodioa egin desira zuen, nahiz eta hastapenean Sigmak ezezko borobila fermuki bermatu. Kidea tehenta zebilen:

– Nahi dut, gaur.

– Ezin duzu. Alde egitekoa naiz.

– Arren...

Mihia sartu zion aho zokoan ezpata lanpustuaren antzera. Gorputz zurbila hedatu zen gelako argi ahularen azpian. Megak Sigmaren eskuak tinkatu eta haragi beroetan zehar gidatu zituen. Auhenez ari zen. Ardo pitzatuaren urrina zeukan

haren hatsak. Sigma disgustatuak aitzina jo zuen ordea, Megaren adiskidantza galtzeko asmorik ez zuelako. Ideia horrekin behatzak hezetasun gorderaino iritsi zitzaizkion. Garrasika libratu zen eta, bat-batean, deus gehiagorik eskatzen ez bailuen, bizkarrez bihurtu zitzaion, mutur. Une zehatz hartan Sigmak bazekien ez zuela segurtatu, hutsean ibili zela, batez ere herri hura abandonatu zuenean, autoan Springsteenen *Reno* entzutean: alabaina gertatutakoa ez ziezaiokeen Lamdari konta.

– Ez dago hasierarik...

Posaren ahotsa ozendu zen:

– Zer derasazu?

– Ezer ez.

– Zerbait baduzu: arrangura zaude.

– Maitasunaren zero gradua ukigarri zitzaidan arratsa zital dabilkit muinetan. Perfekzioa ez da mundu honetakoa: amodioa eta besta-kidea biak hegaldatu zitzaizkidan, amore ematen baldin banuen zainduko nituela ustez. Kontsolatzen naiz, bizitza, betetasunik baimentzen ez duen askatasunaren eremua dela errepikatuz.

– Ez zaitu horrek sosegatzen.

– Aperentziarik ere ez. Frontera lakarrean agitutakoak kurruskatzen nauen oroz, bonba atomikoak erraustu lubakia naiz.

Posak pertsona gisako dolamen iturria ebaki zion:

– Ez zaitezela kezka. Pentsatzean berean ahalkea borobiltzen diguten ekintzetan galtzen gara noiztenka. Ez dizut erran, baina El Ejidoko negutegietan lanean ari izan nintzen garaian aspaldiko partez larrua jo nuen, haserrea eta ahalkea hagun.

– El Ejido? Ez didazu sekula horrelakorik aipatu.

– Alaina. Hiru aste eraman nituen bertan langile marokoar paper gabeekin tomate, lursagar eta uraza biltzen, izerdi trukean. Plastikoz eta kartoiez eraikiriko txabola zikinetan aterpetzen ginen. Ur eta elektrikarik ez zen. Almeria eskualdean goraipatzen den mirakulu ekonomikoa klandestinoen bizkar errotzen dela ba al dakizu? Afrikatik etorriak baraztegietan metatzen ginen eta kooperatibetan ekialdekoak ziren nagusi. Profeituak naski ez du legerik... Unean uneko

agiriak ebatsi zizkidan amodioa egin zidanak, eta ihes joateaz beste erremediorik ez neukan.

Kanpora begira plantatu zen Sigma.

Burdinbide hegiko pazoien pasaldi sinkronizatuek, Megaren espektro hezurkoia eta biloa saltsara erortzen bailitzan, Posak gogoan txertatu zion El Ejidorekiko agerpen mikatzak ezabatzen zizkieten. Mancha azpiko tunelaren aldera ari zirela konturatzean lainoak miresten zituen.

– Sangatte.

– Zer da hori?

– Lampedusa eta Alacant bezala, migranteen babeslekua zen Sangatte, botere zentralak itxi arte, klandestinoen Ariadnaren haria hausteko. Omnipotenteak dira: errazu hitz bat eta gelditu-ko naiz. Bizkitartean arrazoia dute buruzagi nazional-liberalek, borroka gehientsuak diskurtso manipulatuei esker irabazten direlako. Europako hauteskunde kanpainetan Turkiaren sarreraren aurka eta emigrazioa gogor kontrolatzeaz baino ez ziren solastatu, arimarik ere zilegitzen ez dieten salbaien balizko erasoen beldurra populu bahituen buruetan barreiatuz. Bazauzu?

Posak doinu trufakor txistukaria sumatzen zion.

Monologoan zerraikan:

– Krisiaren karietara, afera-lagunak salbatu eta herritarrak duintasunez biluziz, uztarripean garamatzatenek amets obsezional bat badute, gauza bera da mundu osoan, estatuak mafiak edo camorrak beraien eskualdeak kudeatzen dituzten moldean eramatea, ezagutu duzun El Ejido sufrituko edo Scampioko workshopetakoen maneran lanean hiltzea onartu dezaguntzat. Errumaniarrak eta txinatarrak dauzkate eredu. Klientelismoa eta biolentzia banatzen dute egunero zortzietako berri-sailetan. Bereziki bortizkeria. Hau dute zinez altxor: bortizkeria mutua. Halatan aski da Sangatte giltzarrapoz zerratu dela telebistan azaltzea, estatua trabeskatzen duen Ingalaterrarako migrazio ohituren urkatzeko: ez da gehiago nehor pasatzen. Sozial alorrean diharduen Poppy adiskidea izutzen du biolentzia subliminal horrek, gerla zibil bat martxan dela dio, mintzaldietan, gertakarietan, ebazpenetan, harreman sentimentalak kutsatzea lortzen duen gatazka ukatu bat.

Poppy besarkatzen dut erabat hauts ez dakidan...

– Zer diozu?

– Ez dakit. Uhertzen ari naiz.

– Edo ez. Zure eratorri mentalaren logika duzu segitzen. Ceutako sokorritzaileen egoitzara heldu ginenean hogeita lau kideetarik zazpik Ingalaterra zuen helburu. Hamaika gau iragan genituen nora ez, barkua urperatzear, gizonak, emakumeak, ume bi. Paperak eman zizkiguten eta lehen trenean urtu ginen denak, sasiak, mortuak, lokatz idorrezko hiriak, Almeriako negutegiak, ontzi herdoilduekiko kosta harritsuak, Lleidako fabrika kimikoak, Europako xendrak aztalkatzeko hots, Londreseraino. Maliar eta marokoar haboroxienak Andaluzian eta Katalunian ohatzen ziren, habietarik hurbilago zeudelako nolabait. Sambarekiko hitzordua nuen nik San Pancrasen. Gaztaroko promesa. Ene aldia da orain. Zuri esker...

Sigma buruz zoratzear zegoen:

– Niri esker? Baina mundua belauniko menperatzea eta xurgatzea xede duen eskualde oparoenetakoa naiz. Kontzientzia txarra dut. Hemen

nago langabetu berria naizelako eta Lamda Mexikora hegaldatu zaidalako. Egia da Posa, agian zuregatik, ahoa irekitzen duen segundo bakoitzean lardaskatzen gaituen zurrunbilo neoliberal nazkagarri horrek erraien sakonean zer duen ulertzen hasia naizela. Lantokian, askara ura milikalapatzera joan nahi ez zuen astoaren pare nintzen: inadaptatua, gaitzetsia, mandotua, hogei urtez alta ez nuelarik teknika sotil eta erritmo zirikalariei egokitzeko arazorik izan; ez naiz zaharra, kalitate apurrak ditut, baina diskurtso orokorra jasanezin zitzaidan, horixe da bai, diskurtsoa jasanezin zitzaidan. Lizentziatu nindu-ten amen batean. Eta ez ni bakarrik, aspalditik haizatzekoak zituzten ehun bat inadaptatu sozial baikinen. Aitzakia zitzaien falta.

– Zer eginen duzu?

– Bidaiatuko, Londresera berehala eta segidan Mexikora. Datozen hilabeteetan teatroa ere ikasiko dut. Uste dut gizarte performatibo batean irauten dugula, antzerki jokoaren hertzeetan zer dabilen jakin gabe. Zaldarez hantu korbeen maldan marrakaz atxikitzen gaituzte, zorionaren eskala barne-ekoizpen-brutoak mailaka-

tzen digu eta, auzoa etsai dugula diotenez, handi-mandiek eskaini komedia lanzinantea piltzarrontzat tragediaz apaintzen da.

Sangatte.

Gurutze Gorriaren zentroak afrikar izenen doinua zuen. Benetan. Bertan afrikarrez bestalde gerla malatsetan zebiltzan eremuetarik eskapatu gazteak metatzen ziren, Ingalaterrara trenez edo kamioiz pasatzea xede. 2001az geroztik, Bushek kudeatu amerikar armadek bonbardatu Afganistan edo Iraketik etortzen ziren saldoan, ekialde ohiko erresumetako gosaio eta aurkari politikoak, ukraniarrak, bielorrusiarrak, moldaviarrak, kurduak, txetxeniarrak, kanbodiarrak, birmaniarrak, kosovoarrak, guztiek Italia eta Frantzia kuku-gordeka aztalkatzen zutela. Ibai zabalak zeharkatzen zituzten arrantza ontzietan, sardinen eta txiripitxeruen azpian. Arrain usaina larruari lotzen zitzaien, bakartasunarena bezain azkar eta luzekiro. Zenbaitek frigorifikoak zeuzkaten aizolbe. Mugazainek hil zorian hormatuak uztatzen zituzten. Sustut emazteak. Pasaialariek paper faltsuak konfiskatzen zizkieten, bortxatzen zituzten, saltzen, mutila-

tzen, truke txanpon gisa erabiltzen esklabo-merkatuen garai atzeratuenetan nola.

– Roma Ostiense geltokiko sotoetan bilduri-koek bizar-labanaz ezabatzen dituzte eri puntetako nortasun marrak...

– Hauek ere Ingalaterra behar.

Posaren bekokia distiraz soleitu zen.

Emigrazio oldeak lurra ziliportatu zituen betidanik: migraziorik gabe populaketa ezberdindu zein progreso kulturalik ez zitekeen. Ezinbestekoa zen. Euskaldunentzat barne, Ameriketara, ipar, erdi ala hegora bost axola, lehiatzen zirela. Irlandarrak, galegoak eta higanot saldoak San Bartolomeko gau odoltsutik landa, lau mende zuela. Jendeak ez ziren samurrak arrotzekiko, baina noizbait Afganistandik eskapaturiko Mirwais bat plazaratzen zen Madonnaren *Ray of light* kantua izar soinuz hornitzeko, eta inork ez zuen deus erratekorik. Familien ohorea ahantziz, azkenean onartzen zen ume ez desiratuaren antzekoa zen migrantea: gorrotoz larrutu kanpotarrak, bozak irabazteko politikarien zaunkak ahultzean, jendarte osotasunaren premiazko zati bilakatzen ziren.

Posaren soa gatibatu zuen Sigmak: bihotzean tsunami bat zukeen, ikara bizkarrean gora, uholde latza sexu aldean, magma isurketa sabelaren urrakotik, eta *Lamda* erran zuen.

– Ba al dakigu zer den amodioa?

– Sigma...

– Ez naiz amodio domestikoaz ari; badakizu: etxea, piszina eta elkarrekin adosturiko zahartasunerako aurrezki eta ehorzketa plangintzak, bakarrik ez hiltzeko estakuruaz, beldur horren aurkako amodio hezia, gogaitua, perpausez zekendua...

– Tunkaranke bat bezala mintzo zatzaizkit.

– Baia?

Algaraz edertu ziren. Sigmak hausnar tzarraren ildoa abandonatu zuen bagoian kontrolatzailea sartu zenean. Langilearen esku-makinaren xlix-xlax xugunak oihar zebiltzan, ordenadoreen zurrungek toteldurikо izaki isilen –ziberisilarazien?– erditik. Grazioski agurtu eta billeteak itzultzean erantsi zien:

– Bidaia on.

Jendea bata bestearekin gisakoa eta eztia agertzea zinez azpimarragarria zen. Gehienetan,

ahulenekin, edozeinekin oro har, bat bederak bazuen oinarrizko herramin bat, eta burkidea aiherkundez neurtzen zen, jazartzear, mendekatzear, negu minetik mihi sardetsuarekiko suge gorria bailitzan.

– Gerla batean gaude.

Posaren belarri zuloa Sigmaren hatsaz epeldu zen:

– Eta gu gara galtzaileak.

Sangatte berriz.

– Badu bost urte Sangatte zerratu zela, eta badira oraino egunero herriko lurretan eratorrian dabiltzan lauzpabost ehun migratzaile, Ingalaterrara jauzi egiteko gertu, suertez lagunduko dien kamioiaren edo batelaren zain. Itsaso gainetik edo tunelaren azpitik, aterabideak oro egoki zaizkie. Herriko oihanetan higatzen dituzte orduak, portuko infraegitura herdoilduetan debalde, mugetako Poliziak maiz atxilotzen dituela erretentzio etxe mukurutuetan setiatzeko. Migratzaileak, diotenez, eguerdi aldera Moselako kaira zuzentzen dira, Izar Eder elkarteak bazkariak eta artamenduak banatzen dituelako hor.

– Nadorren ere horrela zen.

Posa interesatua zen.

Sigmak ahapez beti:

– Migratzaileak goxatzen dituen Mireio deitu andere bat bada. Berrogeita hamabost urte ditu, hamaika haurren ama eta hamabosten amona da. Klandestinoen xendretan eraiki oztopoak zerrendatzerakoan asaldatzen da Mireio eta egoera irregularrean dagoen atzerritarren aterpetzeagatik legez kanpo geratzeko arriskuan dabil. Legeak alabaina urtetik urtera astuntzen dituzte. Aski duzu jada eri ttittila higitzea ilegalitatean sartzeko...

– Zu ere nirekin ilegala zara.

– Ez da berdin. Klandestinoa naiz ni zurekin. Lamdaz eta Aliasez aparte nehork ez du gure balentriaren berririk. Mireio aldiz guztiek ezagutzen dute, prentsak eta sareko ezkerreko blogariek. Hargatik ez da bakarrik, ezen hamar bat migratzaileri hegatsa eskaintzen dieten hogei familia baitira Sangatten. Sagar Urrearen karrikan demagun. Eta hemengo abenduak *Germinal*-etik iradokitzen direla jakizu! Mireiok behin hamasei urteko mutiko beltz bat aurkitu zuen, dolorez oihuka, belarretan oinutsik, zangoak eta eskuak

karroindurik. Orduko arduragabedun politiko bati deblauki arrabokatu zitzaion ez zenez zer edo zer obratzen ahal umetzar honen laguntzeko galdatuz.

– Baina funtsean zer da Sangatte?

Sangatte zer zen eska zitekeen. Arrazoi zuen Posak.

Zortziehun arima eta zortzi mila metroko are xehezko hondartza zuriarekiko Mancha hegiko herria zen, Bleriot hegazkilariaren espantuz ohoratua, hortik hegazkinez hogeita hamar kilometrotan dauden Ingalaterrako lehorrak uki zituelako. Horrela azaldurik, postal baten itxura zekarren Sangattek: hara jo zitekeen familian udako oporretan, Mokor Beltzen arteko basa landetan edo Sudur Zuri Muturrean oinez ibiltzeko.

1997az geroztik ordea, igandariei Kosovoko errefuxiatuak gehitu zitzaizkien. Tribu kolpatuak. Handik bi urtera Gurutze Gorriak kanpalekua eraiki zuen, Elkartasunaren eta Enpleguaren Ministeriotik etorri diruarekin. Eurostarra gelditzen zen 1985eko hirugarren saioan zulatu tunelaren atzeko geltokian. Muga hor zetzan. Calaisera zihoazen kamioien gas karbonikoa kontrolatzea

estakuruz, poliziek errota eta ardatzetan klandestinorik bazenez ikertzen zuten ardura.

Sangattetik jalgitzean kanpalekua zegoen, *The jungle* alegia, biketuriko paperezko teilatu eta tinta ilunez perdukatu oihalezko ttattolez osatua, iheslari bilduei ordea barrakia gorakoiak autopistara hupatzea debekatzen zietela. Sigma oroitu zen, lau urte zuela, menditik zebilela, Iratiko aterpean Omi medikua solastaturik:

– Menturazaleen patologia bereziak sendatzen ditugu Sangatteko kontsultan. Burua galtzen dute. Izua. Trafikoak. Xantaiak. Promiskuitatea. Leinuen arteko pataskak. Klandestinoek alanbre arrantzek eragin sarraski ugari dauzkate gorputzean, aurpegietan, ahurretan. Bihozkatzen naiz min horiek ikustean, artatzeaz beste egin ez dezakedala dakidan arren.

Omi isiltzen zen. Haizeak euria ekarri zuen Iratiko gailurra bustiz, eta goizeko hirurak aldera amiamoko kriazierrek gaua urratu zuten.

Trena gelditu zen. Sangatte. Bi minutu.

Aduanakoak miaketari segitu zuen, Posa, jargian kuzkurtuz, ezer ez bilakatzeraino. Sigmaren dildila. Zintzurra idor zeukan: bazekien lokomo-

toraren pausaz balia, hamaika migrantek bagoietara jauzi egiten zutela, istripu arriskua ekidinez, itzal piztiak bailiren.

Mugazainak taldean zebiltzan. Sigmak eskuan zeraman botilako uretik hurrupa bat edan zuen. Trena berriz abiatu zenean elkarri so tentetu ziren ufff etsitua laxatuz.

– Pasatuko gara.

– Uste dut baietz. Laster Londresen izango gaituzu.

– Hobe.

Umeki moduan zetzan Posa. Sigmaren marmara gailendu zen: hirurogeita hemezortzi mila errefuxiatu emokatzen ziren oraindik Sangatteko lokatzezko baratzeetan. Aste oroz sei ehun bat migratzaileek igarotzen zuten Mancha, Frantziaren neutraltasunaz balia, Parisek bere lurretan sustraitu zitezen begi onez ez zekusalako. Hemen, erantsi zuen berekiko Sigmak, gizatasuna desagertzen eta ezabatzen da, alta giza eskubideena sartaldekoen leitmotiva delarik hegoaldeko erresumei kolonialismo usaina darien dirulaguntzak ematea erabakitzean.

Posaren itxindua harrotu zuen:

– Badakizu Frantziak eta Erresuma Batuak Sangatteko protokoloa izenpetu zutela Bruselan, emigrante oldeak muturretakoaz hats gabetu asmoz. Zentroa epea baino hamar egun lehenago giltzatu zen. Presatuak ziren. Egoitzak desmuntatu zituzten agudo. Errefuxiatuak jagoitik barranda dabiltza, Mireio eta bere sarekideen etxeetan edo Calaisko elizetan arratseko getaria aurkitzen dutela. Herritarrek agiri xenofoboak plazaratzen dituzte eta, lehendakarituko zen orduko Barne ministroak biztanle arrunton auhenak aditu zituen.

Arazoa konpondu gabe, noski.

Tuneletik ateratzean, Ingalaterra hegoaldeko baserri guneak hedatzen ziren alderik alde. Behiak. Ilea haizetan airatzen zitzaizkien ardi bakartiak. Txirlingak, zerupe lainotsuetan. San Pancrasen zeuden ziztuan.

Posak bizkar zaku meharra sorbaldaratzean Sigmari xuxurlatu zion:

– Espero dut Samba aiduru dukedala.

– Deitu diozu?

– Bai, barda, zure telefonotik.

– Eta?

– Bai, han zegokeela berretsi zidan.

– Dena ongi dabil beraz.

Itseskatu ziren, mugikorren berraktibatze soinuak hauteman zituzten, eztulak, zazpi urtzintz, dominiskiku, oihuak, ordenadoreak hiltzeko txintxil hots partikularrak, perpausak, ingelesez eta frantsesez, Londresera iristen zirelako iragarkiak.

Arratsaldeko bostak eta hamabost ziren. Trena paratu eta ibiltariak herronkan jaitsi ziren, prestu-prestuak, aferagileak eta asteburua shopping egitera zetozenak. Posa, atabal txikia; eta Sigma, ilegala.

– Londres.

– Geltoki guztiak antzekoak dira. Erromako Termini, Berlingo Hauptbanhof, Vienako Westbanhof, Austerlitz eta Baiona.

Posak, urduri, Sigmaren zerrenda neketsua hautsi zuen:

– Ez da arras egia. Honek enetzat Samba aurkitzea eta beharbada egunerokotasun berriaren oihala iruten hastea erran nahi duelako. Ez dakit nola esplika.

Posa, ez esplika ezer.

Zamaz lehertuen artetik zihoazen, mutu, kalipua ez gastatzeko bezala. Posaren bihotzaren banbakoak igar zitzakeen Sigmak. Artega zegoen. Samba bilatzen zuen, ninika dir-dir eta hatsa labur: Afrika eta Europa trabeskatu zituen paper faltsuekiko klandestinoa zen oraino.

Hara non kaiaren puntan, soinalde txiki, beltz eta ile kizkur gorritsua zehaztu zuten biek. Pigmeoak korrika egin zuen:

– Samba!

–Posa Ngaka, musikari neurea!

Mundua muxarratu ote zuten bata bestearen besoetara erortzeko?

Bizitzea ere zilegi zen.

–8–

Bi arrats oroigarriz bahetu zen Sigma Londresko Compton Streeteko *No Direction Home* ostatuan, Posaren eta Sambaren koadrilakoekin. Hor biltzen ziren exilio zidorrak aztalkatu zituztenak oro. Klandestinitatearen ezpataren mihitik urrun, Afganistandik, Iraketik, Irandik, Sobietar Batasun ohiko errepubliketarik, Pakistandik edo Indiatik etorritakoek jadanik bake zerbait dasta zezaketen. Aurpegi iluneko multzoak alegera zebiltzan gaueko neoien azpian. Jendetzaren zurrunbilo heteroklitoa nagitzen zihoan NDHko aire tepoan, alkohol azkar hurrupari eta araberako melodien egarle.

Niazyren ondotik Natacha Atlas marokoarraren ahotsa hegaldatzen zen ostatuan, atabalak oihar, minaretearen puntan sekula ez agituriko muezzin emakoi batenaren pare. Gela beilatzen zuen pantailan Essaouira portuko itxurak garatzen ziren, Sahara mineko biztanle urdinen eta herdoilak irentsi burdinazko ontzi ukatuen itzal artean. Argazki ederrak ziren. Filmeko silueten

mugimenduen urritasunak harritu zuen, Europaren zati handia gordeka trabeskatu zutela zirudiolako: desertuak, hiriak, etxolak, txarak eta sasiak, arrazakeria arrunta eta arrisku larriak. Soin aleak bihikatzen zituen ibilera zen beraiek menturaldia izendaturiko migrazioaren errima gabeko erritmoa. Sigma ere kulunka berdinean Baionara sartuko zen, eta handik Mexikora jauzi eginen zuen, Yucatan edo Kalifornia Behereko itsas altzoetan baleen buztan dantza zuri-beltzak Lamdarekin miresteko.

Tekila ttilika bat edan zuen, esku gainean barreiatu gatza milikatuz.

Negarra zerion betezpalak hezetzera.

Ene bihotza zuria düzü eta enia zuria düzü.

Menpera ezinezko zortzi milako mendiaren maneran altxatzen zitzaion bizitza. Ez zekien nondik zula, noraino asma iragana berresten zion geroa, nola maita eta, zergatik ez, beharrean, gorrota. Auto-kitzikatze aldera txapelduna zen. Ez zuen berak bere burua salbatuko. Halaz sentimenduak nahasten zitzaizkion eta itsumandoka zihoan ardura zoritxarreko Edipo mainguaren ildotik, Lamdarekin amodiotan bistan dena

bai eta noiztenka gurutzatzen eta bihotza uzkailtzen zioten maitale tximistatsuekin. Hizlari zekena zen, ez zuen nor zen erraten, garrantzirik ez bailuen, baina gizarte honetan identitatea finkatzekoa zen genealogia politikoa bezainbat. Egoerak, xedeak, lehiak, norantzak definituago eta uherrago zihoalakoa ohargarria zitzaion.

Basoaz matela ferekatu zuen:

– Nor naiz ni?

Posarekin mintzo zen Samba. Pigmeoak sakelatik jalgi zuen musika-orrazia, zinezko salbamen-danborra. Tabernako bozgorailuetarik zetorren soinuagatik, Sigmak oholtzaratuak jarrai zitzakeen, kantari. Mirailaz, berinaz eta egur nixtatuz hornituriko txokoa indigenen oihan ekuatorialaren altzo bilakatzen ari zen, basakeria eta zuhaitzetarik dirua egiteko errabiatik erauzi eremu irekia, hots. DJ beltzaran bat hupatu zen halaber taulara:

– Orain Nachke didjeridooarekin, eta Ka-Ko, azantz elektronikoetan aditua. Hurbil zaitezte. Edariak ez ahantzi!

– Gustatuko zaizu –erran zion belarrira Sambak–. NDHko berezitasun ospetsua da. Migran-

teek puskiletan dakartzaten tresna ezberdinen nota zioneak sample eta bukleekin birziklatzen ditu Ka-Kok: izugarria da.

– Didjeridoo jotzaileak jartzen dira Baionako Bost Kantoien plazan, hotzak hotzari, hiriaren zainalde lobotomizatua iratzararazten dutela, eukaliptus zuhaitzaren azal lehorra karrankari. Lanetik landa zoraturik beha nagokie, hitz orduak eta betekizunak erabat bazterturik. Artean okindegia ixten da eta esku hutsik etxeratzen naiz, Lamdaren hira haziz. Bazauzu?

– Badakit zer den... Burtzoratzen nau didjeridooaren daldarak. Behin, boza pausatu nuen Nächkek eta Ka-Kok sorturiko melodien bizkarrean. Beharbada, zuretzat eta Posari ongi etorria eskaintzeko ausartuko naiz artista hauekin berriz aritzera. Horiekin pigmeoaren eresiak erraien zokotik ihes doazkit eta *griot* bat bihurtzen naiz. *I sing for my people* errepikatzen dut neurekiko: *Bike ankwa naza hobpkwala*.

Sigma konturatu zen orduan, elkarrekin eraman astebetean nehoiz ez zela Posa Ngaka bere hizkuntzan mintzatu. Ingelesez ari ziren. Deblauki. Jada mundua josten zuen mintzaira bakarra

bailitzan. Posak alaina arabierazko eta gaztelerazko eldarnio zenbait ezagutzen zituen, guztiak Kongo eta Alfajarin artean herentzian jaso altxor linguistikoaren ondasun. Sigmari engoitik pigmeo adiztegia kasko zokoan zartatzen zitzaion, eta Judith Butlerren potreta lehen aldiz ikusi zuen unearen harroaldiaren dentsitatekoa zen orduan pairaturiko txoke kulturala. Antzinako lotura biologikoa iratzarrarazten zioten biek: ez al ginen Lucia eta Tumaien haurrak? Genealogiak eguneratzen ote zituen generoak? Ez zuena neanderthalek *ama* orroatzen telebistetarako apailaturiko dokumentaletan? Norenak ziren amultsuki mugitzen zihoazen esku eta irri zozo haiek? Ez ote ginen Etiopia eta Eritrea ebakitzen zuten sarraski berdinetarik jazartzen, etengabeko bilakaeran higatzeko gu izate txiki, beltzaran eta Hollywoodeko ereduen arabera, itsusiok?

– *Bike ankwa naza hobpkwala*...

Tekila xurgatu arau plaka tektonikoen joera argi zitzaion: harritzarretarik lurrean edo gure haragietan huts egitearen arraildurarik zabaltzen ez baldin bazen, hiltzen gindoazen. Amodioa holtzarte horietarik bat zen, urratsa beste

bat, kanta azkena. San Andreako arteka. Nepalgoa. Somaliakoa. Auñamendien azpikoa. Globoa emendatzen zen gorputzen moduan, kraskatuz, hegiak gaindituz, sua, urakana, odola bezain gorri burbuilatzen zuen magmak ezpondak suntsitzen zizkiola, alor hiletan gero pirta-pirtaka muskilak ernaraziz, beti nekez, beti ahul, beti ikus ezin eta leher erraz. Bizitza ondorioz mirakulua zen, arrosa zuri bat, arantzakin bat, dolorezko gozamena.

Nächke eta Ka-Ko entseguetan zinpurtzen ziren. Txaloak. Heiagorak. Bat, bi, hiru... Sambak Londresko kideak aurkezten zizkion Posari, sofa gorrian auhertzen zela Sigma, izpiritua alha. Bere pentsamendu xehearen naifkeriaren kontzientzia zeukan. Ahalke zen: diruak eta lehiak kudeaturiko gizartean xoxolakeriarik ez zen zilegi, ironiaz, distantziaz, suminduraz eta gorakoitasunez higuintzekoak baitziren sentimendu bikoitzak. *Bizitza mirakulua da* marmaratzea ezinezkoa zen harreman merkantilisten giroan. Auhen, negar eta laido behar zen, estresa, egunerokotasuna hain zuzen oparia ez zela iltza genezan burumuinetan. Sekulakoz. Botereek ama-

eskolatik haste kriminalizatzen zuten betekizun dorpea zen bizitza, beharrunantentzat bereziki, madarikatze nazkagarria, debaldekeria zenbaiten gustuko, eskubideen gisa ematen eta arraiki kentzen ahal zen gauza txepel bat.

– *Bike ankwa naza hobpkwala*...

– Zer derasazu? Ez ote zara hemengoa?

– Ene naifkeria serioski aztertzea baimentzen didan perpausa dut murmuratzen. Pigmeoera batuaz.

Ile horaildunak bostekoa luzatu zion:

– Thita naiz. AEBetako Estatu Departamentuko agente berezia. Georgiatik nator. Gerla piztu zen han, Tbilisiko soldaduei ingelesa irakasten ari nintzaien bitartean. Errusiarren oldar militarrarengatik ebakuatu gintuzten. Kuwaitera eta gero Parisera. Londresera etorri naiz oraindik maite dudan senar ohiaren bisitatzera.

– Zein da zure arazoa? Sinestezina zait. *FBI: Missing* telesailetako pertsonaietarik bat zara ala? Barregarria da. Kontatzen baldin badizut, ene istorioa ere nahikoa zinematografikoa da, gertakari palpitante gutxiagorekin ordea.

Algara bana askatu zuten.

Basoak kliskarazi zituzten, txin-txin! Taula-dan didjeridooaren harpe zulo karraka ikara-tsuak ozen zebiltzan bulta hartan, gogoetaren abiadura markatuz. Ka-Kok makineria galanta programatzen zuen: bateria joaldiak, dunba eta baxuarekiko lerro musikalak edo itsas metaliko hotsak. Soinua zurrunbilo ukigarria baizik ez zen. Papoak kraskaraztear. Bihotzak ebakitzear.

Thitak oroimenen mihisea iruten zerraikan:

– Lau mila hil zenbatu omen dira errusiarren Georgiarekiko erasotik lekora. Gerla zurrumu-rruak baziren aspalditik. Gori herrian geunden. Urgentziaz itzuli ginen. Begira, poltsan dauzkat georgiar eta kuwaitar billete alda ezinak.

– Eta senarra?

– Gazteago batekin dabil. Ez dut ezagutzen. Separatu ginen, baina maite dut. Bi gerla baditut beraz nire baitan: Georgiakoa eta bikotekoa. Irri-garria da, ezta?

– Zergatik diozu hori?

– Erridikulua naiz. Bego. Texasko San Anto-niokoa naiz sortzez. Senarrarekiko aferak kon-pondurik, hara joango naiz segur aski. Haur ame-

tsa egiaztatuko dut menturaz, Rio Bravo ibai ertzeko ohorezko *border patrol* kide izatea alegia...

Zaflaz lehertu zen Thita. Zaldiak. Talkiwalkiak. Stetsonak. Zakur hamikatuak. Linea berdea zeharkatzen zuten izangabeak. Harmonika zirrista bat eta Emilou Harrisen *Here I am*: Sigmaren imajinazioa ixtaklok zebilen *border patrol* aditu baiko. Hargatik kopeta altxatu eta Nächke ikusi zuen, eukaliptus hodian buhatzeari uko eginez, kantarik kanta irakiten, Ka-Kok burdina zurizko haga meharraren inguruan bisak jaitsarazten zituela, Lapatxetako higamen atx- purrusken erorketa laburbilduz. Aborigenaren hotsa sudurretik zetorren, zintzurrean emokatu eta sabelaren hondoan amiltzeko. Emaitza uherrak NDHko barnea antsia primitiboaz hantzen zuen. Thita arraila ez zen isiltzen eta harroki amerikar pasaporte urdina erakusten zion Sigmari, edonon edozer egiteko dretxoaren ikurra bailitzan. Ile beltz faltsuekiko albinoa hurreratu zitzaien, Thita eskuarki gonbidatuz:

– Nire senar ohiaren laguna.

– Zorte on.

Nor zen zinez Thita? Espioia ala destinoa fantasmatzen baino ez zuen mitomana hutsa? Paranoiaren eta axolagabeziaren erdigunean kokatu zen Sigma, eszenatik zetozkion melodia heteroklitoetan bermatzen zuela arreta. Posa eta Samba sekretu bastatzen zebiltzan. Talde alimalea itseskatzen zen musikarekin, ezkel, joka eta besoak eihera zaharren antzera biribilketan.

– Lamda.

Ez zuen burutik kentzen Mexikoratu zela baleak ikertzera, eta han, aitortu zionez, New Yorkeko *chicana* jatorrizko Coatli biologoarekin biltzekoa zen, ez bakarrik ugaztunak otserbatzeko naski. Bat-batean jeloskeria laban batek larrantzi zion sabelpea. Harriduraren ezeztatzeko presaka irentsi tekilak barruak kilikatu zizkion, baina ez arras baketu. Ostatuaren hezean anartean bikoteak moldatzen ziren Nächke eta Ka-Koren joaldi zelestiarraren neurria mailukatuz. Estrukturalisten eredu onartuegiaren pegarra mila pusketan hausten zen Sigmaren oinetan, barkamendu eske bezala.

Eta Lamda.

Abwa pigmeo abeslariak keinuka deitu zuen Sigmarengana zetorren Posa Ngaka, soinulariak *Heart of my people* zatia garatzen zihoazenean hain zuzen. Jendaurrean zeuden amen batean. Posak orrazi melodikoa jalgi zuen eta Abwa sudur-boz arinaz umeak loak harrarazteko sehaska eresi batekin tematu zen. Didjeridooaren azantz lakarrak, apurtuak, ahulagoak egin ziren, desagertu gabe ordea, bizkitartean Ka-Kok Ali Farka Toure mitikoaren *Balafont* tresna azantzez azpiltzen zuela atzeko lerro teknotronikoa. Sigmak ez zuen nehoiz horrelakorik entzun: mugetan hara akuilatzen gintuen, labetik ketan atera melodia berria muinetan errotzekoa zen, grabatzekoa alaina gela elkor hartan estudioetako ekoizlerik balitz. Oilo larrua hazi zitzaion. Kantariek saioa bukatu zutenean, Sigma zoratua ondoan zeukaten:

– Urratu nauzue. Urrakoa naiz eta urrakoaz dihardut.

– Zuretzat zen.

Nächkek didjeridoo zaharra airez puzten zuen, matelak lodi. Ka-Kok errepettitta-ttintta metalikoak zinominokatzen zituen, gauerdiko

txori intzirilariak eta suge txistulariak. Bateria sakonak noten batasuna ohoratzen eta suntsitzen zuen aldi berean. Seattletik Porto Alegrera noiztenka amesten zen *balizko beste mundu baten* soinu banda zuen Sigmak belarriratzen: dailua eskuetan, elge irekietan erein arto transgeniko epaileen xifri-xafra zaintsuen erritmoa marka zezakeen, prefetak, legez kanpo uztea xede zuen laborantza ganbara alternatiboaren alde diru laguntza bozkatu zutelako auzitegi administratibora eramaniko Euskal Herri barnealdeko hogeita sei herrien urratsena, jagoitik negarreraino uzkailgarria baitzen Sigmarentzat *balizko beste mundu bat* izendaturiko musikaldia.

Dream Time.

Samba eta Posa NDHan galdu ziren. Tekila godaleta arradarazirik eta kontuarrari bizkarrez, «Fahir nauzu» auhenkatuz aurkeztu zitzaion batekiko solasa iruten hasi zen Sigma.

– Amerikarrek zangopilatu Afganistandik nator. Bidaia zaila egin dut. Talibanekin aurpegiak gorderik ibiltzera behartuak ginen. Hargatik, zetaren xendra ohia aztalkatu dut gizonez jantzirik. Bularrak oihal trinkoetan tinkatzen ni-

tuen eta kasik nehor ez zen zinez nintzenaz ohartu, kasik diot, Albaniako kostalde zurbiletarik arrainez mukurutu batel batean Adriatikoa igaro arte. Italiar lehor-zaintzaileek gabarra gatibatu ziguten eta Lampedusako uhartean, Gurutze Gorriaren egoitzan dutxa hartu nuenean, langile bat konturatu zen emaztea nintzela. Haren supitukiko nazkaz gogoratzen naiz. Bai eta nirekin etorri ziren kideenaz.

Arrain urrina oraino larruari josia zeukala susmatzen zuen Sigmak. Irriz ari zen. Hitz argiak zituen Fahirrek:

– Nola nahi duzu ni bezalako batek iraun dezan Afganistanen? Amerikar eta europar armaden presentziarekin egoera ez da hobetu, alderantziz. Ematen du Iraken daudela petrolioaren komertzioaren kontrolatzeko eta Afganistanek errauts zuria bihurtuko den landare debekatuz landaturiko eremuen ureztatzeko, terrorismoa borrokatu aitzakiaz. Ez nintzen ere sekula haur plantako gisa ttarrotu, ez bainuen aitak aukeratuarekin ezkontzeko asmorik.

Betaurrekoak alde orotara barranda zebilzkion niniketaratu zituen, mekanikoki. Londres-

tartua zen erabat. Bilo beltz labur-laburretarik ageri zen, ez hain aspalditik, kaskoa arrasatzen zuela. Lampedusako aterpetik ihes joan ziren lauzpabost menturazalek zenbait hilabetez Campaniako camorrak kudeatu jostun-workshop batean egon ziren. Nagusiak klandestinoekin lorian zebiltzan eta orokorrean langileak oro klandestinoen pare tratatzeko dretxoa zieten gobernuei eskatzen. Ez zuten iraun. Hondarrean behiala Ispahango merkatuan juntatu koadrila alegera Roma Ostiense geltoki abandonatura heldu zen.

Han zegoen, biluz eta arrotz, gerla korapilatsuek odoleztaturiko eremuak oinezkatuz Europa-desiraz elkar laztantzen zuketen migrante parrasta batekin: Ugandako Mamasayren ezagutu zuen bertan, eta batera ehun tonako frigorifikoaren atzealdean pasatu zituzten Frantzia eta Ingalaterrarako mugak, Sangatten gaindi. Erroma utzi baino lehen ordea, Prenestinako Fortean egun ederrak gozatuz, sendatu, osatu, sosegatu eta berritu zirela salatu zion Sigmari:

– Zer da Forte hori?

– Neofaxistak joka etortzen zitzaizkigun Roma Ostiensera. Rom delakoak partida izanki,

hiltzeraino kolpatu zituzten haietarik hamar, hala baitzegiten ohituraz *Cavaliere* berria botereratuz geroztik. Sokorritzaileek, ondorioz, emazteak eta haurrak ospitalera garraiatu zituzten. Haietan ginen Mamasay eta biok. Prenestinako Forteko squattean bizi zen erizainak berarekin eraman gintuen, piskola gintezen. Bi asteetan imajina ere ez genezakeen mugimenduaren lekuko izan ginen: ardotegia bazen, tea edateko lekua, erretzekoa, sukalde sofistikatua, labirinto moldean lur azpian hedatzen ziren tindaturiko hodiak, argi artifizialez trinko, merkatu bio bat larunbatetan eta edonoiz mahai-inguruak, kontzertuak, ikusgarriak. Gutxirekin gindoazenekin geunden.

– Interesgarria.

– Hori baino gehiago. Badakizu benetan uki ninduen gauza bat ere aditu nuela Fortean. Italiarra ulertzen nuen ordukoz. Ostiral arratsa zen. Erromako *pride* prestatzen ari ziren tira ahala eta ez huts egitekotan jakizu! Gure herrietan aipatzen ez diren gaiekiko mintzaldiak hurrupatzen nituen, feminismoaz, lesbianismoaz, transgenderismoaz. Hasieran beldur nintzen baina

nolabait bidaia gizonez apaindua egina nuenez, transbeztituen zerrendetan kokatu nuen neure burua, aditzok erraietan ereiten zidaten samurtasun olde zozoa gordetzen saiatuz: ongi nintzen. Gau hartan Toto famatuaren monologoa errepikatzen zuen antzezle trans bat bazen, zaintsua, umoretsua, azalekoa baina ahalkerik ez zeukana. Mamasay, Ypsi beltzaran misteriotsua, Steinheim eta laurok tabernan geunden artista delikatua hurreratu zitzaigunean. Sentituriko emozioaren berri eman nion doi-doia menderatzen nuen lexiko urriaz. Algara kristalinoz askatu zen eta kopetan musua laxatu zidan. Ez nekien orduan zer ginen anaiak, ahizpak, aitak, arrebak, amak edo alabak ala migrazioak arras bestelakotu nortasun ezabatuak.

Sigma agor zebilen. Didjeridooa aldiz dildil. Ka-Kok makinak ez zituen, ez begiaz, ez eta behatzaz kitatzen. NDHko Compton Courtera husten zen atea bultzatu zuen norbaitek. Erreinu txikia urrietan laztantzen zukeen haize hegoaren perfumearekiko airaldia sartu zen, Sigmaren zerebroko meandroetan punpulatzen zihoan izen nahaspila harrotuz: El Ejido, Melilla, Forte, Alfaja-

rin, Bamako, Ceuta, Sangatte, Prenestina, La Gloria, Getaria, Lampedusa, Kabul, Alacant, Zuberoa, Bagdad, Jaunde, Erroma, Teotihuacan, Lamda.

Mugikorra sakelatik jalgi zuen. Mezu bat bazuela iragarri zitzaion. Irakurri manua zapatu zuen: *DFn nago, etorri, ederki gabiltza*.

Posaren itzala mahai izkinan nagitu zen:

– Lamdaren berriak?

– Bai, baina ez dit ohikoan bezala maite nauelakorik idazten. Kezkatu beharko nukeela uste duzu?

– Utzi ezazu bakean, hark uzten zaituen lez...

Aise ari zen Posa, Sambarekin zegoen jadanik eta ez zitekeen bera bezain jeloskorra. Baina agian pigmeoak arrazoi zuen: ez zen maitatzen zein bizitzen ahal norbera eta besteekiko distantzia apurra zaindu gabe. Gogoetaren arrarokeria epeldu zion Posaren aire kokinak:

– Eta ez al duzu gaua Fahirrekin bukatuko? Klandestino pare xarmanta osatzen duzue. Segitu zaituztet... hantxetan nengoen.

– Indigenen jakitate intuitiboak fundituko nau egundainokoan. Posa, bihar San Pancrasera gi-

datuko nauzu, ez naiz galduko zurekin, eta Sambaren pisuan aurki dezakegun pigmeo kantarien grabaketa bat kopiatuko dugu, mundu larrutuko highwayetan barna autoz ibiltzean gailuan lerra dakidan, gure arteko hari mineralaren erantzule.

Urrikizko denden atarietan aberatsenek abandonatzen zituzten zakarretan hautatu rapero jantzitan ihamauskatzen zen Fahir, modaren uztarrian: atorrak ezkutatzen zizkion galtza zabalak eta kasketa ortzadarduna zeramatzan. Londrestar izaera oraindik erraza ez zitzaion arren, arrunt ahantzia zukeen, urte eskasa zuela, gorputza debekuz azpildurik zebilela Kabulgo karrika zitzikatuetan, fedezko legearen aurka, maitale bila. Gerla, zirika morala eta norberaren ukamena baino azkarragoa baitzen alaina urteak joan arau edukiz aldatzen zen desira.

– Ez amore eman.

– Zatoz.

2
CHALCO

Y si quieren saber de mi pasado
Es preciso decir otra mentira
Les diré que llegué de un mundo raro
Que no sé del dolor, que triunfé en el amor
Y que nunca he llorado

JOSE ALFREDO JIMENEZ

–1–

Huitzilin Hoteletik Reformara jalgi zen, goizean goizik. Bezperan Mexiko DFn lurreratu eta behialako mezu sibilinoaz Lamdak azpatu eran, Benito Juarez aireportuan taxia hel egin zuen:

– Hotel Huitzilin por favor. Calle Río Lerma.

– En Cuauhtemoc?

– Ya.

Mercedes zuri-horailaren gibeleko kofrean ezarri zion bizkar-zakua gidariak, karkaraz. Gogoaren goibela astinduz Mexikoko egonaldia ongi hasten zitzaiola pentsatu zukeen Sigmak. Irrati komertzialaren soinua emendatuz, abiadura beldurgarrian gidatzen zuen txoferrak. Ehun kilometro orduan zebilen, bidaiariaren baitan beldurra haziz, bereziki mugikorra belarriratzean. Funtsean taxiak noranahi eroan zezakeen; berdin zitzaion, muga bat gehiago pasatzea erdietsi baitzuen, Posa Ngaka eta Fahirren antzera.

Zirkulazio hantua zen Mexikoko gauetako abenida argiztatuetan. Munduko hiririk ukaezi-

nenean zegoen, jendetsuenean, mugimendutsuenean, lanjerosenean ere bai, Baionako Elkar megadendan hostokaturiko gida-liburuan irakurriaren arabera. Europarrek ez omen zuten sekula bakarrik ibili behar. Ez ote zen gauza bera erraten megapoli guztientzat?

Taxilariak Huitzilingo harreraraino lauhazkatu zuen. Benito Juarezko aduanako bisa kontrolgunean, bi hilabetez geratzeko baimena bermatu ziotenetik beste askok bezala *México lindo y querido* xuxurla zezakeen, deusez axolatu gabe. Londreserako menturaldiak, migrante moduan ibiltzeak, *dougouma sira* deituriko lurreko xendretan eskuak hutsik zebiltzanen lekukotasunak jasotzeak barnez itxuraldatu zutela aitortzekoa zukeen. Gainera Lamda berriz aurkituko zuen. Aupa Kalifornia Behereko eta Yucatango lehorretako baleak, banator zuengana, Durangoko erleak, Chihuahuako txintxilak, banatorkizue...

«Astiro arizan behar da ziminoa kaiolaratzeko, amodioa iruteko bezain». Bamakoko Toureren ahotik entzun zuhurritza errepikatzen zuen, pazientzia eta iraupena otoiztuz. Sigmak alabai-

na inozentzia eta zoramen soberaz brodatzen zituen bere globoarekiko harremanak.

Huitzilingo andere beltzaran panpoxa elemen zeukan.

– Erreserbatua dut.

– Perik lagunduko zaitu maleta gelaratzen.

– Bizkar-zaku arina baizik ez daukat.

– Hau utzi digute zuretzat. Igogailua har dezakezu, nahi baldin baduzu. Bigarren estaian da 201. ganbara.

Lamdaren idazkera bihurriaz jabetu zen paketea ahurreratzean. Behatzez uki eta puska franko bazeramala konturatu zen. Lodia baitzen. Eskaileretan gora, Sigmak galdeak zeuzkan kaskoan kolpeka: Zergatik ez zen Lamda bere bila etorri aireportura? Non zebilen? Norekin marmaratu eta giltza sarrailan sakatzean, Neanderthal aroko bihotzaren harpean etorkizunarekiko izuaren ziztako garratza errotu zitzaion. Ez zen baitezpada fidela, Londresen Lamdaren izatea ahantzi baitzuen arraiki Fahirren besoetan, baina maite zuen Lamda fideletan fidelena zela imajinatzea.

Ohe kantoian zaintsuki ireki gutun-azalean dirua bazen, hamar mila peso, aireportuan jada eraiki zituen bost mila haiei gehitzekoa, eta eskuko urrutizkin bat, afera osoa esplikatzen zion paperean troxatua. Lamdaren gomendioak segituz halaz Sigmak aski zuen biharamunean egingo zioten deia igurikatzea: azkorrian hitzartuko ziren, anartean Coatlirekin Churrubuscoko natura laborategian zegoelako. Tristatu zen baina zer beste egin zezakeen jagoitik kuttun zitzaion hiri arrotzean, hamalau oren luzeko hegaldiaren ondoko ordu aldaketaz arras unatua zelarik.

Reformako eguzkiak indartsu jotzen zuen, bulego-etxe gorakoien hegietako berina beltzak distiraraziz eta arteketan ortzira tirriatzen zuten jakaranda arbolen lilien ubeltasuna ukigarriki azpimarratuz. Bi aldeetako espaloietan jendeak bazebiltzan, ataxekeizak eskuan, egunkariak besapean, presatuak, Parisen, Tokion edo New Yorken bezala. Aferagileok doi-doia gelditzen ziren, zapatak nistatzen zizkieten oaxacarren edo *atole* haguntsua plastikozko basoetan saltzen zuten chiapastarren txiringitoetan.

Amerikar enbaxadaren azpian zaindari armatu ugari zegoela ohartu zen Sigma eta burdinazko barrakiaren maldan, zutik, bi urteko alabarekin amultsuki bildua, azteka ondoa zitekeen ama etsitua begimendu zuen. Eskaleak ziren. Indigenaren madona dolentearen itzalak gatibatzen zuela, berekiko zerrasan:

– Herrestak alfertzat hartzen dira, bankuek eta IMFk bortizki daramaten egiturei egokitze egitasmo desjabetzaileen biktima lehenak direlarik. Frantziako lehendakariak Dakarreko Unibertsitateko mintzaldi laidotsuan Afrika historiatik kanpo zetzala deklaratu zuen; gauza bera erran zezakeen Asiaz eta Hego Amerikaz, ultraliberalen mundu mailako merkatuaren legeari ez zirelako moldatzen, pandemia eta nehoiz ordainduko ez zituzten herri zorrengatik.

Tua irentsi zuen, mikatz.

Mexikar argi-zirrintaren bozkarioaz erotu zen Sigma. Nehoiz ez zitekeen horrela iratzartu. Hoteleko patiotik txori arraro eta berezien txioak jazartzen ziren, iturriaren hots zurrustatsuarekin batera. Sinfonia polifoniko osasuntsua eskaintzen zioten suharturiko eki durduzatiari. Ohean

etzanik, soinuak seneratzen saiatu zen Sigma, hegaztiak bata besteari mintzo zirela, elkar akuilatuz, lelotzeraino. Une hartan hegazti bizitore haien izenak, latinezkoak barne, ezagutu nahiko zituen. Magikoa zitzaion. Bizkitartean polizia autoak, sirenak ozen, kotxe trastuak, autobusak, peseroak, taxiak, kamioiak, motozikletak gosaioki bazebiltzan. Zarata mekanikoa lainotzen zuen hotelaren pareko dorre modernoan iraizten zuen argiak lehenik, eguzkiak gero. Haize buhakoek eukaliptus zardaien hostoak zilar eta auhen zetxizkaten.

Egunaren altxatzea bizitza bizigarriaren zartaketa zen Mexikon.

Amerindiar anitz gurutzatzen zituen. Txosna batean *atole* godaleta manatu zuen. Txokolatearen gustua, esnearen eta arto irinarenarekin oparoki ezkontzen zen. Cihuacoatlen oparia zela zioela, Insurgentes Reformara isurtzen zen lekuan, berunki iluna zekusan. Indio lerdena zegoen gainean, punalean gezia jaurtikitzeko prest eta luma-koroa buruan. Karrika zeharkatu zuen: Cuauhtemoc zen, arranoez eta lehoiez inguratua.

Tenochtitlan defendatu zuen errege azteka zela irakurri zuen tailuaren oinetan *mocozticaehuayotlaquen noichcaxochiuh, huhquin quetzalli pepetzca* idazkia berretsiz. Cuauhtemocek, oldartze galduaren arrasto keztatuak eta Chapultepec aldetik metropoliaren ortzimuga tapatzen zuen hedoi kutsatuaren presentzia deitoratzen zituen. Aztekaren aztaletara ekaitzak ekarri jakarandaren bihotz erako lili zehargi bi sakatu zituen moltsan, Lamda, Posa eta Fahirren argazkiekin kokatzeko.

Zelularrak jo zion.

Eskukoaren ordez, zelularra hitza murdukatzea gustatzen zitzaion Sigmari, gaztaroan itsuki irensten zuen Mulder eta Scullyrekiko *X Files* telesaila gogora zekarkiolako. Cuauhtemocen harrotasun bizihaztuari beha zegokion, Lamdaren telefono deia onartzeko botoiari sakatu aurretik.

– Non zaude?

– Cauahtemoc daukat begimen.

– Hitzordua dugu Zocalo kantoiko Majestic Hotelaren zazpigarren estaian. Etorriko zara?

– Taxia hartuko dut.

– Hobe duzu Benito Juarez kaletik oinez joatea, Bellas Artes eta Dorre Latinoamerikarraren artetik. Ez zara hain urrun. Hogei minutu, gehienez.

– Laster arte... maitea.

Lamdaren boza linboetan galdu zen, samurtasunik gabe. Isiltasunak Sigma zinez kezkatu zuen: zer gertatzen zitzaien? Intuizio lakarrak irauli zion kolkoa. Erantsi zuen, monologoan:

– Lamda urtzintz eta ni sukarrez...

Horrelakorik ez.

Auto mentsek zekarten herioa desafiatuz trabeskatu zuen Reforma. Etxebizitza alimaleen atariko egunkari, gozoki eta postal saltegian hara-hona zihoan andereari zuzen zebilenez eskatu zion, irriak elkarrizketa ederresten ziotela:

– Bai. Galda ezazu urrutiago. Mexikon hiru aldiz bederen galdatu behar duzu, nahi duzun lekura heltzeko.

Kazeta txiringitoan, *La Reforma* izparringiaren metaren aldamenean dilindaz zeuden kagula beltzez mozorrotu Marcos subkomandantearen potretek adimena ebatsi zioten. Bat erosiko zuen alabaina, nola ez, herrian abandonatu kole-

gak gutiziaz gurintzeko adina: ez zuten sinetsiko!

Ideiak ideia ezabatzen zuen Mexikon, ezen jadanik haia-haia baitzihoan, haur, emazte, gizon, eskale lerroak urratuz: zaldiekiko polizia sonbreirudun bik Benito Juarezen mausoleoa zaintzen zuten, Ludwig van Beethovenen oroitarria loreztatua zen beti, Agustin Iturbide enperadorearen sorretxea plaka batek ohoratzen zuen, Madero kaleko faienza urdinezko fatxadak ustekabekoak ziren, Gandhi liburu-denda eta Mixup musika saltegiak zabalik zeuden, Borda izeneko bitxi-denda halaber. Korrika arinaz, zocalo karratura punpatu eta inguruetara so zirimolatsuz biribilkatu zen Sigma.

Itsasoaren heinetik bi mila metrotan izateak idortu zintzurra hezetu zuen ur botila bat hustuz. Goratasun horietan agudo akitzen zen, Lamdak bidali mezuak zioenez, muinetako minaren kentzeko erremedio bakarra tekila basokada zelarik. Garaiz zebilenez, plazaren itzuliaren egitea erabaki zuen: espainiar urrezko mende eta virreinatoko arkitektura astuneko bastimenduz setiatua zen, *axis mundi* gisa, kristorena baino handiagoa

zen bandera mexikarra zeramala erdian. Haga luzearen peko juntan gazte indiar bat zetzan, burua akordeoiaren gainean pausaturik, lo. Gaua menturaz mariachiekin jostatzen higatua zuen, Huitzilin Hoteleko publizitate orrialdean goraipaturiko Roma auzuneko *covadonga* kantinaren antzeko ostatu batean demagun.

Madero kalearen puntan Majestic ospetsuaren sarrera susmatu zuen. Bazterrak arraposki miazkatu zituen: barra neurrigabea, zeta gorriz estali jargiak... Atenporala. Jack Kerouacen *Mexico City Blues*-en denborakoa. Kontuarraren bestaldeko langile unatuari amoinatu eta aszensorea hortxetan zeukala entzun zuen. Egoitza hanpuruseko apainduraz beztitu indigenak ireki zion igogailua. Gailurrean bezala zegoen, ziztuan, kafetegiko leihoetarik begira: turistak, poliziak, MP soldaduak, nagiak, eskaleak xinaurritzen zihoazen beherean. Karrika lau eskas, Cortez odoltsuak azteka buruzagiak masakratu zituen *templo mayor* elizaren hondamendia zekusan. Zerbitzariak kafea zekarkionean, oihuak, garrasiak, populu menderatuaren negarrak hautematen zituen.

Mamasayk Londresen kontatutakoaz oroitu zen Sigma: Lampedusa edo Kanarietako biztanleek hilotzak hondartzetan hedailotzean ez zuten gehiago kasurik egiten, lehen aldietan barnez irabiatzen ziren arren, baina zegoeneko Portopalon adibidez, arrantzaleek noiztenka sarera eta berehala aurtikitzen zituzten: isiltzen ziren urak lau urtez lehorreratu ustelki hatuak begimentzean.

Malkorik ez zen gehiago.

Ukaraia zimikatu zuen.

Bat-batean algarak.

Coatli eta Lamda zitezkeen, zuri-beltzez jantzi mutilen eta bisitari uholdearen goizeko argiaz bustirik. Alfajarinetik Sohorainoko eratorria ardatz, Kabuldik Sydneyrakoa eta Iquitostik San Franciscorakoa amesgaizto bipil gisa izpirituan garatzeko askatasuna Sigmari zilegitzen zion bakartasun zantzua zirriborratu zuen. Mahaitik altxatu zen haiengana.

– Aspaldikoa.

– Bidaia ona egin duzu?

– Airekoaren pantailatxoan Savannah River, Athens, Troy, Alabama, Mississippi, Florida,

Texas harilkatu ditut, eta zoragarria zitzaidan Mexikora iristea, lurreratzean oren batez hiriaren gainetik hegaldatzea.

– Pozten naiz...

Lamdaren hoztasuna senti zezakeen, Sigma bigarren aldiz amerikar kontinentean izatearen atseginaz ari zela barra-barra. Egunerokotasunean urtuak zituen parekoak, garbiki; baina bost axola. Soa zocalora ezkeldu zuen, jakaranda lili ubelak barreiatzen zituen haize buhakoetan mexikar bandera kulunkari segitzeko. Zerua urdina zen, ekialdea laino gris mehatxagarriz mukuru azalduagatik.

Coatlik hormaroa gezatu zuen:

– Zutaz asko hitz egin dit Lamdak. Plazer dut zure ezagutzea. Mexikoko taxien dasta ukan duzu beraz barda?

– Bai eta nola!

– Chichen Itzak-etik nentorren batez Jesus Guzman Gutierrez deitzen zela zioenarekin egin nuen aireportutik etxerako kurtsa. Indigena zen eta Tenochtitlan aurrehispaniarra aipatzen zidan, urmael gorakoi hartan bizi bailitzan orain-dik. *Ciudad azteca* aldean kanal paseagarri zen-

bait geratzen dira dagoeneko. Xochimilcora noiznahi eroango ninduela segurtatzen zidanean bukatu zen gure hizketa aberatsa.

– Gidari isila neukan nik. Ez nuen mintzatzeko trenpurik. Espero nuen zuetarik bat Benito Juarezen izatea, baina manuak ezberdinak ziren.

– Badakizu –zerrasan Lamdak–, bart arratsean laborategian geunden gulf stream korrontearekiko otserbaketaren uztak analizatzen. Datorren astean kongresua dugu Berkeleyko unibertsitatean.

– Badakit.

Majestic Hotelaren kafetegitik zocalora estiratu zituen hondo hezeekiko ninikak. Sigma egiaz amodiotan malerusa zen, edo ez zituen sentimenduak egokiro maneiatzen; bekatu gabea ere ez zen, Lamdak gaitzetsiriko abentura lanjerosaren karietara Posa Ngakarekin Londresera abiatu eta, han, Fahir afganistandarrekin altermaitasunezko ozeanoetan itotzear ausartu zelako.

Hargatik, hori nahi zion Lamdari salatu, Compton Streeteko NDH tabernetan ikasi zuen dolorearekin, makurrarekin, minarekin ipularra

salbatzekoa zela Butlerrek teorizatu bizitza bizigarriaren mihisea derrigorrez harilkatzekotan. Haustura minerala zuen gogoko, ukitzen eta uhertzen zion papo aldea, deustasuna, deuskeria halaber zergatik ez, big-bang eta dun-dun, astia adina hats hartu eta marmaraz zebilela:

– *This is my livable life*.

Kikera zurbila ezpainetaratzean Coatli ohartu zen zerbait oker zihoala Sigma eta Lamdarengan. Permiaroko masa suntsiketaren mendekua ustiatuz aurkeztu zen:

– New Yorken sortu naiz. Ama mexikarra dut eta aita Guatemalakoa. Gloria Anzaldua bere liburuetan ari den maneran mintzo naiz, spanglish batuaz hots. Edo Suzie Bermudez pertsonaia izugarriaren moduan, ingelesa eta gaztelera tartekatuz. Hainbat jende horrela zinpurtzen da munduan zehar ezta?... Lamdak agertu didanez, euskaldunek berdin, frantsesezko zein espainolezko aditzak perpausetan errauskatzen dituzue mila arrazoirengatik, presa, alferkeria ala batzuetan urguilua. Planeta bluiaren azalean gabiltzanok hizkuntzalari prestuei higuingarri zaizkien pidginak dauzkagu sabaietan.

– Mugarik ez baitugu.

– Eiki, ez dugu eredurik, ez dugu generorik, ez dugu aberririk, aberastasun finko eta gerorik ez dugu, ez gara unibertsalak, aniztasuna dabil unibertsaltasunaren haritik, ez bakunkeria, are gutxiago europar ideologoek zehazturiko gizon zuriaren superioritate boteretsu iraingarria.

– Konponduko gara.

Sigma baikor zen.

Lamdak eta Coatlik jada osatzen zuten bikotea ezereztatzeko ez zen borrokatuko. Zer zuen bada Lamdak mutur? Malenkoniaz zurgatzen ari zena? Zer pasatzen zitzaien? Zergatik ez ziren elkar maite zuten jendeak gutxienez itxuraz zoriontsu? Gurutze Gorriko artatzaileak nehoiz iristen ez ziren guduka zelai lubakitsua ote zen gorputza, arima, oina, urratsa, betekizuna? Zer zen ondikotz barneraturik generaman maitasunaren ideia burges lotsati hori? Lana eta jabetasuna bezala, bikotea abolitzekoa zela ebatzi zuen Sigmak, Amerikak jadanik gogoeta-pentze-berri antzera irudikatzen zituela.

Destinoa garraiatzen aski lan zeukan eta ardura disko gogorrean grabatu zati mardulak gal-

tzea agitzen zitzaion. Makinaren ahaztura ondorioz, liburuko kapituluak berridazteko eta aske jarduteko aitzakia zela uste zuen. Langabeziak aurreiritziak eta ohiko pentsa-ereduak astintzeko beta zemaion, langabeziak, kontinente eta zerupez aldatzeak, ohaidez kanbiatzeak bezainbat.

– Zein da gure egitaraua?

– Bazkaltzera joango gara –hasi zen zaintsu Lamda– Zona Rosako Fonda El Refugio jatetxera. Eta gero Chalcon dugu hitzordua Coatliren kusiarekin. Gero gerokoak...

– Nola gerotik gerora ibiltzean irabazten dugun... Axularren erranaren nahaspilatzeak bozkariatzen nau Majestic Hotel honen zazpigarren estaian.

– Utz ezazu Axular bere zorriekin bakean.

– Errazu hitz bat eta...

Maderora jaitsi ondoan, mutu alaina, Coatlik taxi zuri bat geldiarazi zuen besainkaz. Emazte bat zen gidari. VW hertsiaren gibeleko ttottogian tinkatu ziren. Atzikusgailutik dilindaz zebilen Guadalupeko ama beltzaren girgila eta autoko giduina artile sintetikoz hornitua zen:

– Liverpool kalera?

– Bai.

– Norabide bakarrekoa da Liverpool. Biarritzetik hurbilduko zaituztet... Ipsilo naiz. Mexikoko berrehun mila txofer *autorizados*-etan kontatzen diren ehun eta berrogeita hamar emakumeetarik bat. Jakizue ez dela erraza guretzat... Senarrak utzi ninduen, bi haurrekin. Frantsesa irakasten nuen, baina irabazi urriegia nuenez, taxilaritzari lotu nintzaion.

– Gustatzen zaizu?

– Gehienetan hiria ukigarria zait. Reformatik Zocalorainoko zirkulazioa blokatzen zuten Obregonen aurkako manifestaldien garaian, aldiz, desastrea zen. Hiru hilabete iraun zuen protestak. Normalean egunero hamabost bat kurtsa egiten ditut eta orduan hiruzpalau baino ez... Jorgerekin bizi naiz orain. Hura da, lanean naizenean, semeaz axolatzen. Badakizue, ez naiz gaizki usatua: Nezahualcoyotlen hazi ninduten, hamaika haur ginen eta ahizpa bi dauzkat Chicagon *de mojadas*.

– Estatu Batuetan?

– Denen ametsa da. Gauetik gauera loditzen doan hiri pulpo honetan jardutea ez da baitezpada gozoa. Teotihuacan bisitatzera eramango zaituztedanean Ecatepec erakutsiko dizuet, bostehun pesorentzat. Dei iezadazue. Hara nire kartatxoa.

Sigmak Ipsiloren zenbakia zekarren papera plegatu zuen.

Teotihuacan hitzaren musikalitateaz gozatzen zihoan unean 2005eko Ceuta eta Melillako gertakarietan tirokatua izan zen Fily Dembele hogeita bost urteko maliarraren izena zirristatu zitzaion kasko zokoko meandroen tepotik: ez al diguzue ezer barkatuko, hustukatzen zion gaztearen espektroak, oraino ere tuz, laidoz eta lardaskatzen gaituzten alanbreez eskertu behar zaituztegu ala?

Betazalak astun zitzaizkion.

Sigmak ez zekien zer agitzen zitzaion eta, baketzeko mantra zaharra bailitzan, Teotihuacan-Teotihuacan-Teotihuacan zerrasan.

Lanzinanteki.

–2–

Taxiak bidonville-aren sarreran aurtiki zituen.

– Urrunago ezin –esku etsia mugituz murmurikatu zien.

– Baina?

– Lanjerosa da. Ez dakizue non zaudeten ala? Ebasleak, beharrunantak, zorrizakuak, trastuak eta inutilak hor bizi dira. Ez dut hiru atzerritar leku hauetan zitzikatuak izan zirelako ardura eraman nahi. Hirurehun peso.

Coatlik ordaindu zuen. Txoferraren kokotsean beldurra irakurtzen zen. Beso gaineko ileak eguzkitan zut-zuta zeuzkan. Burua ezkereskuin balantzatzen zukeen.

– Kontuz ibili.

– Norbait etorriko zaigu!

Lamdaren arrapostuari muzin eginez errautsaren ziuntaz eskapaturiko taxilaria ez zen deusez segur: toki galgarria zen Chalco, fama txarrekoa. Hirukote trauskilaren destino latza ahantzi zuen, auto zuri-gorriko irrati kraskalarian Benito Juarez aireportura norbaiten xerka ernatze-

ko deiarekin, ez baitzuen larrugarri lekizkiokeen burutazioetan emokatzeko astirik.

Batere ez.

Txabolerriko bortan zeuden. Coatliren lehengusua hurbilduko zitzaien, hala espero zuten behintzat. Hausnarrean zebiltzan. Chalco, horma grisaz setiatua, xeila metalikoaren bestaldean garatzen zen beraz. Karrika zikin batek behineko herrialdea erdiz erdi urratzen zuen. Haur korrokak gehiegizkoak ziren, bai eta amen larderiazko orroak eta Delicados zigarreta merkeak hortzetan, egoitza doien maldetan kuzkurtu gizonen karkara gordinak.

IMFren eufemiaz ari zen Sigma berekiko:

– Mundua teilatu sail anonimo kulunkariz, sasi tzarrez, xendra likitsez eta bidegabeko mugaz estalia da. Prekarietatean oinarritzen da naski, multzo txiki eta aberatsak bizimolde oparoaren betikotasuna zein unibertsaltasunaren eredua mediatizatzen duen bitartean. Ondorioz, txaboletan amesten da ultraliberalismoak finkatu nonahikotasuna. Zor infinituaren hesietan amildurik gagozkie.

Erantsi zuen:

– Noiz uko egingo diozu bada ura ezpataz ebakitzeari?

Arroztasunak erraiak erretzen zizkion. Fonda El Refugio jatetxeko elesailak oroitzean uhertasuna txertatu zitzaion sabelaldean. Ez zekien zuzen nor zen, baina funts gabean eta zalantzak uxatuz Coatlik hitza harilkatu zuen:

– Ez da erraza naizena izatea sortzez chicanoa izanik. Guadalupeko ama beltzarenak ez baldin bagara, Templo Mayorko sarraskitik landa Cortes odoltsua Tenochtitlanen konkista garaian, nahuatlezko idatziak gaztelerara itzultzen lagundu zion Malinche haren haziko higuingarriak gara. Traidoreak. Salba ezinak.

– Gaueko ekintzetarik sano etxeratzen den gudariaren bakea sustatzeko gaude, orokorrean, haurrak sainduki eta herritarki hezteko, sukaldeaz axolatzeko. Gizarteak hipersexualizatuak dira, lantokietako goizetako trikaldietan ez da sexuaz besterik aipatzen, komertzio emankorra da eta, noski, generoak nahasten baldin badira, bakartasuna eta lotsa barreiatzen zaizkigu. *Bego gizona gizon* diote, eta labankatzen dute: abereen arimarik ez bekigu arrima.

– Sigma... Otoi.

– Ez dea hala? Lamda, zer uste duzu zuk? Erraza edo zaila delako ezkutatzen duela batek, demagun, bere sexuera? Ghettoetan salbu, eta eskerrak ghettoak badirela Miarritzen, Donibane Lohizunen, Donostian edo Bilbon bizitza biziga-rriak iruteko; gure kenteetakoak ikusezinak dira. Nor da plazara jazartzen zinezko identitate mal-gua argiki aitzinatuz, literaturan eman dezagun, edo musikan? Bihi bat ez. Bazaizue?

– Harritzen nauzu, Sigma –artekatu zuen Lamdak–. Badu jada urtebete elkarrekin garela, eta ez zara sekula gai horretaz hain gardenki mintzatu. Generoekiko neutraltasuna aldarrika-tzen, alderantziz, bai. Neutroaren goresteak sexu-harremanen ukapena dakar, eta horretan ez nator bat zurekin. Badakizu. Ez dut konpreni-tzen zerk bultzatzen zaituen, gaur, bestalde inte-resatzen ez zaizun alor horren jorratzera.

– Tekila hurrupatzearen emaitzetarik bat da.

– Pulquea sabairatuko duzunean orduan, da-torren pridean parte hartuko duzula iragarriko diguzu?

Coatli Sigmaz trufatzen zen samurki. Zintzurrean gora xinaurri herronkak bailiran igotzen susmatu zituen elesailen hotsek harritzen zuten. Sigmak haritik harira jarraitu zuen mentalki: Europako edo Ameriketako leku zenbaitetako posibilitatea zen alabaina oinarrizko nortasunaren deklinatzea, eta oraino ez toki guztietakoa. Baina zoaz zu Indian, Senegalen, Iraken, Katangan, Iranen, Txinan perpausa azaltzera; itzelezkoa da, joak, mutilatuak, hiltzera kondenatuak eta mehatxatuak baitira heterosexismoaren elge balizatuetarik kanpo dihardutenak. Larrualdiaren eredu ezberdinaren aldeko jihad astunetan zebiltzan Fahir, Parvis, Leila nahiz Burhan.

– Hitzek ez naute izutzen.

Coatli komuneratu zenean, Lamda eta Sigma bekoz beko aurkitu ziren.

– Sigma, barkatu, bukatu da gurea.

– Horrela?

– Bi hilabeteotan gauza franko agitu da. Coatlirekin ibili naiz Yucatango itsasoetan balea urdinen ildoetarik eta gero Guerrero Negron Kalifornia Behereko lehorretan. Londresen zinen Posa Ngakarekin. NDH ostatuko zoramenetik at,

Fahirrekiko gau galanta txirikordatu zenuela jakin dut. Garesti ordaindu espioiak baditut zure kukuzkatzeko. Ez zaitezela goibeldu. Onartu iezadazu Coatli. Damu dut zu honaino jinarazirik.

– Konponduko naiz. Ongi nago Mexikon... mila tekila xortekin.

– Eta datorkizun pulquearen gustuarekin?

– Prefosta.... Ba al dakizu zenbatetaraino pozten nauen noizbait bederen ezinbesteko maitasunaren berotasuna zurekin preziatu izanak, hamabi hilabete baino iraun ez duen arren?

Ehizaturiko baleak askatuko zukeen ur xirripa indartsuaren pareko buhako bi aireratu ziren Sigmaren mateletarik, batetik Coatli Fonda El Refugioko jangelara itzuli zelarik eta bestetik Chalcoko kihilaratu zirenean. Bihozkadak gaizki bukatzen zirela zioen erdal leloaz gogoratu zen: *les histoires d'amour finissent mal en général...* hasperen bikoitza.

– En général...

Astotik idira jauzika zihoan Sigma. Arintasun sentsazioaz hantu zen Lamdaren aitorretik lekora. Libre zen, libre, libre. Eta txabolerriaren atarian alde orotara barrandaz zegoen, solei: tripak

hantuz orgak bultzatzen zituzten gizonezkoek burdinazko zarrailua irekitzen zuten. Coatlik eiki bazekien zertan zinpurtzen ziren:

– Zakarrak eta trapuak bilduko dituzte. Orain-dik irensgarriak diren jatekoak. Plastikozko botilak. Edari kanetak. Egur puskak. Arropa zaharrak. Hautatu, zenbatu, garbitu eta birlandurik saltzeko, merkatuan sartzeko eta horrela peso apurrak sakelaratzeko. Pueblan nintzela, unibertsitatean hitzaldia eman eta afaldurik hotelera nentorrela, ilunkiak segika sumatzen nituen. Jakizue ez nintzela fida, baina zatarlariak zirela ohartu nintzen. Hogeita lau orduz zabalik zegoen Sandborn’s dendaren aldameneko zikin-ontzien edukia aztertzen, baztertzen eta karriotetan kargatzen begimendu nituen zoraturik.

Indioak. Mestizoak. Aborigenak. Baserritarrak.

Bombay. Kampala. Sydney. Rio de Janeiro. Addis Abeba.

Lamda soineratu zitzaion. Inguruak miazkatzen zituen, betondoak zimur. Sigmak Coatliren xehetasunak liseritu zituen, behiala Reformako aingeruaren borobilean, taxia helatzear zeudela,

bien arteko ahapezko elkarrizketaren bihikak bezala:

– Erran diozu? Nola erantzun du?

– Ahalik hobekien. Sigma tristaraz dezakegu, baina ez da zoritxar desesperatuaren aztaparretara eroriko. Hondar urteotan ez bederen. Errealitatearekiko halako axolagabetasun batek darama. Batzuetan ametsetarik doa, eta besteetan banpez erabakitzen du egitekoa, Posa Ngaka pigmeoa klandestinoki Londreseraino eramatea bezala, han infidelitatearen kartak mahaira deblauki botaz. Galerna barnakoiek ez dukete ukitzen, kolpatzen, purruskatzen. Betidanik dabil horrela, etsipena esperantzaz josia eta viceversa, ez dut sekula zinkurinka aditu, aitzakia balukeelarik alta...

– Chalcon gustura biziko da. Antzekoak dira gure jendeak, ez dira pleinitzen, ez dute amore ematen, gosetea, pobrezia eta biolentziak pairatuagatik.

Haraindiko puntan Cuauhtemocen tailuak perspektiba mozten zien.

Sigmak bere lehen mexikar taxia geldiarazi zuen. Txoferrak gurutzearen seinalea egin zuen,

Coatlik Chalco ahoskatu zionean. Behatz dardaratiaz ferekatu zituen atzikusgailuan zintzilik zaramatzan eta omiasaindukari ahuspekatzen ziren giza-eskeleto zurgatuak.

Ez zen isiltzen:

– Mexikoko zirkulazioa? Planetako hiririk handiena da. Nolanahika ibiltzen dira kamioiak eta berina keztatuekiko droga, bahiketak eta migrazioak maneiatzen dituzten mafietako kaiden 4x4ak. Istripuak badira, hilak, haserreak. Zainetan gabiltza beti. Lan honen premia daukat: bi haur baditut unibertsitatean, alabak kazetaritza ikasten duela eta semeak biologia molekularra. Eta zuek nongoak zarete? Europarrak ezta?

– Bai.

– Eta Chalcora zoazte? –ikaratu zen gizona.

Sigmarekiko arazo sentimentala arazorik gabe konpondu berri zutenak ez ziren eleant. New Yorkeko chicanoak lehengusuarekiko hitzordua finkatzen zerraikan, noiztenka kirrikatzen zion mugikorrarekin tematuz, *ahorita* hemendik, *ahorita* handik: Coatli ez zen kantitzen.

– Agian Izta bertan izango da. Ez dakit bestela nola eginen dugun. Ixo: *hara bai... ordu erdi*

baten buruan... Ixtapalucarantz goaz... itxoingo zaitugu, bai, bistan dena....

Zelularra zaplastatu zuen «lauhazka bat oihartzean, zaldia bila ezazu eta ez zebra» zioen Jack Malone edo Lili Rushen manera deliberatu berdinean. Dudak bazituzten hargatik. Sigmak orbaina zirrimarkatu zuen:

– Eta zertara goaz hain toki lanjerosera?

– Coatlik kusia badu Chalcon –zehaztu zion Lamdak–. Askaziekin geratu nahi du, eta uste dut Berkeleyra joateko dugun aitzakiaz betekizun bereziaz apaindu behar gaituztela. Taldean ibiliko omen gara. Abenturaren ezpal oso izanen zara zu ere.

Aski zuten biek horretaz axolatzea. Ez zioten bada muina hagunduko *betekizun bereziaren* xede madarikatu horrekin:

– Bihar, bostehun pesoren truke Teotihuacan bisitatuko dut Ipsilorekin. Ez naiz Mexikotik sobera urrunduko.

– Hiritik hamabost kilometrotan baino ez dago Chalco.

Lamda arranguraz zebilen:

– Izta etorriko da?

– Bai, han dukegu, zain.

Coatlik kezkak jabaldu zituen. Sigmari kuriositate falangatsua zebilkion zirikari. Maitalea joan zitzaiokeen, baina ahosabaira, hurrupa, aztalka, idatz eta ikastekoak oro eskumenean zeuzkan Mexikon: Teotihuacan, Chapultepeceko museo arkeologikoa, azteken egutegi izugarria, amerika-latindar dorrearen kaskoa, taxia har eta Coyoacanetik Zocalorainoko etorbidea gauez, Diego Riveraren freskoak Palacio Nacionalean eta Frida Kahloren etxe urdina. Aukera bakarra ez zuen saihestuko.

Taxilariaren arrasta ukaldi bortitzak hautsi zituen Sigmaren ateraldi detseen zerrendak. Chalcon zeuden, infernuaren holtz hegian, Iztaren aiduru. Galderaz mukuru. Berandu zebilen ala? Ez ziren arauz txabolerriko meandroetan itotsemailerik gabe ausartuko? Hiru europar, bat chicanoa izanagatik, erokeria zen, eta bat-batean, ez jakin nondik baina egoeraren obszenitateaz jabetu ziren: diruz okituak ziren, urreak ez bazituen lehertzen ere, banku txartelak eta pasaporteak bazituzten, eta halaz europarrik tristantena,

Chalcoko *paracaidos* haien aldean, hamabost aldiz zilardunagoa zen.

Ahalke mikatzezko soak makurtu ziren. Heia ozenka zetorren Iztaren agertzeak hirukotea deboilatik hastandu zuen. Bozkariatu zen Coatli, Lamda ukondotik zetxikala. Sigma atzetik zetorkien, nagi. Aurkezpenen kutxa ireki zuten: Izta nahuatla zen, Coatliren New Yorkeko baleen nazioarteko ikerketa zentroko kidea. Oporretan amarengana bildu ohi zen.

– Gurasoek Tlaxcalako altiplanoa abandonatu zuten sortu nintzenean. Duela lau hamarkada gertatuaz ari naiz. Nezahualcoyotlen finkatu ziren, baina txabolerria zementu eta harri gogorrez eraiki zenean, dirurik aski ez zutenez, hutsetik ttarrotzen zihoan Chalcoko eskualde honetara ekarri zituzten puskilak. Ama bizi da oraindik. Berkeleyn sehi dagoen Zitaren bi umeez axolatzen da auzoko emazteekin. Aitak azken hatsa eman zuen tekilaz hordi. Arraila ikusi dut egundaino. Ez dakit adimena nehoiz argitu ote zitzaion Tlaxcalako kaktusez eta errauts zuriz hanpatu lurra utziz geroztik. Mozkortzen zelarik, gehienetan, Tlaxcalara zihoan imajinazioz, ar-

diak, astoak, pulquea egiteko mageyak eta haize hotzak bermarazten zituen hauts zutoinak goraipatuz. Tlaxcalara noalarik malkoak jazartzen zaizkit halaber, Iztaccihuatl eta Popocatepetl sumendiak ezkerrean eta Orizabaren tontor zurbila eskuinean zehatz ditzakedanean. Izta deitu ninduten mineralezko muino etzanaren ohorez.

Betazalak heze zeuzkan Sigmak: Iztaren lekukotasuna irentsi zuen epairik gabe. Guztiok exilio, exodio rural eta migrazio ipuin berak geneuzkan kontatzeko: ukigarria zen partitzearen korrokaren oiharra edonongoen zintzurretan, itsumandoka abia eta hel. Parisera lanera joateko Baionan trena hartu zuen irailaren zazpi eguzkitsua haragian betirako txertatu zitzaion Sigmari. Artoak elgeetan kraskari ziren, haize hegoak buruak hasperenez betetzen zituen, errefuxiatu ekonomiko arruntenaren pare bi hilabeteko haurra amarekin etxeko sukaldean laga zuen.

Parisen egoteko lekurik ez eta, euria jaits ahala ari zela, Austerlitz geltokian kukutzen saiatu zen, baina zakurrekiko poliziek eskaleak haizatu zituzten, Sigma barne. Saint Marcel karri-

kan gora berriz atrebitzean, Terminus Hoteleko harreran jakinarazi zioten gela bat libratu zela:

– Hirurehun libera.

– Bai.

– Kasu egizu ganbaran... Bihar iratzarraraziko zaitugu?

– Zazpietan. Bederatzietan Montreuilen behar dut.

Horma beilegiekilako lotegian lohil urrina lerratzen zen, gohaigarri. Arropa bustiak erantzi eta eri punta gurintsuek tatxatu mirailak itxura haluzinatua eskaini zion: gero hobearen menturan hazi ur xortola gelberak ziren eta istantean dena ezabatu zitzaion, ukimena, dastamena, entzumena, mintzamena, ikusmena, maitamena... mineraldu zen, Iztaccihuatleko edo Iparlako harlauza arrosa bihurtzeraino.

Iztaren galerna antzeko zerbait pasatzen ari zen Sigmaren baitan: aspaldian ehortzi irudi intimoak asaldari zihoazkion eta Chalcon ez zeukan haien haizatzeko kuraiarik. Ahul eta biluz zen, eguna lau mila metrotan oinez ahitu bailuen. Lo kuma dorpetik esnatu zuen Iztaren ahots zohargiak:

– Andere eta jabe dago Mexiko, errekuperaziozko materialez moldatu txabola eskasetan, karrika lohitsuak algaraka zeharkatzen dituzten mukizuen lasterretan, aizolbeetarik jalgitzen diren emazte koloretsuen niniketan, pertz zulatuak bizkarrean daramatzatenen sorbaldetan, Mexiko hiriaren soinalde unatua, errenditua, bere gaurkotasun burbuilatsuan, mundua kudeatzen duten merkatarien arabera etorkizunik gabea. Chalcon irekitzen den espazio libre apurrena kliska batez betetzen da...

Nahuatlaren lasaitasun ederrak gatibu zetxizkan.

– Chalcacihuacuitcatl abestian Chalcoko pegarlariak goresten dira. Entzun ezazue Miguel Leon-Portilla idazleak kopiatu eresi luzea: *yectli yan xochitl, manocpac xochiuh ma ic ninapan, in noxochiuh, ni chalcatl, ni cihuatl,* Chalcokoa naiz, Iztaccihuatl naiz.

– Ez dut deus ulertzen, baina kantaren mamia neuregana dezaket.

– Sigma, Iztacciuatl eta Popocatpetl sumendiak erakutsiko dizkizut etzi. Haien zoragarrita-

sunak ilusituko zaitu. Benedikazioak dira, amerindiarren zentzuan.

– Berantetsia zait.

Sigmak Lamdari irri keinutsua igorri zion eta hark berdin ihardetsi. Zerotik berriz hasten bailiran. Zedarri ezberdinetan. Zeru sakonen gisa, Mexikon zalu garbitzen ziren sentimenduen zoruak. Penek ez zirauten, negarrak idortzen ziren, ihardoki behar zen eta aurrera jo, begiek bazutelako nonahi zer bazka, izpirituek zer alha, gorputzek non itzal, ahurrek zer tinka. Lehendabiziko aldian, amerikar kontinentetik errauts usainaren nostalgiarekin sorterriratu zen, haran berdeak hertsi eta hotzegiak zitzaizkiola. Grand Junction eta Placerville artean gidatzen zuen red cadillac hartako KSTR irratian dastatu zituen oraindik kuttunki maite dituen Emmylou Harris, Bruce Springsteen eta Neil Youngen kantak. Hamazazpi urteetan Rimbaud eta Bob Dylan baizik ez zituen ezagutzen.

– On the road again –malbaxurikatu zuen.

– Zer derasazu?

Izta xehetasun ments zebilen:

– Duela zenbait egun, Posa Ngaka pigmeoarekin sortaldeko Europa trabeskatu genuen Londreseraino. Erran duzu etzi partituko garela... nora ordea?

– Iparrerantz. Bizkitartean Chalcon ohatuko gara. Bihar Mexiko olagarrotsua dukegu somuga. Bizkar-zakua pausa, bazkaldu eta bidonville honen sargiako autobus geltokira zuzenduko gara.

– Ipsilo taxilariari telefonatuko diot –karta mekanografiatua erakusten zuen harroki–. Lamda eta Coatli lanean diratekeelarik... ni zurekin amerindiarren kulturan itotzeko prest nauzu.

Moctezumaren eia eia ho ho eia auhenkaria.

Chalcon bi milioi biztanlek ziharduten, ur eta elektrika barik. Hiria hortik zen emendatzen, urrako bolkanikoetarik oka eta oker ihes zihoala, indar, su, sukar eta edonoiz karramiska, jende bakuna bailitzan, frakturaz fraktura, kuskaldiz kuskaldi, gurutzaturiko *besteak* kurruskatzen, laztantzen, ukatzen, aurtikitzen, gehitzen, mintzen eta osatzen zuen bitartean. Bizitza, kanaliza ezinezko hatsaren oldarra zitekeen, hargatik dena espantu eta arrogantzia ustel, erabakior,

berme, printzipioen uztarriari uhalezkaturik, arriskuak kontrolatzen genituela oihuka hiltzen ginen bederazka, ez zen hala alaina, ez zuen inork ezer menderatzen.

Aniztasunaren uholdea pairamenezko gozamena baitzen.

Chalcon halaber, nola ez.

–3–

Munduko burtsetan izuaren enbata buharazten zuten *trader* eta aferagileek egun soila pasatu beharko zuketen Chalcoko sasi-hirian, beraiek Wall Streeteko bulego konfinatuetarik kudeatu gabezia ekonomikoaren ondorio kiratsak haztatzeko. IMF eta banku zentraletako arduradunek ere bai. Baina ez ziren nehoiz Ecatepec, Nezahualcoyotl edo Chalcon ohatuko, are gutxiago lohiz tropikalez setiatu Lagosko zein Indonesiako bidonvilleetan. Bost axola zitzaien, sozial arloan zinpurtzeko ez zirela sortu urguiluz ziotela, dirua tole eta aise irabazteko baizik.

Iztaren amaren egongelaren zokoan telebista pizturik zegoen. Birla finantzialaren zartatzeaz ari zen etengabe, komentario egileak ederki azpimarratzen zuela krisiaren eta ekonomia errealaren artean loturarik ez zela, deboila kontrolpean zetxikatela, estatuek aberatsenak beti sustatuko zituela argi zelarik haren hitzetan. Milioika miliar ardit desblokatu ziren gauetik goizera, autogintza eta sosarekin trafikatzea laket zi-

tzaien atorra zurientzat, irakaskuntzarentzat, langile xumeentzat, zerbitzu publikoentzat, osagarri alorrarentzat edo kulturarentzat kutxak desesperatuki huts zeudela. Frantziako lehen ministro zurbilaren erranaz oroitu zen Sigma: *La France est en faillite*.

Guadalupeko ama birjinaren potreta andere zetzan apalategian. Ezko argi piztuen erdian hegats prekariotik dilindatzen zuen, Omiasaindu bezperan mexikarrek karriketan pasearazten zituzten zapi beltzez estaliriko kaskezurraren aldamenean. Ate kantoiko eki-zirristan jarria zen Lamda, ondo-ondo zeukala Coatli, arto irinezko taloen beilari Izta eta pantailako berri txarren aurkezle beltzak tehentaz zerraikan. Sigmak haserrea bere baitan burbilaz nabaritzen zuen: Europa peko errekan baldin bazen, zer erran orduan heren herrialdeez? Maliz edo Nigerrez? Eta Madagaskarrez? G8 taldeak zorrek janiko gainerako lurreko estatuak xantaiaz atxikitzen zituzten, zazpigarren belaunaldiraino zirauketen interesak sakelara eta noiztenka militarki oldartzen zitzaizkien erreforma agrarioa edo materia lehenen nazionalizatzea deliberatzen zutenean.

Alan Greenspanen merkatu librearen ideia egiaztatzeko, Europako behereko jendailak Afrikako zein Asiako erromesen mailara jaisten ari ziren. Egiturei egokitze egitasmoak areagotzen zihoazen, han eta hemen, krisiagatik edo krisiari esker, Versaillesek sekula ez zuela aski, aberastasunaren pribaketa lehiatzen zuten lauzpabost hautatuen esku-artean. Krisia hold-up ahalkegarri baten maskara baizik ez zen. Anartean ospitaleak hersten ziren, eskolak baserri guneetan, antzerki festibalen dirutza murrizten zen, seguritate soziala tinkatzen hiritarrak fraudegileak zirelako mezu subliminala mass medietan isuriz. Dirua adiskideen oparia zitekeen, arraiki zerbitzatu eta bakarrek lotsarik gabe baliatzen zutena, CAC 40ko nagusiek suharki txalotzen zutela gobernua: *azkenean* zioten, *ausartu, ausartu oraino* erantsiz, *hori da kuraia politikoa*! Money junkyentzat krisia aitzakia ona zen justifikazio eta diskurtso manipulatzaileak garatzeko.

Sigmaren erresumina harrotu zuen Iztak:

– Taloak heda itzazu.

– Nik? Haurtzaroan egiten nuen bezala?

– Bai, halaxe.

Talogaiak punpulaz zeuden. Bat eskuratu zuen. Ezti zitzaion pastaren gogortasuna. Matahame borobilen perfekzioa are gehiago landu zuen, ama zaharrak kozinako plaka aski beroa zela iritzi baiko erre zitzan, erre, planetaren bekaizgo onartuegia ikazten bailuen.

Lamda eta Coatli umeekin ziren, harramantza eta oihu alegerak oihar:

– Zoragarria da artozko taloa.

– Zuk erran...

– Eta taloetan atsegingarriena. Badakizu, baserrian ogia finitzen zitzaigunean, amamak ere horrelakoak adelatzen zizkigula. Loriatzen ginen.

Ardura mistikoari uztarturiko Izta geldo zegoen. Sigmak izate konkortuari pasarazten zizkion borobilak. Isiltasun sakratuak gatibatu zituen ganbara bakarreko eraikin doiko eremuak, leihoen artekak, teilatuko zuloak, eki-urrakoak eta sukaldean metaturikoen izpirituko leize susmaezinak. Ukitua zen Sigma. Behatz puntetan itsasten zitzaizkion irinkiak airarazten zituen:

– Artadien erdian hazia izan naiz.

– Guk aspalditik ez dugu benetako artorik. Irina erosten dugu sasi-hiritik at goazenean, au-

tobusak kanpamenduaren sarreran gelditzen direnean behintzat.

– Alta, Mexiko hazi horailen biltegia dela entzuna dut nonbait... Amerikak deskubritu zirenean, baten batek bihika batzuk ekarri zituen Euskal Herrira eta...

– ...Europar armada ezjakin urrintsu biolentoek Amerikak bilatu zituzten garaiez ari zara?

Iztaren begitartean kolera bezalako zerbait ernaldu zen. Berehala damutu zen Sigma, azalkeriaz eta axolagabekeriaz eskapatu zitzaion perpausaz:

– Hitzok ohituraz darabilzkit. Ez nuen zure mintzeko gutiziarik. Europan horrela zatikatzen dugu denbora, Colon Ameriketara iritsi zenekoa eta ondokoa.

– Mexikon zara dagoeneko, ahantz itzazu Europako automatismo ideologikoak. Colonen ildoa ireki zuten Erdi Aroan euskaldunek eta bikingoek, Ternuara baleen atzetik etortzen zirela. Beratzago bazina, anitzez hobe denentzat...

Iztaren ihardets indarra jasan zuen Sigmak. Bai, hala zen alaina: Posa Ngakarekin harilkatu egunek globalizatu ezinezko globoaren pairame-

narekiko elkartasuna hazi beharko zioketen, Fily Dembeleren memoriak, orrazia musikalaren soinuak eta Fahirrekiko gau harrigarriak berdin. Baina senda gaitza zen, zerebroan zappingailu eraginkorra eta gogoetak mila ehun karakteretan trokatzeko usantza nazkagarria zeukalako.

Patioa orroaz eta moto zoharren azantzez betea zen. Giro zamatsua hautsi zuten bat-batean txabolaraturiko Coatlik eta Lamdak:

– Zintzurrak errautsez idor ditugu. Ura edan dezakegu?

– Bi godaletena bada pitxerrean. Urrun baitugu iturria. Bi kilometrotan hain zuzen. Psili eta Zei urketa doaz aldizka, pegarrak dildil.

Lanetik kantitu gabe, ahurretako gurina mantelean hedatu zuen amak.

Lehen aldikoz mintzatu zen. Delicados zigarreta merkez erlastu boza zeukan. Soan tristura zerbait irakurtzen zitzaion. Ez zukeen egun oroz fandangorik dantzatzen. Matela melekatua zimurtzen zerraikan:

– Tlaxkalako altiplanoa abandonatu genuen, ondikotz hala beharrez. Hamabi mukizu genituen, zazpi ditut distrito federal honetan koka-

tuak, biga Chalcon, zenbait San Nicolas kolonian, bat ohorez ezkondua Condesan, bost badabiltza hor gaindi, hiru Ipar Ameriketan, bat oraino *de mojad@s*, Izta Berkeleyko kolegio batean irakasle-ikerle, eta paperak erdietsi berri dituen Zita, Kalifornian etxe garbitzaile. Psili eta Zei haren haurrak dira. Pasaporterik ez dute, eta hauek dituzue etzi zuekin eramango, Zitaren egoerak hobera egiten baitu.

Hatsa hartzeko paratu zen amattoa.

Taloak irineztatu zituen. Kaskezurraren maldako ontzi uhargitik taloaren hornidura –piperrak, oilasko puskak, tomate eta aguakate saltsak, gatz pikorrak– zartagin herdoildura aurtiki zuen, egurrezko sardearekin gero, astiro, epeltzen zihoazen janari koloretsuak nahasteko. Gurutzearen seinalea marrazten zuen, behin baino gehiagotan:

– Espero dut bidaia ongi biribilkatuko zaizuela. Erabaki al duzue ibaia nondik zeharkatuko duzuen? Tijuanatik? Nogalestik? Ciudad Juareztik?

– Ez dakit –erantzun zion amultsuki Iztak–. Ez dakigu. Turista arrunten moduan iraganen dugu muga, kotxez edo oinez. Astia badukegu taktika-

ren orrazteko eta frontera nondik zula zehazteko. Gauza segurra da ez ditugula Paso Lajitas, Piedras Negras, Laredo edo Tamaulipaseko Matamorosko pasagiak tentatuko.

Aberatsen herrialdeak lege zinikoz, helikopteroz, armaz, kamera infragorriz eta poliziaz emokatzen zituztenek arrazoia zuten, migranteak harresi puta horiek zelan gainditu kalkulan baitzebiltzan gau oroz, beraiek jauzi handia deitzen zutena noiz, nola eta norekin egingo zuten antolatzen. Diru apurra baztertua zeukaten horretarako, aitatxiren ekonomiak, anai-arrebenak, auzokideenak batzuetan. Ardura dorpea zeramaten sorbaldan.

Eta nehoiz ez itzuli(ka).

El camino de Michoacán...

Bizkitartean Iztaren mihi pean loratu toki-izenen zerrenda bozkariotsua zen. Sigmak, ele huts, *country* kantak entzuten zituen edo *ranchera* arruntak, non ez ziren modara iraiziriko *technomex* melodiak. Tamaulipas zerrasan berekiko, eta ama unatuak banaturiko talo bat ahurrean tinkatu zuen. Lamdari beha, berriz piztu zitzaion maitemina, garratz, zirikari, sakon, urra-

kor: ez zen zilegi hamabi hilabete iraun zuen amodiozko istorioa horrela akabatzea, Aturriko korrokoiak tripa zilarrak airean bezala.

Mutur zegokion Iztaren lepondoan txertatu zuen soa, sentimenduak haragi ezezagunaren leuntasunean jarraipen loriosa balukeela iragarriz. Izta inguratu zen, Sigmaren niniken eskakizun lizuna igarri bailuen.

Lamdari hitz egiten zion:

– Leku lanjerosetan eta ilegalki muntatu dira Mexikoko txabolerriak. Oleoduktuak, gas-hodiak, pentoka latzak, toki itogarriak. Lantegi, zakartegi, tren nahiz autobideen aldamenetan. Hala dira emendatu Nezahualcoyotl, Chalco eta Ecatepec. Mendi mazeletan gora hupatzen da Ecatepec ordutik ordura Ertamerikatik datozen eskaleen kabana ahulekin. Azpiegiturarik gabeko guneek, emeki-emeki herriak osatzen dituzte, elizari eskolak eta arta-tokiak gehitzen zaizkiela. Udaletxeak azkenik brika gorrizko aterpeak herronkatzen ditu eta hiria zabaltzen da, hogeita bost milioi biztanle zenbatzen direlarik jada eta jendeuharrak ez atertzen!

– Munduko hiririk handiena da.

– Garai batean bai, baina naski –zuzendu zion Iztak Coatli– Shangai are xinaurritsuagoa da. Garbi da baldintza horietan, ezbeharrek hiria jotzen dutenean, txabolerrietakoek dutela larrikien ordaintzen. 1984an Ixhuatepeceko petrolio findegia zartatu zenean edo ikara tektoniko izugarriak Mexiko suntsitu zuenean, ehun milaka hilotz kontatu ziren. Droga karteletakoei ere gustatzen zaie erkide behardunekin trafikatzea eta bidonvilleetan kriminalitate tasa azkarra izan da betidanik. Polizia ez da sartzen Chalcon. Pulquea eta tekilarekiko mozkorra dela kausa, labanak agudo jalgitzen dira eta orduan errautsa bustitzen duen odola, fajitak adelatzeko erabiltzen diren pigmentuen kolorekoa da.

Amak besoak gerriratu zituen, elemin. Duda bulta batetik landa atrebitu zen:

– Diotenez pulqueak jendeak amiltzen bezain tekilak pentsamenduak akuilatzen ditu. Eta ziotenez, mexikarren iraultza tekilari esker eraman zen garaipeneraino. Garai hartakoa da *matar un chilango es hacer patria*...

– Chilango distrito federaleko biztanleen izengoitia da.

Iztaren xehetasunak Sigmaren poza larritu zuen. Pancho Villa, Emiliano Zapata, zuela gutxi kartzelaturiko Paquita la del Barrio, Chavela Vargas, Lila Downs eta Tonana itxuratu zituen, denak, bata bestearen ildotik, historia berdinaren itxura anitzak bailiran.

Muinak nahas zebilzkion artozko taloak nakanaka klikatzean.

Zintzurra tiran zeukan, tekila ments alabaina. Bezperan Huitzilin Hotelera iristean, fardelak plegaturik, harrerara jaitsi zen zerbitzariari edari mitikoz arradatu basokada txikiaren manatzeko. Krisiaz barra-barra ari zen telebistari so hurrupatu zukeen arroztasunaren sentimendua loditzen zion jario beilegia. Eztulez bota zuen lehen ahotara. Bigarrena hezikiago irentsi eta hirugarrenerako etxekotua zen jadaneko.

Coatlik eta Lamdak osatzen zuten borobilean ttottotzeko inbeiarik ez zuen Sigmak. Laberatu zen. Arto irinezko hauts sakratua ahoratzen zuela, Izta hurbil-hurbila zeukan, xuxurlari:

– Artoa altxor zaigu. Oaxacako probintzian ehunka bihi mota dauzkagu. Barkatu, gaizki hartu dudalako zure behialako Cristobal Colone-

kiko ebazpena. Begira, jende minberak gara gu, mestizoak, kolkoetan sufrantza histerikoak metatzen ditugulako. Baina jabaltzen gara noizbait eta zurekin bat niagozu.

Artoa, edonon, bizitzaren ikurra zela murmuratzear zegoen.

Iztaren samurtasuna ez zuen ebaki:

– Ba al dakizu Oaxacako jatorrizko artoa Ipar Ameriketarik, legez kanpo noski, datozkigun hazi transgenikoek kutsatzen digutela? Mexikon genetikoki aldaturikoaren erabiltzea ez da haizu. Hor daukagu hargatik Washingtongo piztia, gure arto beltzak, gorriak, horailak, berdeak arraiki kontaminatzen. Gusturik hoberenean. Desastre bat da eta ezer ezin egin. Zauria gugan dabil.

– Nere herriko laborariek arazo bera dute. Handiek ereiten dute arto transgenikoa, botereak baimentzen duen urteetan behintzat, salbai eta itsuki, jainkoa meneko bailuten. Haizeak barreiatu polenak loreak zikintzen ditu gero, eta erleak dira ondorioak jasaten dituzten biktima lehenak. Nekazariek ez dute konfinatze-neurririk hartzen, deus, inpunitateaz profitatzen dute. Estatuak, hazi-saltzaile enpresek eta eskuineko la-

borari sindikatuetan diren jaunttoek transgenikoaz beste lelorik ez dute: mundua gosetetik salbatuko eta alor zientifikoak udalatuko omen dituzte Monsantoren hegalpean. Posa Ngaka ezagutu arte elge hegian geratzen nintzen, jagoitik ordea auzoan transgenikoaren borondatezko epaia antolatzen baldin bada, anai-arrebei juntatzea erabaki dut. Aita zenak erraten zidan beti, dailuarekin trebea eta zehatza nintzela!

Hasperenez libratu zen Izta.

Alaina, multinazionalen eta ultraliberalismoaren diskurtsoen aurkako ihardokiak murritzak, setiatuak eta ezkutukoak ziren. Bospasei kontinenteetan, izarrak arrastirian nola, borroka kliskak distira zebiltzan hala, kapitalismoaren ilusiozko segurtamenak kritikatzen eta iluntzen. Ez ote zuen euri ttantta bederak itsasoa asetzen? Elkartasunaren soinu banda ozen zihoan. Pigmeoaren orraziaren hotsa eskas zuen, Iztaren presentzia gertu zuelarik alta. Daldara zen. Begiak ezkeltzean, dailu lanputsaren ziri-zara oldarroiaz hausnartu eta txabolako taldea ez zela mugitu konturatu zen. Coatliren, amaren eta Lamdaren artera zuzentzean Coatlahopeuh-ko

damaren oinak bortizki koskatu zituen: seinale baikorra, ezta?

Posaren berriak, ahalik lasterren.

Iztaren ahotsa entzun zuen:

– Zer egingo duzu arratsaldeon? Chalcon egon ala Mexiko ikusi? Ideia edo gutizia berezirik badaukazu?

– Ipsiloren telefono zenbakia poltsan daramat Teotihuacanera joateko. Bihar agian. Hemendik urruti dago Coyoacan?

– Hegoaldean da. Ipsilori dei iezaiozu. Frida Kahloren loiro urdineko baratzeetan galduko gara. Leon Trotskirena bertan dago. Orduz baldin bagoaz, biak bisitatzen ahalko ditugu. Zer diozue?

Ikerlari bikoteak Iztaren proposamena ezeztatu zuen. Bazuten beste egitekorik. Baleak otserbatzen nagitu asteetako emaitzak eratzekoak zituzten alabaina, bi egun barne, txabolako gainerakoen antzera, bizitzan halako haustura bat pairatuko zutelako. Presaz zebiltzala oihutu zien Coatlik, irriz.

Sigmak aldiz txabolerriko kihilara segitu zuen Izta, nerabe jostariek eta zahar zohituek zapatak

herrestatzean hautseztatzen zuten xendratik. Gelak elkarren kontra zeuden, hegatsetan telebista kateak kaptatzeko antena parabolikoak bazituztela kasik denek. Talo eta haragi usainak ihes zihoazen, ke urrintsuz Chalco amildua troxatzen zutela.

Sigma alha zebilen.

Autobus geltokiratzean Iztari begiratzen zionean ez zuen bihotzean jeloskeria zimikorik sumatzen. Hitzez hitz berridazten zukeen bizitza debaldearen nobelaren azken kapitulua bukatzear zegokion. Ez zekien zelan azaldu: Amerikako ortziak, ekaitzek, aurpegi koloreztatuek, indigena apatikoekiko identifikazioak, goizaldeko txorien kantek ateka gaitzetik ilkitzea baimendu ote zioten eskatzen zuen berekiko, Izta parean esertzen zitzaiola.

Izaki gabetu eta solaskariz mukurutu beribilaren leiho uherretarik hiria alfertzen miresten zuten:

– Itakako kolegioan naizelarik itxura eta nahasmendu sotilon ukimenak falta zaizkit.

– Berkeleytik Mexikorakoa ez da hain luzea...

– Amerikar eremua zabala dela konturatuko zara etzitik at, ortzaize infinituak ditu, kantoi zehargiak, holtz zilarrak, eta norbera bere baitan galtzen ahal da iparraldera urratzea amesten duen arau.

– Ezer galtzekorik ez eta berehala urtu gaitezela!

Iztak kanpora behatzen zuelarik Sigmak Iztari so zegion, eta alderantziz. Bakan baizik ez zitzaizkien bistak gurutzatzen. Biltzen zirenean ordea barre-marratxoak trukatzen zituzten. Planetako hiririk ustez bortitzenaren erdian, izen bako kide bik eztitasunaren uholdeak partekatzen zihoazen... eta are gehiago, afinitaterik balitz, egunkarietako iragarki klasifikatuek eransten zutenez.

Coyoacango Frida Kahlo eta Diego Riveraren egoitzak barrutik inarrosi zuen Sigma, urdinaren hondamendiak bereziki. Geroago Trotskiren bunkerreko bortak hertsiak zirela ohartu ziren. Leon gaizoa erail zuteneko tiroketek horma hitsetan utzi aztarnak erakutsi zizkion Iztak. Arturo Ripsteinen filmetako pertsonaia bailitzan sentitzen zen, eta karriketan lili ubeletan handiosturiko ja-

karanda arbolen kaskoetan dilingatu zuen pentsua.

Huitzilin Hotelean zeuzkan puskak hartu zituzten berriz Chalcoratzean. Gau izugarria hozitu zitzaien, artozko taloz gangarreraino emokaturik, teilatu doi eta intimitate zekeneko izkina bateko errautsean etzan zirenean: ez zen sobera fida. Lo txar eta mortalak zaroan. Iztaren hats arinaren kolpeak haztatzen zituen, hamaketan zeudenen intziriak eta amaren kurrunka ozenkoiak. Goizean, ilunpeko ingumez ez zen den mendrenik ere oroitzen. Iztak apailaturiko kafea lagun, chilaquiles zaporetsuz gosaldu zen: bizitzaren bizitasun bizitorearen bitsa zekarkioten.

Ipsilo taxilaria helatu zuten azkorrian. Hogeita hamar minutu zain egonik hurreratu zitzaien kotxe zuri-gorria. Txoferraren eskuinaldean plantatu zen Sigma, eta Izta gibelean. Isilezina zen Ipsilo. Ecatepec lerrakariaren igoera seinalatzen zien. Txabolerriak behialako nahuatlen *cihuacoatl* suganderearen maneran emendatzen ziren kulunkari eta tematsu. Legerik gabeko hirigintzak fazinatzen zuen Sigma, jakin bazekien arren Europan bertan bidonvilleak bazirela, Napoli edo

Palermon demagun, baina Mexikon aldi berean bizpahiruren lurretik edekitzea zekusan, sumendiak zilegitu urrako mineralaren lekuko bailitzan: odol, izerdi, hauts, negar, garrasi, likits, zilborhertze mozte eta leize zabaletan sortzen zen, edonor, edozer.

Teotihuacaneko sargian laxatu zituen Ipsilok, igurikatuko zituela hitz emanez. «Bostehun peso ez ditut egunero hain erraz irabazten», aitortu zien algaraz. Bi mila metro luzeko Hilen Galtzada aztalkatu zuten ondorioz, harri bolkanikoaren perla jario gorria usnatu, obsidiana eta basaltozko silex txikiak bildu, labirintoaren bakartasunaren tupina hegia azpatuko ziokeen *piedra de sol* bat Sigmak eta Iztak neskatxa aztekek pazientziaz brodaturiko mokanesak erosi zizkioten harmaila batean gardeinatu saltzaile indigenari. Oihal, berunezko coatl, mantel eta jantzi merke banatzaileak hurreratzen zitzaizkien, uhinaldi:

– No gracias.

Piramideen kaskoetara igotzen ziren arraiki, hatsak trenka hurran. Ilargiarena eskurik esku eskalatu zuten eta eguzkiarenaren kaskoan bermatu ziren, ninikak suhaka. Beherean xinaurriak

ihaulauska zebiltzan. Quetzacihuacoatl jainkoa otoiztu zuketen bihotzez, Tlaloc eurien jabea, Chalchiuhticue urena, lumaz koroatu artoaren beilaria, kopetak eta ahurrak ekiari emanez.

In yolohtli, in tlacamecayotl, in xicnelhuayotl.

–4–

Chalcoratzean, gauerdi pasatuxean, lotan zeuden denak, lurras. Roma auzoko cantina batean auhaldu ziren. Tekila burrustan isurtzen zen, mariachi saldo gotorrak Jose Alfredo Jimenez handiaren hitzekiko *Serenata huasteca* edo *Un mundo raro* harilkatzen zituela. Sigmak ez zuen uste kitsch-keria zerien melodiek, goldeak bailiran, barna urra zezaketenik. Izta pottoloaz maitemintzen ari zena eta vice-versa? Jada munduan soberakin sentitzen ez zela sinesten zuelako ote? Soinu alegerek humanitatearen tragedia betikotzen zuten Kepa Junkeraren trikiak hain gurea zen *Iruten ari nuzu* epikotzen zuen eran: derrigorrezko!

Gela bakarraren kantoian elkar biluzi zuten, isilik eta plazerezko intziriak gordez. Eskuak, alkoholak birrindu haragi borobilaren hamalau izkinatan zebiltzan, horrelakorik balitz, ezpainak ezpainei. Kikizai estofatuak oihar, errautsean hedatu mantaren eremuan etzan ziren, bata bestearen baitan. Une batez Ipsilo Teotihuacaneko

sasitzarretako indiarren txosnetan pulque bila berriz zirudikan Sigmak: taxilariaren eskaintzari ezezkorik ez eta goiti egitear geratu zen. Piko esnearen edo esperma ziliportatuaren eiteko edariak disgustua ematen zion. Melekaki lerratzen zitzaion urdaileraino.

– Pulque curadoa da, magaye landare irrikatsuaz ondua. Noiztenka mezcal delakoa ere proposatzen dute hemengo laborariek.

– Etxeko hautinaren lehen emaitzaren gustu berdina dauka, kiratsa, zakarra, presenta ezina, ahalkegarria, mahasti jorran eta estekan akitzen ziren nekazien antzekoa. Kaktusak halaz, bihotzak eta gogoak amaina ditzake.

Txabolako adineko kurrunkalaria mugitu zen. Bizkitartean ahurren baladak ezti ziren ezintasun alaiak menderaturiko soinaldeetan, barna, zehar, trabes. Ez zen nehor iratzartu hargatik.

Sigmak, ahapez:

– Hainbat zintudan desiratzen...

– Ez nekien libre zinela. Atzo dut ulertu, Lamda Coatlirekin partitzen ikusi dudanean. Nirea zara...

– Ainintza beti gaur bezain libre!

Iztaren desiraren izerdi usainak sudur zuloak kilikatzen zizkiola, Sigmak museo arkeologikotik jalgitzean Ipsilori erran zionaz gomutatu zen:

– Badakizu hobesten dituzkedala diskurtso normatzaileek beraien zirkuluetarik haizatzen dituzten gauzak, hala nola apaletsiriko itsusiak, herrestak, beltzeriak, erleak, listafinak, euri etengabeak, baleak, amodio debekatuak eta jagoitik kaktusak.

Ipsilo ametsetarik belhitu zen:

– Egia da, baldintzarik gogorrenetan irauten duten loreek izen poetikoak dituztela, agave demagun, edo nopal, saguaro, edo oraino roca viva. Zure atseginerako baizik ez balitz lista emenda genezake. Gandhi liburu-dendatik pasatuko gara.

– Musua emadazu.

Iztaren hatsa ileetan bare zebilkion *Nunca volveré* xuxurlari.

Tuak nahasten zitzaizkien eta mihiak txirikordatzen, belarrietan, larru arteketan, gerriko gantzetan. Izpirituak argi zituzten. Sekulakoz.

– Ez dakigu sekulan zuzen zer edo nor garen. Hitzez mugatzen dugun ele bakoitzak mugaga-

betzen gaitu, briu-brau. Ni naiz diot eta agudo ni ez naiz haren zurrungak uhertzen nau, bakunak eta anitzak garelako nolabait. Jiteak zehazten, baztertzen eta bizihazten dituen egitura soziala ez dut laket, batere ez, ereduak finkatzen dituelako populazioen borrokatzeko, eta kontrolatzeko, eta manipulatzeko, eta sufrantza haziak ereiteko eta... eta... eta... hala ere, eredu horiek beraiek urrunago joatera bultzatzen gaituzte, zakutik edo zorotik, hauturik ez daukagulako.

Iztaren hurbila, Sigma!

Guadalupeko basilikan abandonatu zituen Ipsilok, San Cristobalgo lomasetako aferagile bat aireportura eraman behar zuelako. Aberastegiak han aurkitzen ziren, egoitza erraldoi, fortifikatu eta kamera zein borta-kodigoz segurtatuak.

– Bezeroak bizkar-zainekin garraiatzen ditugu –zerasan taxilariak–, segituak eta bahituak izateko beldurra dutelako, batzuetan imajinatzen dut jaunkillot politikoak eta kaid-ak daramazkidala. Maioriak pobreziaren neurriaren azpian datxizkaten herrialdeetako gutxiengoaren altxorra da izua, eta menturaz –horrela bukatu

zuen–, finantza krisiarekin lotsa areagotuko zaie, azken finean gerla zibila atitxatuz.

Riots indeed.

Iztak maitekorki musukatuko zuen Sigma, bota zion behakoaren samurtasuna kontuan edukiz gero. Baina ez zen higitu. Belaunak ustekabean juntatu zitzaizkien. Ipsilok solasean zerraikan:

– Neplanta arima erratuarekiko new mestizetarik zarenez, erakuts iezaiozu basilika, halaber gurutzearen seinalea mexikar erara marrazten. Hamalau aldiz eta zalu-zalua. Orotan egiten dugu, bereziki hegazkinak lurra uzten duenean...

Irriz lehertu zen taxilaria, pesetero batek ibilera trabatzen ziolako tuta arrabiatsuz zinpurtzen zela. Sigmaren sabelean pulquearen desmasiaz ozen zebiltzan, kurruska eta bor-bor. Papaia bat klikatu zuen. Fruta zukudunaren jusa barreiatu zitzaion aho sabaian eta hobera zihoan pirta-pirtaka. Iztaren ahurraren epela sentitu zuen sorbaldan. Indar berritzaile. Gaitzeko fleitean zen ondorioz Guadalupeko katedralaren maldatik, oihu, kanta, txaranga aire eta dantza herrikoi, peregrinajez doi-doia heltzen ziren fe-

dedun koloretsu bezain agerroien erditik sartu zirenean.

Mirakulua zen.

– Potta... Otoi.

Garrasi salbaiak urratu zuen gaua. Tiro hotsak entzun ziren. Ez zekien nola eta nondik, baina Sigmak desertua hazta eta ura falta zuen. Haizea bazen, hotza, ezpata adina labainkor, eta orduan, mortuak odola bezain gorri zekuskien. Guadalupeko ama beltzaranaren potretaren oinetako tapiza ibiltarian ez zen geratzen. Zaindariek larderiaz haiatzen zituzten erregutan ausatzen zirenak. Negarrez ari ziren batzuk, besteak fabore amoinatzen, gehienak so bustiaz birjinari begira, eguneroko esplika ezinezko kakatik ahalik lasterren atera zitzan eskatzen. Dama nahuazteka izarrez, lau arto liliz, suge bihurrikariez, arrantzez eta eki arraroz ederrestua zen.

Zigarreta piztean lur ikara sumatu zuen, burrunba elkorra eta ilunpean zakur gosetuaren zaunka, herioari uhuruka, non ez zen otso edo koiotearena? Zerbait zartatu zen, hogei urte lehenago gas-hodia Pachucan bezala. Malko bat beharbada, Juan Diego indioaren niniketan. Eli-

zaren atarian indigena inbalier gaztea auhenez zegoen. Paralitiko aulkian potikoa botilari tiraka ari zela, beraztu zen Sigma, bere basilika propio afruntagarriaz gain ez zuelako leku sakratuetan errotzeko ohiturarik: ohaideak eta lagunak nardatzen zituen; pentsa jainkoa, are gehiago. Batbatean Iztaren besartean zetzan:

– Tonantzin!

Mendeetako oldartze mineralaren lekuko, adarka igotzen zen magma agerian zaraman arraildura ireki zitzaien zango pean. Jauzi egin zuten. Beren buruak bederen salbatzekoak zituzten, horren funtsaz arras segur ez ziren arren. Basalto purruska eta ilainezko lantzerrak estali zituen zelaiak, amiltzen zirela ttanttaka, agerrindearen men: haurrideak, gurasoak, herritarrak, askaziak eta adiskide apurrak irudikatzean bazekiten maluraren urkatzeko ezer ez zezaketela obra. Borondatea ahul zihoakien, suntsigarri. Hautsartu zuten.

Altzairuzko ahotsa oldartu zitzaien:

– Urrikal zaitezte. Parteka itzazue taloa eta pulquea. Ez aberastu, non ez den hurko intzirikariaren debaldeko opariaz.

Solas sibilinoak ziren Delfosko pitiarenak bezainbat.

Ortzaizea garbitu zen. Indar telurikoaren oldeek erraiak inarrosten zizkion, larraitz zurbilean nahikundearen aurka zihoala ohartu zen, bozari erantzuten bailuen, *biziraulea naiz, I am a survivor, soy superviviente*, *überlebe ich* marmaratzen zuela, hizkuntzak nahasiz.

– Egarri naiz.

Ihausteriak durrundatu zuen zeru sabai urdin-urdinean. Urratsa urratsari ari zen Sigma, gibelera so ea Izta zetorrenez, sukar hilgarria jasan eta ohetik altxatzen zebilenaren hankamanka durduzatian. Antsiaren erasoa ez zuen ekidin.

Alfa eta omega.

– Gozaraz nazazu!

Kontinente mutuaren izkinan zutoin ikaratia zekusan.

Posa Ngakak Londreserakoan jotzen zuen orrazi musikalaren nota xeheak ezagutu zituen. Korrikaz hurreratu zitzaion.

Tinkatu ziren arraiki:

– Non dira besteak?

– Zein beste? Alderik alde gabiltza eta ez dugu inor gurutzatzen.

Posaren agerpena ez zen sosegagarria. Nehondik.

Basaltoz azpatu lehorrean jarri ziren. Elerik ez zuten trukatu. Sigmak Posaren soinaren beroa estimatu zuen, hilotzen erresumatik aurtiki izate argamasa zela zirudiolako eta banpez maita zezakeen Izta bera desagertu zitzaiolako. Azantz metalikoak aditzen ziren. Handik at, gerlariak hurreratu zitzaizkien, amerikar soldaduen hondarrekin jantzi eta burtsetan kotatu enpresek ezkutuan kudeatu armen merkatu klandestinoetan erosi kalaxnikov eta P38 pistolaz astindu amazona bulargabeak. Lanjerraren zerbitzari bekatorosak bailiran, ihesari eman ziren. Itsumandoka. Behaztopaka. Erori eta altxa. Altxa eta erori. Kanta zaharraren haritik.

Bolada karroinduek hegaldarazten zituzten hondarrezko hedoiak hertzean, Tenerekoaren pareko arbola herbalaren azpian kukubilkatu itzal zardaia begimendu zuten. Ezkel zegoen. Boz erlastuaz agurtu zituen, herabeki:

– Modou naiz. Modou Keita.

Malitik Europara zihoan, Niger, Aljeria eta Marokon gaindi. Nadorreko poliziek haietarik berrogei kamioietan sakatu eta Saharako desertuan laxatu zituzten. Barrez ari zen, txadarrek, boliarrek, kamerundarrek, ginearrek, senegaldarrek, *chairman* batek kudeatzen zuen Ben Youneseko errepublika asmatu zutela deklaratzean, Afrika idealaren mihisea irunez, *tranquilos* deituriko ghettoekin, hostoz, abarrez eta plastikozko aterpeetan. Istoria ezaguna zitzaien.

– Ipar orratzik ez geneukan, gosea pasa eta zenbait egunetara ura eskastu zitzaigun. Ahulenak hiltzen zirenean sablean ehorzten genituen, otoitz laburrak murdukatuz. Pasaporteak biltzen genizkien gero familiei igortzeko. Gogoan daukat gizonez apainduriko Ghanako emakumea. Ez genuen deus susmatu azkenera heldu zeneraino. Errabiaz geunden orduan, tristura latzez kordoka. Koleraz. Bi hilabetez nora ez ibilirik, Bamakora iristean, eratorria kontatzen nienean, gazteak trenputxartzen ziren, baina ez zituen horrek partitzetik gibelarazten. Ez zezaketen sinets huts egin nuela, gurasoen etxera itzul ez zitekeen *siranrofin* bat bihurtu nintzela. Ba al dakizue Ceuta

eta Melillan hamar urtez kasik hamar mila bizitza hondatu zirela?

Soldado algarroien orroak.

Posa Ngakak Modouren lepoan pausatu zuen kopeta, maleziarik gabe. Murruak altxatzen ziren eta murruen atzealdean, murruak oraino, murru ugariago beti, errusiar panpinen gisara. Horma arteketan *no woman's land* desolatuak zabaltzen ziren droga, hiesa, bakartasuna eta eromena setiatzeko. Behatzetako nortasun hatzak ezabatzen zituzten bizar-labanarekin eta heroina txertoak egiten zizkieten elkarri *gasolinarik ez baldin badugu aitzina ez gaitezke* erranez. Murruak bermarazteko arrazoiak ernatzen ziren, Palestinan, Ulsterren, Espainian, Estatu Batuetan. Bidaia bakoitza infernurakoa zen eta migrazioen turismo bulegoetan Virgilio edo Manastabalen bulegoak eternitaterako zarratuak ziren.

Non zegoen Izta?

Itsasoak gorpuak zitzikatzen zituen, pentokak bidonvillez perdukatzen ziren, Iraketik, Irandik eta Afganistandik eskapaturiko errefuxiatuak berrogei egunez zetxizkaten Sydneyko berrogeialdi zentroetan, galdezkatuak eta inkomuni-

katuak. Dregger kurduak udako oporrak Patmos, Lesbos eta Samosko uharteetan iragaten zituen berea ere zen Turkiaren perfume bereziaz hantzeko. Kora portuko ostatuetan kafe turkiarra manatzen zuen, *Le Monde* irakurtzen ari zitzaion laguna burlari zegokiola. Exilioaren xendra lakarra dastatu genuen guztiek, baserriaren kitatzea eta hitz egiteko modutik beretik arrotz ezjakin trufatua bihurtzea:

– Izugarria da partitzea.

– Badakit.

Hobitik norbait asaldatu zitzaion. Sigma urduri zebilen. Hamar urtez galanki loditu harrak soinaldetik barreiatzen zituela, amaren irria handitu zen, saihetsean kanpatzen zuen armada kupidagabeen balentriak ahantzaraziz. Lurraren trenpua izugarria zen.

– Ama? Non xinen?

– Nizan lekuak ez din izenik. Nola bizi hiz?

– Posa eta Iztarekin nabilaxu, hara eta honara, presentatuko dauzkitxut, xato...

Azken bidaiarako jantzi igandeetako arropekiko andere konkorra segika zetorkion. Sigma harro zen, ikusmena irauli zioten lagunak amari

aurkeztuko zizkion, nehoiz ez bezala, luzaz aski diskretua egon zelako bere harreman intimoekiko. Bi eztul idorrez garbitu zuen zintzurra:

– *Jeder für sich und Gott gegen alle*.

– Glosolaliak jo xitu ala?

– Ez hadila bakarrik egon. Ene penarik handiena lukeen.

– Bena ama? Zer dioxu?

Agerrindea ekaitzak eraman zuen.

Erasoaren tenorea zitekeen.

Amaren zoritxarrezko malkoen erruduna ote zen Sigma? Lehertua zen. Harritua eta hinkihanka basaltikoaz aitzina zegien, etsipenez itoa. Zaharrak desolatzen eta gazteak aspertzen, besterik ez dut egiten, zioen, ama bigarren aldiz zentzean dolamena are garratzagoa zukeela konturatzean. Dolorez plegatu zen leize hegiaren desorekan. Min zuen, min, min, sobera min.

Monologo bitxian zimurtu zen:

– Statu quo bortitza, errestauratze urrin zizkolatsuarekiko haustura ideologikoa, aurrerapen eta modernitatetzat hartzen ziren, baina nor zen desjabetuetan desjabetuenak ziren Owen navajoaz edo Endo aborigenaz axolatzen? Otzi, Tumai

eta Luziaren oinordekoak ziren. Ezinegona zuten. Higitzen ziren, baleak, erleak, lili errautsak, aberatsak salbu, sosa geldoaren inpunitatean baizik ez baitzitekeen meta. Gainerakoei bekokietara tu egiten zitzaien, euskaraz aritzea eta lurrera kerrukatzea debekatua zen errepubliketan eta kale hezeetan zafratzen ziren ipurdiaren balantza susmagarriegia zeukatelako.

Izta. Ama. Posa. Amerika.

Galerna ernatu zen. Urrutitik zetozen orrazi musikalaren oihartzunetan dilindatu zuen izpiritua, hauts zurbilezko lumak besotik kentzean:

– Non dago Manastabal, ene gida?

– Nola dakiket.

Begiak ireki zituen. Noren arrapostua zen? Burtzoroa jasan zuen, *Wittig dut bilatzen* zioela melengaki, laztanez uhartu zitzaizkion bizkarrezurraren makurdura. Amodio nahikundearen larrantzia. Kuskutik jazarri pinpirin dorpea bailitzan, hegalak oker, Iztaren aurpegi kezkatua neurtu zuen:

– Nor da Wittig?

– Mendekuaren ingumak eroan nau. Kafea behar dut, berehala, edo hilen naiz.

– Idor-idorra zaude.

Ohantzetik zutitu zen Izta.

Horma itsurik, hauts tenpestarik eta bulargabeko armada espektralik ez zeukan txabola karratua pegartegiraino aztalezkatu zuen, sentsualki. Makinaren korroka. Familia kanpoan zegoen jadanik, eguerdiko talo apailatzen. Kikera dudakorra ekarriz, Iztak behialako galdea lelori bai leloritu zion, jeloskeriaz elkor:

– Nor da Wittig?

– Arizonako Tucsonen zendu frantses idazlea.

– Arranguratu nauzu: ez zara gelditu!

– Amesgaiztoa zen.

Eriak ileetan iltzatu zituen. Pulquearen eragin fisikoaz, barneko samindura metatuaz ala Posa Ngakaren soinu tresna minimalaren nostalgiaz ote zitzaizkion figura fantasmatikoak oro kaskoan oldartu? Finaren finean ongi oroitzen zen hiletarik berpiztu amari *fence jumper nizate* zin zegion uneaz.

– Coatli eta Lamda chevrolet batekin etorriko zaizkigu. Jaikitzeko ordua dugu. Zei eta Psili iturrira urketa lagundu ditzagun...

Manastabal, ene gida.

Tucson. Haritz ona.

–5–

Mexikotik iparraldera ateratzea zerbait zen. Jendeak mentsa bezala gidatzen zuen, esku batez takoak klikatu eta besteaz telefonoan solasean. Berina uherrekiko kamionetaren bolantea nork bada zuen atxikitzen? Misterioa zeritzon Sigmari, Iztarekin gibelean zegoela, Zitaren bi umeen aldean. Coatlik gidatzen zuen, Lamda saihetsean. Bizpahiru eguneko bidaiarako ura, janariak eta maletak metatzen ziren kofrean. Goiz baketsua zen, partikulazki Sigmarentzat gaua Iztarekin amodio eta amesgaiztoz irauli zuelako.

Iztak jarraikarazten zuen mariachi giroko abestiekiko konpaktua autoko irakurgailuan sakatu zuten. Eguraldi hauta zeukaten. Psili eta Zei Omiasainduko panpina-piztiekin ausatzen zirela, Coatlik Lamdarekin eleka zerraikan eta Iztak noiztenka amultsutasun keinuak bidaltzen zizkion Sigmari. *Un mundo raro* marmaratzen zuketen, bazterrei beha eta bakoitza bere pentsamenduetan ihalozka.

Tu l’aimes ou tu la quittes.

Y que nunca he llorado.

– Pueblara noanean –artekatu zuen Iztak– gustatzen zait Iztaccihuatl eta Popocatepetl sumendien mirestea. Autopistaren hegian geratzen naiz, beti leku berean, eta begira nagokie, urrunean bermatzen dela Malinchearen tontorra. Gatibatzen naute osorik. Badakit orduan arima bat badudala.

– Nik ere baditut horrelako flashak –Iztaren aitorrari Sigmak lañoki erreferatuz–, Hendaian nagoenean demagun. Euri ala ateri, maite dut Abadiaren funtsak oinezkatzea eta gero Loiara zut-zuta jaistea, iragan neguan lurtatze itzelek xendra moztu ziguten arren. Mendeak mendetegi nagitu ninteke han, itsasoa burkide, sutzen doan eguzki leinuruak txorien uhartea kilikatzen duela. Edo Santa Ana puntako harkaitz gorrietarik Dunbarrietara zulatzen dut. Isiltasuna ukigarria zait eta ez nuke hortik sekula kantitu nahi.

– Xoxokeriak dira –Lamdaren ebazpen zorrotza.

Lagun ohiaren zinominokengatik, Sigmak jarraitu zuen Iztari zehazki zuzenduz:

– Ilbarritzeko holtz eta harri kolore aniztunak kuttun zaizkit: zuriak, beltzak, buztintsuak, burdin arrosazko zainekin, laranjak, urdin turkesak, berde esmeraldak. Ortzadar antzo. Posa Ngakarekin aztalezkatu nituen eta jada ez dezaket olatuen kolpeka pigmeoak orrazi musikalaz sortzen zuen soinutik bereiz. Ozeanoa gure baitako primitibotasunarekin uztartzen da, amontzi minbera, arrangurak, penak eta pozak oro bahetuz, bizitza aldizka mehatxatuz eta zilegituz.

Psili eta Zei lo ziren. Sigmak, konturatu gabe, Iztaren ahurra zetxikan. Potosi hirian oraindik ere, meategien espainiar nagusien, batzuk euskaldunak, azote ukaldien pean odoleraino zaurituriko indioen oihu eta garrasiak oihartzen ziren. Iquitos eskualdeko Maranon ibaiaren ertzetan Peruko Armadak kalituriko ehun bat indigenen hondar marrakak hauteman zitzakeen halaber, jendeak ez bailiran garinpeiro eta egur trafikanteek metodikoki erailtzen zituzten Amazoniakoenak, hala uste zuen behintzat, Alfajarinetik Londresera itxuraldatu eta Teotihuacanen pulquea irentsiz geroztik, humanitatearekiko oihal meha-

rra irun zezakeen. Aditz analitikoetan behaztopatzen zen baina galtzekorik ezer ez zeukan.

Lamdak ordenagailu eramangarria pizturik zaraman. Makina altxatu zuen, pantailan agertzen zena ikus zezaten.

– Kalifornia Behereko estatuko uretan filmatu baleak dituzue hor. Batel bat alokatu genuen eta hurbil-hurbildu gintzaizkien. Uhina okertzen zihoan, ontzia uzkailtzear eta gu, kuzkur, hormatuak. Ez nuen nehoiz balearik hain hurranetik kukuzkatu. Buklean dakuskit. Ez naiz aspertzen.

So etsiaren samurra.

– Ugaztunen dantzaz horditzen da, mihiseen hezetasuna ahanzteraino. Egia da nardatzen nauela. Agian ohe-kide berri bat bilatu beharko nuke.

– Zaude isilik, Coatli, horrelakorik ez.

Gurutzune batean, konputerra plegaturik, Lamdak karta xeheki aztertu eta *Zacatecas-Durango* erakutsi zuen hatzaz, urguiluz, egundainoko kopiloturik trebeena bailitzan.

– Ez goaz Ciudad Juareztik?

Iztaren eskaera kezkatua.

Sigma anartean, balea abisalen intziriak belarrimen, Lamdarekin amodioa zegien arratsaldeez ameslari lerratu zitekeen. Noski, iragana zen, linburra bezain arina. Lamdaren larruaren leuna, gorputzaren bihurria, ilediaren salbaitasuna hazta eta *hau guztia bukatu da* zerrasan furfuriarik gabe. Haserrerik ez. Erresuminik ez. Are gutxiago bozkario faltsurik. Egunerokoa zen, eraiki eta hauts, isildu eta mintza, batera, bakarka.

Durango: ordubete.

Irri aingerukoia marraztu zuen: munduan izen bereko hiru herri bazeuden, eta Euskal Herrikoan baino hogei urte lehenago egona zen Coloradokoan. Jadanik albino koloreko biloekiko Perdita Durango bat baizik ez zitekeen eta Lamdaren behakoan amildu zen. Psili egarri eta Zei gose iratzartu, eta ur botila eta ogitartekoen ihalozkak hasi ziren. Sabela zetxikala handienak pixagalea zeukala jakinarazi zien, menperaezina alegia.

Geldi leku oparora bihurtu zen Coatli:

– Paratu gaitezen.

– Delicados bat erreko dut –erantsi zuen aharrausika eta hezurrak estiratuz Iztak. Sigmaren gerrian ezarri zuen besondoa. Eletrika zebilkion zainetan.

Hargatik Lamda eta Sigma Galaxia dendaratu ziren. Segurtasunezko distantzia mantenduz. Isilik. Hausnarrean.

Kontuarrak gidari gihartsuz mukuru zeuden. Familiek takoak manatzen zituzten. Haurrak orroaz zebiltzan, amerikar musika melenga zerien bozgorailuei amore emanarazteraino. Ar urrina. Izerdiarena. Lanarena. Lamdak bere betekizun biologikoa konpliturik, makina zurrungatsuen maldan eskuak garbitzen eta lehortzen zituela, Sigmari deblauki galdatu zion:

– Haserre ala?

– Ez, batere. Ez dut hizketarako gutiziarik.

– Coatlirekin naizelako?

– Iztarekin nintzen barda. Ez daukat zureganako sentimendurik. Geltokietako nobela eskasaren orrialdeak xehekatu ditut azkenean.

– Gurea eleberri txarra baitzen?

– Amodioak bukaera bat baduela eta kordoka egokiro kudeatzen ikasten da denborarekin. Bereziki Amerika hauetan. Ez dea hala?

Torra. Torra. Torra. Mirailean begitarte mentsa jarri zitzaiola konturatu zen Sigma. Besarkada batez estutu zuen Lamda, ezkel, kopeta izerditsuan pott herabea pausatuz.

– Harritzen nauzu.

Zer beste zezakeen ahozka?

Bekokia makur tematu zen gainerakoek beilatzen zuten chevroleteraino. Damu ote zuen? Zer zen Lamdari kolkoan kurruska zebilkion har hura? Musumina? Sigmak ez zion deus eskatu, ez barkamenik, ez eta eskermenik. Izta han zegoen, Coatli eta haurrekin. Ederra zen, azkarra, elekaria, urduria noizbehinka.

– Goazen. Astirik ez dugu. Nogalesko Paloma Negra Motelean igurikatzen gaituzte iluntzean. Ganbarak erreserbatu ditut zuek gasolina ordaintzen zenuten artean. Lauzpabost orduko bidaia daukagu.

– Pazifikoaren hegitik joango gara?

Autobusek eta garraiolariek partitzean altxatu errautsetarik salbaturiko Sigmaren boza zen,

itxaropen, kemen eta kalipu. Jauzi bakarrean kotxean entzerratu eta txikiek liburuak hartu zituzten, Lamdak giderra. Coatlik kuluxka bat eginen zuela iragarri zien. Izta Sigmaren ondo-ondoan kokatu zen.

Pazifikoa. Pazifikatua. Pazifaeren parpailak.

Amerikar zeruen handitasun naifak berazten zuen Sigma. Irratian Kaliforniako KSTR katetik erautsiriko technomex soinua hegalda zetorren, erritmo tektonikoa, ranchera apurra, country aire amiñi bat, norbaitek trikia Joseba Tapiak bezain maisuki jotzen zuela argi zegoela.

Durango probintziako Mazatlan sarrerako peajean Nogaleserako norantza hobetsi zuten. Hermosillon afaltzea erabaki zuen Lamdak, oren bat eta erdi geroago hotelean izateko. Psiliren eta Zeiren tripa zolak betetzekoak zituzten. Iztaren iloben karbek ezinegon garratza finkatzen zuten:

– Noiz helduko gara?

– Laster, laster...

Iztaren arrapostuak baketzen zituen doi-doia. Coatlicue suge lumadunaren ipuina kontatzeari uztartu zitzaion, Chalco txabolerrian telebisteta-

ko kolorezko istorio sotilagoen irensteko ohitura zeukatela bazekien arren. Amaren aterpearen pareko familiak, zakarrak salduz, pantaila numerikoa erosi zuen. Halaz bertaratzen ziren karrika xinitratu hartako mukizuak, saldoan, marrazki bizidunak, telesailak eta MTVko emanaldiak xurgatzeko eskolatik landa. Ikastetxea eraiki baitzuten gizonek, zeregin ebanjelikoz harroturiko apez indigenen planoak egiaztatuz.

Iztarentzat eskola jendetasunerako lehen urratsa zen. Sinesmen hutsala zela ere ohartzen zen, europar zurien eredu unibertsalak zituela alabaina kasko zokoan iltzatuak, jakitatearen partekatzeko mila ehun eta bi molde bazirelako globoan zehar, ez batak besteak baino hobeak, toki bakoitzean eraginkorrak baino. Funtsean Chalcon ez zegoen antolaketa edo presentzia publikorik. Auzotegi bat arriskutsua bihurtzean edo adinen piramidearen arabera haranak zahartzean zerbitzuak desagertzen ziren, banan-banan, ezer ez zuena are gabetuagoki ihardokitzera kondenatuz.

– Coatlicuek lagundu ditzala...

Iztaren boza entzuten zuen Sigmak. Bihurgune gorakoietarik Pazifikoa ageri zen eta Lamdari berehala gelditzea otoiztu zion. Kalifornia Behereko lur-muturrak ortzaizea purruskatzen zien:

– Guerrero Negron eguna baleak ikertzen iragan eta gauez paipai zein kumeiai leinukideen kontakizunak biltzen genituen.

– Indioak orain –artekatu zen Izta– San Jose sudurra baino urrunago doaz arrantzara, Estatu Batuek Colorado ibaiaren delta lehortzea lortu dutelako. *New deal*-aren garaian barrakia eraiki zuten eta dagoeneko uholderik ez dator bazter hauen bustitzera. Katastrofe ekologiko bat ari da gertatzen. Aberatsek ura pribatizatzen dute. Nekea eta gosea sozializatzen. Datozen hamarkadetako gerla-muskila.

Sigma ausartu zen, soraio:

– Betiko historia. Irabazle eta galtzaileena.

– Eiki. Baina galtzaileek dute izadia bultzarazten, asaldatzen direnean, atzerritarrek dagiten eran, mespretxu guztien gainetik beraien indarra lekuko gizalde geldotuen genoma-kulturaletan txertatzen dutenean.

– Mugimenduan sinesten duzu, Izta?

– Monotoniaren iraultzan. Ihesaren higikortasun itsuan. Urrikiaren biribilketa samurrean. Sigma...

Behatzak ebatsi zizkion.

– Pazifikoari beha nago.

– Arrazoi bat gehiago.

Iluna zetorrela, olatuetarik argitasun iluminatua pizten zekusan. Halakorik balitz, arrastiri borealak imajinatzen zituen Iztaren ahurraren epela haztatzean. Patagonia xuxurlatu zuen, Ushuaia, Porto Alegre, Valparaiso, Asuncion, Manaus, Pernambuco, La Paz, Arequipa, Lima, Bogota, Caracas, Paramaribo, Panama eta letania iraulgarria bukatu zuen, hasperenez:

– Iratiko oihana... Bagargiko lepoa, pagoen larrualde zilarrak eta biharamuneko laino gris trinkoak. Itsumandoka noa Ezterenzubiraino Irauko xendratik: ez nau izutzen, ez erortzeak, ez eta eratorrian ibiltzeak. Zoriontasun bulta horietan, mundua naizela sentitzen dut, ez partaide, ez etsai, ez zati, mundua, bere osotasunean.

Nogales: hogei kilometro.

Iratiko freskuraren aipatzeak ikara hazi zion. Gogoa zirurikan zebilkion jagoitik: Santiago

auhenkatu zuen, Montevideo, Iquique, Cuzco, Quito, Medellin, Panama, hatsa hartzeko gelditu eta San Jose, Managua, Tegucigalpa, Guatemala, El Salvador, Belmopan... eta Iztaren soin malguaren liluraz betazalak altxatzean, zeru espektralean ke beltza lurretik ernatzen begimen zeukan:

– Zer da hori?

– Sonora desertuaren mugetan gaude. Gurpila zaharkituak erretzen dituzte, erabil ez ditzaketenak. Baliagarriak konpontzen eta iparramerikarrei saltzen dizkiete, kamioitaraka.

Coatli zen azalpen emaile.

Psili eta Zei zutoinaz jabetu zirenean, daldarak eraman zituen. Telesailetan hainbestetan agertzen zitzaien begirik bako ziklonaren presentzia susmatzen zuketen. Iztak Psili gerizatu zuen eta Sigmak Zei. Ahultasuna ikur. Egoera biguna zen. Zutaberantz ari ziren. Hargatik ezker jo zuten, keak setiatuko zituelako beldurrez.

Lamdak karkailaz apurtu zuen kotxeko malgorra. Haurrak abilki ausatu zituen, errepide hegian herronkatu supermerkatuak aurkeztuz, jantegi merkeak, ostatuak, hotelak, arropa magasi-

nak, markekikoak, arruntak, drive-in zinemagelak, bankuak, garajeak, auto-saltegiak eta ingurumenean bakarrik sustraituriko kapera xumeak.

Coatlik orduan:

– Pornografia hutsa zait, kontsumo derrigorrezkoarena hain zuzen. Ez da iganderik, hordimenezko astelehenak baizik; begira ezazue hiriak hiperdendetan nola diren kordelatzen, norbanakoaren askatasuna erosketetan finkatzen bailitzan eta modelo hori genuke, garapenaren izenean, lurralde guztietako bidonville likitsetako sargietan errotu nahi, ultraliberalismoaren ebanjelio berria irents dezaten... Eta gu agorafobikoak gara, solas izpirik ez dugu iruten, nehorekin, are gutxiago ordain-kutxetako mozkote panpoxekin. Kreditu txartela trukaketa mutua eta kito. Ez agurrik. Ez eskerrik.

Chiriqui, Guanacaste, Juticalpa, Matagalpa, Ahuachapan, Zacatecoluca, Quetzaltenango, Izabal: nondik jazartzen zitzaion ez zekien izen uhar batek ito zuen Sigmaren zerebroa. Hiri bateko sarrerako seinaleetan Nogales leitu eta

Amerikak bere baitan kolpeka ari zitzaizkiolakoaz segur zegoen.

– Alea jacta est.

Gauerdi zen Paloma Negra Moteleko harreran plantatu zirenean. Hamabost orenen buruan erabat akituak ziren. Psili eta Zei bereziki. Indio aurpegiarekiko adinekoak bi geletako giltzak eskaini zizkien:

– Tako saltzaile bat daukazue, hor, eskuinetara. Noizdanik ez duzue jan zuek?

– Urrundik gatoz –zehaztu zion Coatlik, elez zuhur, zer gerta ere.

– Lehen estaian daude ganbarak. Zarata pixka bat bada, dakikezuenez Ipar Ameriketako fronteratik hiru kilometrotan baino ez gara. Kamioilariak badira, asko. Klandestinoak. Polloeroak. Koioteak. Guretzat ordea ez da mugarik, hangoak eta hemengoak gara. Hala ere kontuz ibili.

Algara gizenaz haiatu zituen.

Sukalderatu zen, konkor eta urintsu. Irratiak ranchera doinua barreiatzen zuen. Lanpara artifizialek, partikulazki neonezkoek, ilunpeak soleitzen zituzten. Chevrolet urdinak, cadillac gorriak eta harley davidson zoharrak lerrokatzen ziren

tatuaturiko itzalak lerratzen zihoazen aparkalekuan.

Coatlik gidarena zegien:

– Nogalesen aurkitzen da Beta taldea. Mexikar polizia oldeak, paper gabeak botitzen eta eritzen direnean artatzen ditu. Zentro bat daukate. Hondurastik, Guatemalatik, Nikaraguatik, El Salvadorretik, Perutik eta Mexikotik datozen migranteak dabiltza droga eta prostituzio korridoreetan, nora ez, zauri fisiko eta psikiko larriekin. Udaran *flyers* batzuek gune lanjerosak non diren azaltzen dizkiete. Zortziehun pesoren trukean –Mexiko DFrako autobusaldiaren prezioa da– aspaldi hasi *trek north* larriari uko dagiote bakarrek, ez beraien borondatez naski.

– Hegoa iparraren harresietan joka dabil.

Trek north eta dougouma sira.

Izta Sigmarengana makurtu zen. Psili eta Zei eskutik zituen. Ahapez mintzo zitzaien. Coatli eta Lamda lo gelan sartzear zebiltzan. Beribil azantzak eta gizon mozkortuen heiagorak entzuten zituen Sigmak, lagunaren zintzurrots kezkatuaz jabetu zen arte:

– Ez dugu aipatu, baina zuk Estatu Batuetan sartzeko baimena baduzu.

– Baimena? Zertako? Europarra naiz.

– Arazo larria edukiko dugu bihar fronteran.

Malinchea ohoratzen zuena gontzetarik erauzi zen:

– Ez da egia, ez dezaket sinets. Setiatzen gaituzten klandestino horien pare zabiltza. Ezin da! Zer daukazu buruan?

– Mexikon ez dute bisarik galdatzen...

– Ez, noski. Baina Osaba Samen erresuman bai.

Puskilak ohe gainera aurtiki zituen, artega eta kexu. Sigmaren amateurismo kaskarina gaitzesteko aski aditzik ez zeukan. Posa Ngakarekin Londresera joatean, epez gainditutako nortasun agiria Parisko metroan kontrolatu ziotelakoaz gogoratu zen. Posaren paper faltsuek balio zuten hargatik. Ingalaterratik Baionaratzean, suprefetura joko zuela erabaki zuen. Zeregin dorpeetan larrantzirik garrantzitsuena erabat ahaztu zitzaion.

Ateka gaitzetik ez zen salbatuko.

Nogalesen halaz migrante larruz zebilen. Latzena zetorkiokeen: oren segida astunez mugazainek chevroleta miazkatzen eta blokatzen, Psili eta Zei malkotan deika, izua, herresta arruntak bailiran atzera bidalketa hiritar plantakoen so epailez setiaturik, orduan zinez akabo Amerikak.

Sigmak Iztarenetan arpurutu zituen ninikak:

– Ez dut aukerarik.

– Ez duzu nehoiz aukerarik, zuk. Edo Mexikora itzultzen zara autobusez edo...

– Badakit.

– Igerika ikasi zenuen arauz?

– Zergatik?

– Rio Bravo aiduru daukazulako.

–6–

Paperik ez zuten haurrei kasurik ez omen zegieten mugazainek. Iztaren arabera behintzat. Gogorragoak ziren helduekin, askoz, bortizki kartzelaratzen zituzten eta yankien presondegiak famaz ez zitezkeen samurrak, legerik gabeko Guantanamokoa aintzakotzen baldin bazen bederen.

Garbi zeukan Sigmak:

– Guantanamokoak bezala baldin badira, beldurtzekoa baduket.

– Hainbeste ez. Baina ezagutu ditut angelu bako lau horma zehargien artean eroturiko Mexikoko San Nikolas koloniako mutikoak. Kanporatuak izan eta ez zuten sekula beraien huts egitea onartu. Auto eta tresna gurintsuak trafikatzen dabiltza, nora ez eta arras herbal. Suizidatzear.

– Izutzen nauzu.

Umeak oheratu zituen Coatlik. Lamdarekin moteleko gelaren atarira irten zen, ilargitan zigarretak erretzeko. Larru iluneko bizidunak, oinak herrestan, errondan zeuden petrolio barrikoteen

aldamenean. Muga urratzearen zain. Paloma Negrako lehen estaira luzatu zuen begirada Sigmak, eta errebes haien destino berdina pairatzera zihoala pentsatzeak azala zimurtzen zion. Dudak ito zuen. Hoteleko harrerara lehiatu zen lekuko ohituren jakinean zegoen Iztaren atzetik.

– Jabeak sareak ezagutzen dituzke, ikusten duzu nola ari den ahapez, sudaca saldo horretako buruarekin. Eska diezaiogun.

– Ez dut ezer galtzekorik.

Guadalupeko ama birjinaren marrazkiak eta biluzturiko emazte ponpoxen bularrak uholde zeuzkaten kamioilari-egutegiak zintzilikatzen ziren hormetan. Giza kaskezur zurbilek eta idi adarrek hornitzen zuten txokoa. Ezko-argiak dildil. Hilda izena papoan idatzirik zaraman langileak. Asper egotzia zen, Izta eta Sigma hurreratu zitzaizkionean:

– Bahai?

– Zerbitzu baten eskatzera gatoz. Ez da erraza azaltzeko.

– Presatua naiz.

Irratian brazero frakasatuaren abestia zebilen. Sarri pasagiara atrebituko zirenek, tekila ba-

soak koskatuz, suertea opatzen zioten bata besteari, inkontzientziaren algaraz: *como no traía dinero me paraba en las esquinas para ver a quien gorreaba los pescuezos de gallina*...

Izta ez zen toteldu:

– Ez du paperik Ameriketaratzeko. Koiote bat bilatzen dugu. Dirua badugu. Gaurko behar luke.

– Koioteek dolarrak dituzte hobesten.

Kantariak zerraikan: *me salí a la carretera muerto de hambre y desvelado me subí en un tren carguero que venía de Colorado*...

Sigmak gaztaroan irentsi westernetan baizik ez zituen koioteak begimendu. Abere lanjerosak ziren, abilak, errautsean aztarna borobilak uzten zituzten rattle-snake piztia herrestariak bezain. Hildak moteleko mutila norabait bidaltzen zuela, itxoitea aholkatzen zien bitartean, nonbait irakurri istorio tragiko batez oroitu zen Sigma. Ostalerak ekarri suzko urez bete godaleta haztatzean, hiltzera kondenatuaren azkena bailitzan, Iztari kontatzen hasi zitzaion:

– Hondurasko emakume bat behin Phoenixera gidatzeko garesti ordaindu zion gizonak jo, bortxatu eta desertuan abandonatu zuen. Coa-

tlik aipatu dizkigun Nogalesko Beta taldekoek zuten artatu, amerikar border patrol garratzek hil zorian atzeman eta ukaraiak loturik libratu zietelarik. Agian ez zait horrelakorik gertatuko.

– Ba pentsa!... Nahiz eta muga ez den inondik ere Testamentu Zaharreko erreka trankila. Burdinazko murru gorakoiak badira denetan, eta amerikarren ametsa Rio Bravo ibaiaren hegiak Pazifikotik Atlantikorakoraino herstea da. 1995ean Duncan Hunter diputatu errepublikarrak *fence* horren eraikitzea proposatu zuen. Gobernu federalak San Diegoko eskualdea zarratu zuen Vietnamgo alanbre hondarrak erabiliz. Bideo-kamerak aurkitzen dira, border patroltegiak eta hiritar borondatez linea berdea kukuskatzen duten amerikarrak. Mai Lai edo Abu Ghraibeko beteranoak. Minutmen entzutetsuak immigrazioaren kontrako borroketako heroiak dira dagoeneko. Kamioetan txakur gosaioak dauzkate, largabista infragorriak, matrakak, eta tiroka dezakete. Izengoiti erranguratsuak daramatzate, hala nola Lone Wolves, Gadget Dan, Kingfish edo Radar Jim.

– Bitxi zait oraindik ere agiri gabea izatea. Paranoikoa bilakatzear nago, badakizu: *big brother is watching me and so on*. Jainko larderiatsuak gaztigatuko lukeen bekatorosa naiz eta bizitza kutxalapilean jokatuko dut.

– Bada izutzekoa... Baina laguntza elkarteak badira Mexikon eta Estatu Batuetan, XIX. mende erditsuraino lurralde hau mugagabea zela ez ahanzteko. Indioen eta chicanoen eremuak ziren. Kultura bera zuten. New Yorken badaukat uda oroz hona datorren erizain adiskide bat...

– Nogalesera?

– Linea guztian zehar ibiltzen da mediku eta herritar apurrekin, gero eta gorago doan hesia gainditzen saiatu eta lortzean ilegalek pairatzen dituzten zauriak sendatzeko. Traumatismoak, hezur apurketak, haragi urratzeak, duntzetarik eraisteak senda ditzakete San Diegoko ospitalean, bai eta konplize mutuak dituzten gune zehatzetan. Ilegalen sustengatzea Estatu Batuetako *patriot act* haren aurka egitearen parekoa da, nehork ez du deus erraten, tabu bat bailitzan.

Irriz lehertu zen Izta.

– Paradoxala da, Amerika hauek, ipar, hego eta erdi batera kontsideratuz, populatu zituzten guztiak ilegalak baitziren, Europatik zetozen gerlek, goseteek eta *american dream* zelakoak akuilaturik, Guatemala, Nikaragua edo Perutik letorkeen edonoren moduan. Eta amerikar ametsa ez da bakarrik dirua eta boterea metatzea, pobreki izan arren libre irautea, apezen, notableen, familien, auzoen erramerranetarik urrun eta aske baino.

– *Better Life* hura.

– Bai, horixe.

Despues llegó la migra de la mano me agarraron me decían no sé qué cosa en inglés me regañaron me dijeron los gabachos te regresas pa'tu rancho: Sigmak moteleko berinazko borta automatikoa irekitzen segitzen zuen. Lamda zehatz zezakeen eta, haren ondoan, armadetako trelliz apaindu itzal lerden eta zainarta. Maitale ohia nekatua zen, Psili eta Zei zurrungaz zeudela, Coatliren hegalpera atsedentzera joateko presatua behar bada:

– Garaiz altxatuko gara bihar?

– Zortzietan trabesatuko dugu Frontera. Orduan egiten dira txandak. Hildak dioenez bederen.

– Hilda?

– Moteleko jabea.

– Etxekotuak zaretela ohartzen naiz. Ohera noa.

Lamda desagertu zen. Berehalakoan Sigmaren bostekoa tinkatzen zebilen *Suzie Bee naiz* ahoskatuz aurkeztu zena. Indio jatorrikoa zen, hopi edo navajoetarik menturaz. Hortzak zuri zeuzkan eta barre iluminatua.

– Zu al zara nirekin etortzekoa?

– Bai, ni naiz. Sigma. Paperik ez dut.

– Bidaideak agurtu itzazu, gogoan atxikiz ez dituzkezula berriz ikusiko. Goazen. Tratua egitekoa dugu ezta?

Iztak billete plegatuak sakatu zituen Suzie Beeren bizkar-zakuan. Sigma besartean tinkatu eta musukatu zuen, bazter-behakoen axolarik gabe. Suzie Beek keinuka eskertu zuen Hilda. Ele gutxi zerabilen, ekintza tazitoak, inplizituak eta eliptikoak baizik ez baitziren hemen garatzen. Sigmak, euskaldun gisa, nahikoa bazekien horre-

taz. Herrian hain ziren hitz egiteaz beldur, lagun proximoa kolpatzeaz partikulazki, borroka armatua demagun edo pornografia urrina zerion mintzairaren geroa aipatzean, agurra bera murritzenera laburtzen zen *ep!* motzenera, soa ezkel, zer agitu ere. Jendetasunaren zero gradura errenditua zela zioen Sigmak, sorbaldak mugituz Hilda despeditzen zuela.

Motelaren loiroa argiztatua zen. Tegi likitsetan zakurrak auhenez ari ziren, lauzpabost igel solasean, zirri-zarra elkorrak eta nogales ziztadunetarik Suzie Bee zein Sigmaren urratsak ozen zebiltzan, isiltasuna zizelkatuz, artatuz, salbatuz, hobetsiz.

– Nogalesko pasagia gustatuko zaizu. Mugatik bostehun metrotan sator-zulo bat daukat. Ordu txikietan mugituko gara.

– Lotsa naiz. Izuak naroa.

– Ez da momentua. Zernahi gerta ere, ez dugu elkar ezagutzen. Ez dakit nor zaren eta ez nauzu nehoiz gurutzatu.

– Zaila izango da. Baina bai, bihotz pilpirak jabalduko ditut. Dena den iraganen diren anoni-

mo ugarien zortea partekatuko dut. Konfiantzazko norbaitekin. Zergatik axola?

Argizaiola eho zuen Suzie Beek, eri erakuslea ezpainetan zut-zuta. Urrunean xuxurla elkor estofatuak aditzen zituen Sigmak: fortunazko bidaiarienak ziren ala errautsak zutoinduz temaz zihoan haizearenak? Sabel harrikatuen karrankak? Kaktus handios baten arantzak ahurra zirrimarratu zion. Odola ttanttaka.

Fronterako aizolbe eskasen saihetseko errepidean nagitzen ziren autoen faroek noiztenka inguma biek aztalkaturiko xendra erraztatzen zuten: mageyes eta nogales landare lodiez aparte, nopaltzeak bazirela baimen zezakeen, baleena izanik, kaktusen espezialista bihurtua baitzen engoitik Sigma. Abar eta nahar lehorrez perdukatu zola hartan Suzie Bee zalu-zalua aitzinatzen baldin bazen, Sigma haztamuka zihoan gibeletik, trabe eta trauke.

Kopeta altxa eta ortziko izar kliskariena desiratzean, Izta, Coatli eta Lamda haurrekin ohe gozoetan etzanik itxuratu zituen, halaber Posa eta Fahir Londresko Sohon, bai eta Modou Aminatarekin Bamakoko migrante deboilatuen getarian.

Negarra jauzi zitzaion: maite zuena Izta, zinez, hartarik urrun irauteak irekiko liokeen hutsune antsiatsua asmatzeraino? Aire arinaren biribilketa soinuak belarrietan, harritu zen jadanik zenbateraino falta zitzaion neurtzeaz. Desertu usain idorrak kilikatzen zion sudurrondoa eta baketzea erdiesten ez zuen burumuinaren ardatz karrankaria.

Lurpeko sotoan sartu ziren. Meategi abandonatu baten sarrera zen. Egurrezko zutabeek zetxikaten buztinezko murruaren armairu eskasetan puska apurrak zeuden, Suzieren altxorrak, egunerokoa bermatzearren: arropak, laserdun irratia, telebista mugikorra, David Lynch eta Arturo Ripsteinen DVDak, hamar bat liburu eta janariak, arratoien meneko, irrisa, arto irina takoak eta tortillak adelatzeko, kafea, tea eta han hegats pearen kantoian, tekila reposado botila erdi betea.

Ali Babaren harpean Sigma sosegatu zen. Amaren sabelean bailitzan.

Suzie Beek egitaraua bihikatzen zion:

– Autobusa hartuko duzu. Hara txartela. Tucsongo sargian dagoen Dineh Bar izeneko ostatu-

ko geldialdian jaitsi eta lagunak helatuko dituzu. Han batuko zarete.

– Umeek pasaporterik ez daukate.

– Iztak erran dizu mugazainak ez direla gaztetxoekin hain zakarrak. Ez dira mesfidatzen. Gainera edonoiz hortik jende asko badabil. Ez dute betarik kontrol xeheak obratzeko.

Hobe pentsatu zuen Sigmak. Gauerditan abiatuko ziren. Suzie Beek kafea berotu zuen. Urrina barreiatu zen bordatxoan. Liburutegian Octavio Pazen *El laberinto de la soledad* obra esku arteratu zuen Sigmak.

– Ilunpe honek soleitzen baldin banau, osorik leituko dut, eta gazteleraz.

– Ona da, gurea da, baina ez dezagun astirik galdu: biluz eta bezti zaitez. Hor dituzu jantziak.

Kamiseta eta jeansak erantzi zituen, militar kutsuko galtza eta paltoz ordezkatzeko. Bereak bizkar-zakuan tolesturik, mirailari plantatu zen:

– Ni neu naiz?

– Ez al duzu zure burua ezagutzen? Torizu kafea. Mugalarien txanda aldaketa dator. Erna gaitezen. Hau ez da San Diego. Hutsuneak badituzte eta, gu, koioteak, horietaz baliatzen gara.

– Klandestinoak gidatzetik bizi zara?

– Gutxi gorabehera bai. Ez naiz besteak bezalakoa: pasagiaren erreusitzea ohore bat da niretzat. Gustatzen zait bidaia alfatik omegara korapilatzea eta bezeroa behar duen tokian abandonatzea, salbu eta sano.

– Lortzen duzu beti?

– Gehienetan bai. Beste bi polloerorekin ari nintzen. Orduan nuen dastatu Tucsonen hiru asteko kartzelaldia. Geroztik bakarrik ari naiz, bakarrik eta saldo oso txikiekin.

Hasperen uhertu zen Sigma. Botereek altzairu edo zementuzko murru leunak segaildu arren, klandestinoak saguen antzera harresietarik zirristatzen ziren, gatu urguilutsuen ardura engainatuz. Amerikar hiritarrei Mexikotik zetorren droga trafikoaren kontrako geruza gisa aurkezten zitzaien, indartzeak eta hedatzeak kostatzen zuena, zinkurin barik, baiezkoan bozka zezaten. 2006ko urrian *Secure Fence Act* zelakoa izenpetu zuen Bushek. Herrialdeak ezin garaituzko fortalezen maneran hertsatzen zituzten, europarrek Ceuta eta Melillan zegiten legez.

Gogopena desertu zeukan.

Suzie Beek, urduri, joatekoak zirela xuxurlatu zion.

Ilargi beteetan otsoak nola, hala lerratu ziren Sigma eta Suzie Bee sapar zakarretan. Ez ziren mintzatzen. Onomatopeiaz komunikatzen zuten. Mugak osatu askatik zekusaten gainaldeko bidean mexikar polizia-kotxe koloretsuak zelatari zebiltzan. Ibaiaren hurbila usnatu zuen Sigmak: lohil eta lokatz. Ez zen handia.

Sokaz estekatu ziren gerritik.

Abere edo izate primitiboaren jaidura harrotzen zihoakion. Bista egokitzen zitzaion, hatsartzea sakontzen eta belarria irekitzen. Denmendreneko azantz arraroak pararazten zituen, adi. Suzie Beek erabakitzean, aurreratze urriari ekiten zioten berriz.

Hondarrean, ura zilborreraino, erreka gainditu eta pareko ezpondan Suzie Beek *this is America* mailukatu zion. Zapatak aldatu zituzten fronterako alanbrezko hesiaren maldan. Suziek trukesak atera zituen poltsatik, burdinazko zarrailua ebakitzeko, bi gorputzen iragateko adina.

Koiote zuloa zen.

Tu la quittes.

Suzieren hatzetarik lerratu zen Sigma. Argizagia eleka ari zitzaien. Sirenak eta intziriak haztatzen zituzten. Oihutxoak. Kikizaiak. Manuak. Mundu zarpaildua. Trastutua. Unatua.

Rio Bravoren Arizonako hegian gora zebiltzan agudo, zanpa-zanpa. Suzie Beek zerrasanez, Chriss Blair minutmenaren 4x4a sasietan zegoen, geldo, motorra pizturik. Betaurreko infragorriekin miatzen zuen ibar xinaurritsua. Arrangurarik ez eta azkenean lekuz aldatu zen. Zarataz balia, Sigma eta Suzie Bee korrika zinpurtu ziren, bi mila metroz bederen gelditu barik, hatsak birikak urratzen zizkiela.

Txabola amildu baten bortan jo zuten.

– Hara –besterik ez zen Suzie Beerengandik jazarri.

Pasatzeak justu oren bat iraun zuen.

– Jimen gomendioan uzten zaitut.

– ...

– Itzuliko naiz. Hesia konponduko dut. Suerte. Jimek Tucsonerako autobusera eramanen zaitu. Eta, ez ahantz Dineh Barrean duzula lagunekiko zita. Emazkidazu arropak, eta jarri itzazu zureak.

– Jim, ohikoa honekin ere.

Behatz erabakiorraz ehun dolar iltzatu zizkion telebistaren azpiko mahaitxoan. Kanpoan nehor ez zen, haizearen izpiritu eraldatua baino. Alta Sigmak bazter guztia birika artegaz perlatua zela bazekien. Irudipenaren bitxitasuna hausnartzean, Jimek barnera gonbidatu zuen, nolabait ongi merezituriko kafea hurrupatzera.

Goizeko biak ziren.

– Seietan ene pickup zaharkituaz geltokiratuko zaitut. Lo egizu amiñi bat.

– Bururatua dugu?

– Zinez bukatua dukezu Dineh Bar-eko kontuarreko ttottogietan eseriko zarenean. Anartean kezkatzekoa badugu beti. Dena dela bizidunari segurantza izpirik ez dagokio, ez mugak, edozein, urratzean, ez herioan, are gutxiago bizitzean berean.

Indioa bizkarrez miretsi zuen eta zurrungari eman zen. Hautsak. Hats bahituak. Tiroak ortzaizean. Suge arrakalariak. Suzie Bee. Egunkarietako laburrak. *El laberinto de la soledad*. Iztaren eztitasuna. Izerdia. Beldurra. Sirena hotsak. Amesgaiztoz hantu zitzaion kaskopea.

Iratzartu zenean, Jim arin eta minbera kantan entzun zuen, boza erritmoen kolpekaz heziz. Artoaren benedikatzea auhenkatzen zuena? Non zegoen? Lurrean hedatu ohantzetik trabukatu eta leihotik beha, Sigma harritu zen: errepidea gertu zeukaten. Goizeko seietan inguruneak oraino bare ziren. Bele zenbait eta hontz kalakaria oihar. Zerudiak ubel, azkorria iraitz zihoan. Indioak otoitza utzi zuen:

– Arren, zatoz.

– Berehala?

– Har ezazu itzain txapela.

Kamioitxoa piztu zuen. Eztulez inarrosi zitzaion. Muturik zebiltzan. Ortzia gorri-gorria zen. Sigmak, basamortuan argi-aurka landatu petrolioa zurgatzeko burdinazko besoen urruntasunean finka zezakeen izpiritua: munduko zirrintak zoragarriak ziren, mugak ezabatzen zihoazen nortasun zalantzakorrentzat bereziki.

Indioak, aurpegia bihurdikatuz, makina gurintsuaren oinetan zetzan gorputz bat erakutsi zion:

– Gureetarik da. Ahulegia zitekeen: dirurik gabe koioterik ez da. Maleruski. Baraurik badabiltza anitz. Iparra nahi dute. Itsutuki. Bost axola

zaie nola. Herioarekiko hitz ordua zuen gaizo honek. Badakizu 1995az geroztik San Diegotik Brownsvillerainoko *border* honetan bost mila hilotz zenbatu direla.

– Nork ditu ehorzten?

– Nola nahi duzu lurpera ditzagun lurrik ere ez duten gizaki horiek?

Jimen soaren ihesa.

Egun zohargia zen Ameriketan. Zekusana oro lehen aldiz ikusten zuela sinesten zuen Sigmak: ukitua zen errotik. Aditza eratorrian zebilkion, errangai ments. Truck-aren irakurgailuan Buffy Sainte Marie Cree-aren *I'm going home* klaskarazi zuen indioak, matela zuloan plegu samurra marraztuz.

Handik laster, Tucsonerako autobusaren maldan arrotz banandu ziren, bakoitzak bere lan zatia konplitu bailuen. Mexikarrez eta indigenez mukurutu ibilgailuak gero mortuak ebaki zituen, oiloak eta haurrak karkara ozenka esnatzen zirela.

Amen batean Dineh Bar-eko aparkalekuan aurkitu zen Sigma. Ninikak ezker-eskuin higitu, Jimen oparitzat zeukan cowboy txapela ozkan

jarri eta mugikorrean Iztaren zenbakia markatu zuen.

Astiro.

–7–

Goiz partea inarrosi zion beldurraz a posteriori hausnarrean zebilen Sigma Hozho Moteleko gelan. Hezurrak klaskari zituen oraino, Fermin Muguruza eta Manu Chao Heletan elkarrekin abesten aditzean bezala yeah yeah yeah!

Alabaina, Iztak, Coatlik, Lamdak eta umeek luze eman zuten Dineh Bar-era heltzen. Denbora dorpea, haluzinatua, arriskutsua suertatu zitzaion. Ostatuko indioekin geratu zen, kafe amerikar txepelak irensten eta telebistako pantaila karrankalarian biribilkatzen ziren irudi tribalei beha. Itxaronaldiak ez zuen ordea iraun behar, dolar gutxi zeukalako moltsan.

Country eta musika herrikoia zetorren irratietarik. Izaki apatikoak, bekokiak errauts eta keinu eztiak marraztuz, azantzei elkor, solas hautsika higatzen ziren. Kabalak eta aziendak zeuzkaten aipagai, eguneroko traholak, karkaila ozenegiek marmara zurruna noiztenka nahasten zutela. Laborariek Tucson aldeko basamortuetan alharazten zituzten artaldeak, sage-brush eta kaktusez

ttakatu eremu gazituak eskaini hoberenaren lehiaz.

Kideak agertzen ez zirenez, burutaziotan txunditzen zihoan Sigma. Arrapaladaz oroitu zen askazietarik bat Arizonaratu zela mende hasieran artzaintzara, bi mila bururekin, desertu honetako Sigmaren zidor berdinak urratuz. Amak kontatu zionez, baina ez zekien arras egia zenez, Leizarragaren bibliaren ale purtzilikatua zekarren puskila apurrekin batera.

Ameriketan sei-zazpi hilabeterentzat joaten zen mendira, Sigmak euskaraz bikoizturik irentsiriko *Brokeback* filmeko gailurretan ibilia zitekeen, zergatik ez, sugeak eta indioak doilorrarazten zituen, riflea ahurrean edonorekin pataskatzen zen, indigenak etsai zituen, soberakin, ardiak elikatzen zizkion lurrak europarren konkista aurretik, Utenak, Hopienak, Zunienak, Navajoenak zirela ez zukeen sekula onetsi.

Nola ulertuko zuen bada, amerikar ametsa, Long Islandeko berrogeitegian lau astez sufriturik amesgaizto zitzaiona, deportazio, sakrifizio eta krimenaren pentoketan bermatzen zela? Amerikar izateko saria larrutik ordaindua zuela

zerasan, eta pasaia trabatzen ziona arma arraiki altxa eta tirokatzen zuen:

– Fuckin’ natives...

Kontuarraren puntako izaki konkortua soaz iltzatu zuen:

– Arbasoen ezjakinkeria bortitzaren arduradunak gara. Kalitu ditugu, eho ditugu, indartsuenak hauen desagerrarazten lagundu ditugu. Alta hauek digute erakutsiko nola ekin, lehiaketa ekonomikoak debalde omen ziren populuen suntsitzea justifikatu genuen moduan, herresta gohaigarri egiten gaituelarik. Gatazkatzen zirelako, biolentotzat hartzen ziren; gurutzerik edo erregerik ez zutelako infernura kondenatzen zituzten. Gaitzetsi guztiengana bedera keria bageneukan: ezaguna zen fanatismoa euskaraz mintzo zela, alferkeria korsikeraz eta oskurantismoa behe-bretoieraz.

Some one must save us all.

Tracy Chapmanen kanta berriak Dineh Bar-a bete zuen. Non ziren besteak? Zerbait gertatu zitzaien ? Ez zen normala. Iztaren telefono zenbakia bihikatzean, ihardesgailua jartzen zitzaion aldi oroz.

Otso-urratsez hurbilduriko adinduak hitza harilkatu zion:

– Bernie naiz. Eratorrian datozkigunak iragartzen ditut. Badakit nora ez zabiltzala. Nondik zatoz?

– Euskal Herritik... Attattaren anaia Arizonan zendu zen. Rattle snakearen ausikiek edo indio herratsu baten bala zehatzek eho zuten, ez dakit.

– Zalantza zikoitza duzu hor.

– Bai. Eta nolakoa.

– Barre eginen dukezu jakitean euskal jatorrizko emazte zaharkitu bat badugula wash hegian. Tom Eagleyes deritzon tribuko buruzagiarekin ezkondu zen, JFK Dallasen erail zuten egun berean.

– ...

– Sei haur kasko gogor ukan zituzten. Denak Kalifornian bizi dira jagoitik. Ostiral arratsetan Tucsonera zetorren Tom, Dineh Bar honetara, eta bizilagunaren kopeta salatzen zigun, whiskiak udalatu ildotik tekila ausarki zintzurreratzen zuela. Negar anpuluka itotzen zen, baina bagenekien minak akabatzerik ez zukeela, Maiaz era-

bat maitemindua zelako, edozein baldintzatan. Taberna herstean, bezero urrikaltsu batek pickupaz eramaten zuen bere hoganera, hordi bezain etsitua.

– Ipuin jatorra da, Bernie.

– Zurea, orain.

– Ezin dut.

Tu l'aimes.

Flagstaffeko Hozko Moteleko dutxako ur hotza gorputzean zipriztintzen zitzaion. Mentsa bailitzan torratzen zuen larrua, bezperako lotsaren kentzeko, gertakarien puzzlea berrosatuz, gerla xenderan ikasiak eta ikusiekin errangarria zitekeen kondaira propioa antolatzen saiatuz. Kanpoan kamioilariek bata bestea kitzikatzen zuten, airoski. Garbitu ondoan haiengana jotzea erabaki zuen Sigmak. Hogei minutuz egon zen zirristaren meneko.

Bernie graziosoaren figurak neuronak harrotu zizkion. Ez zezakeen konpreni zergatik indioaren galderari ezezkoa eman zion, beharbada orduan besteak zehaztu zituelako Dineh Bar-eko leiho zikinetik, azkenean zoriontsu.

– Adiskideak iritsi zaizkit.

– Istorio bat zor didazu. Harri zulo bat bila eta daramazun sekretua xuxurla iezaiozu. Adi egonen natzaio.

– Astirik ez dut.

– Ez ote dizu norbaitek irakatsi denbora gehiegi oparitua izan zaizula? Ez duzula molde egokian baliatzen? Ba al dakizu denbora preseski bere handitasun umilenean kontsideratzen?

Eskakizun zaparrada jasan zuen.

Dineh Bar-etik jalgi zen Sigma, kontuarrean lazerituen aurpegiak lerroan berina likitsetan itsatsi zirela.

Iztaren besoetara erori zen:

– Ez dut lorik egin. Ikara nenbilen. Border patrol kotxe anitz gurutzatu dugu. Haietarik batean zeundela imajinatzen nuen.

– Suzie Beeren trebetasunari esker naiz onik atera.

– Mugak ezabatzeko dira...

– ...Paper eta gerorik gabe ahalaz. Hargatik ez nintzen fida. Ez zen txantxetarakoa.

Irriz lehertu ziren. Psili eta Zei hurreratu zitzaizkien. Coatlik gasolinaz galkatu zuen chevroleta. Lamdaren aldarte haserretua begimendu

zuen berehala eta segidan haren erasia olde galanta jaso:

– Baduzu burutik! Ameriketara zatoz eta ez duzu bisarik! Bazauzu? Lanjerrean ezarri gaituzu. Inkontzientzia hutsa da!

– Hemen nago. Xarmanki iragan da. Zer nahi duzu?

– Ez zara konturatzen ala? Bi haur baditugu gurekin... Bistan da, ez duzu deusen axolarik. Zure pertsona txiki eta bekaitzaz baizik. Borderline bat zara.

– Lamda, otoi...

– Zer otoi eta motoi?

– Kexuan ihaulauska hautemanen gaituzte eta zerbait oker doakigula sumatuko dute. Poliziari deituko diote, eta aharra hau Tucson Countyko kartzelan bukatuko zaigu. Edo hango hilerrian... Hala baldin bada ehortz nazatela Monique Wittigen hobiaren hirugarren hilkutxan! Hauxe da nire azken borondatea.

– Gohaitzen nau daramazun arraileria zozoak.

– Goazen...

Coatlik ordulariaren orratzak plegatu zizkien. Sigma beribilean kantitu gabe egon zen, mukizu, bekokia mindua eta bekatoros. Iztaren esku-ukaldia amoinatu zuen, baina ez zion so egin ere. Psili eta Zeiekin zebilen, jokolari, umeen arduradun betekizunetan kokotseraino sarturik.

Sigma Ameriketan zen, pozik, pasaporte balirik ez zuelako atxilotzen ahal zuten arren. Kotxekideak hari zoharraren orekan zebiltzan, kontrolatuak baldin baziren, klandestino egoista baten garraiatzea leporaturik ziega lausoetan aurki zitezkeelako. Egoera zaila zen. Tucsondik Flagstafferako highwayean Sigma isilik geratu zen, katastrofe berririk ez sustatzeko.

Goizeko gertakariekiko arraboka mentalen maldetan linburtu zen, sumin: sortzetik kasik, oinpean metatzen zihoakion lokatza usnatzen zuen: zizare pikatzaileetarik zen, auher urrintsuetarik, baliatzaileetarik. Ondikoz kartzelatua. Betidanik mugetan laketzen eta ausartzen zelako mehatxatua. Nehork zinez laguntzen ez zuena.

Uraren zoharraz gozatzean erantsi zuen:

– Arto klikarien sendikoek destino berdina dugu, batzuk izarbel urdinaren zati aberatsetan haziak izanagatik. Erroekiko funtsezko ahalkea hurkoen begitarteetara aurtikitzen dugu, hurkoak sosegatzen direla, ez baitute gutaz besterik pentsatzen. Nortasunik ez dugu. Doi-doia jendeak gara. Wash idor, haran berde, barranco gorri edo mendikate ubelezko zedarriak ditu planetak. Mamutzarrak egarriz daude Afrikan eta arto bihiak transgenikoaz kutsatuak Ameriketan. Eta gu, zoritxar kongenitalaren zorionaren babesle.

Krisketaren hots ikaragarria.

Itzulikatu zen hisiaz eta sexu bustiaren biluztasuna gordez. Dutxaren oihal uhargietarik, ohe kantoian norbait zerbaiten bila kukuzkatu zuen. Hormatu zen. Ttattit. Itzalak erorarazten zituen txanponen azantzak entzun zitzakeen. Antsiak kateztatu zuen.

Bainutegitik jalgi zen, Hozho Motel izena brodaturik zekarren xukadera lakarraz troxaturik eta eskuan komun zuloaren karrakatzeko erratza harturik. Ezezaguna poltsa harrotzen zebilen.

Sigmak borta bulkatu zuen, banpez, harrabotsen iturria identifikatzeko.

Harritu zen, bereziki bere izialduraz:

– Izta? Zertan zabiltza?

– Zitaren telefonoa xerkatzen dut. Linea berdea pasatu dugula erranen diot, bihar arratsean Berkeleyn izanen garela, ez palpitatzeko.

– Beldurtu nauzu.

– Nik?

– Dutxapetik harramantza metalikoen misterioak, barda Suzie Beerekin Mexikotik Estatu Batuetara zirristatzean baino laztura hoziagoa eragin dit. Psikosiak joa nago.

– Imajinazio galgarria duzulako.

– Oilo larrua daukat...

– Amodioa egingo dugu gaur?

Sigmak Iztaren desira neurtu zuen.

Ganbaratik alde eginez Zitaren zenbakiarekin, girgila indiarrak saltzen zituen txosna maingukariaren maldan jarri zen Izta. Solasean hauteman zituen. *Dena ongi dabil* xuxurlatu eta agudo jantzirik, Sigma moteleko aparkalekuan barna abiatu zen, sukarrolde gaitzetik doi-doia sendatuaren antzera haztamuka, amerikar ai-

rearen errauts mineral usainak birikak labaintzen eta askatzen zizkiola. Navajoak hara-hona zebiltzan, urrats mantsoz, jestu bakoitza sakon bilbatzen eta intimoki sentitzen bailuten.

Arduradun neoliberalek, eleak eta ihakinak urri zeuzkaten indigenak historiaren orrialdeetarik desterratzen zituzten, produkzioaren zein errentabilitatearen borrokarako ezinduak zirelako, ez baitziren aberastearen aldeko korrikan sekula garaile agertuko, are gutxiago krisia emendatzen zihoanean, bankeroek eta politikariek *our trash for your cash* ekimena modu zinikoan josten zigutela. Indigenei galtzailearen eredua aplikatzen zieten, adibide eta kontradibide. Ttattardunak irabazleak ziren noski, rolex, ray bans eta urriza polikromatikoak saihetsean; nola ez bada, boterearen egartsu guztiak diru falanga horren jainkoaren gurtzeko belaunikatzen zitezkeen, ahoak zabalik, larderiatsu, gehiengoa kulpabilizatu eta autosakrifikatzera deituz, leku askirik ez eta bestelako aukerarik ez omen zelako. Ziotenez behintzat. Irabazleen saldoa laurdentegiko laurdenaren laurdena zen kopuruz, Frantzian hamalau mila familia, berrogeita hamabost milioi

hiritar hauen zerbitzuko, erdiak pikarraitu sozialak.

Hatsa bahitu zitzaion.

Polizia tribalaren bulegoaren eskuinetik lerratu zen museo etnologikorantz. Erreserbako hesien haraindian lurrutsaren hedapena miretsi zuen. Harri gorrizko holtzak. Ibar zabalak. Errauts zutabeak biribilka. Haizeak ileak nahasten zizkion. Hori zena bizitza? Debaldetasunaren garrantzia? Aditzaren tai gabeko bihurrikeria, alde, aurka, abururik ez. Esplikazioa. Justifikazioa. Manipulazioa. Ezer ez izan.

Erakustetxe sarrerako gizonari txartela erosi zion. Aterpe eskaseko patioetan alfertu zen. Grand Canyon eskualdeko indioen buruki lumadunak miretsi zituen, zeremonia arropa koloretsuak, sukaldeko tresnak, wigan eta tepee-tako lan-tresna sotilak, murruan zintzilikatu Edward Curtisen argazki zuri-beltz sepiatsuak, gerlariak, familiak, ume alegerak, begitarte artegak, emakume ezinduak, zahar kuskuilatuak, suntsipen segituaren egunerokotasunaren lekukoak, hots.

Oldar barnekoiaren erasoa jasan zuen. Antonioniren film baten parean, Izaro uhartearen

atzealdean edo Ogella zein Lapatxetako haitzetan bailitzan. Izenik ere ez zeukan amodio oldean ihalozka, bat-batean, Iztaren beso artean nahiko zukeen. Psili, Zei, Izta, Coatli eta Lamda goraki mintzo ziren ondoko aizolbeetan. Bozkariotsu ziruditen. Jabaldu zen Sigma. Erraiak sutzen zizkion sentipena haiekin partekatzeko xedeak zaroan.

Iztarengana presatu zen, belarrira buhatzen ziola:

– Badakizu maite zaitudala.

– Zalantzarik ez dut. Bidaia jarraituko dugu? Haurrak Zitaren gomendioan utzi eta sortalderantz zuzenduko gara. Bazatoz nirekin?

– New Yorkera?

– Bai.

– Friscoko kontsulatuan bisa eginaraziko dut, arazorik ukan ez dezagun. Langabezian nago eta gutxirekin dirauket. Bakarrik, hilabete oroz internetez polemploi-ren zibergunean apuntatu beharra daukat. Egiten ez baldin badut sos jauzia ebakitzen didate.

– Europarra izatea zer den bestenaz!

Indioetan jolasten zebiltzan Psili eta Zei zeuzkan ikusmiran. Alaina Iztaren oharra onartu zuen, gaizki plazatu minberatasunik gabe. Posa Ngakak halaber hainbatetan gauza bera errepikatzen zion. Multzoan zetozen turistei beha, erantsi zuen berekiko:

– Zerbait da kideen kritika, gogoeta aurkari edo ebazpenek zauritzen ez gaituztela sentitzea eta etsai ez dagokigun bisean bisekoa gureek behin betiko zitzikatuko ez dutelakoaz segur izatea. Horretaz bederen jabetu naiz.

Hiruzpalau autobus gelditu ziren. Ipar amerikar zuriak, beltzak eta europarrak burrustatzen ziren. Navajoen, Uten, Hopien eta Zunien ohiturak argitzen zituzten tokiak herronkan bisitatuko zituzten, nostalgiarik gabe, jalgitzean gero indioen txirotasuna, alkoholari, auherreziari edo suerte txarri egotziz. Ez ziren egundaino populu horien egoera larriaren hobendun sentituko, desjabetasun horren eta beraien okikeriaren artean ez zutelako loturarik egiten, Bob Dylanek sudurkatzen zuen *jainkoa alde* zutelako.

Coatli eta Lamda hurbildu zitzaizkion. Benedikatzearen xendraren nondik norakoak bihika-

tzen zizkion bitrinari xerrent zegokion. Sorbalda ukitu zion Lamdak:

– Bakea nahi dut.

– Barkatzen didazu beraz?

– Amore eman dezaket noiztenka. Linea berdea *wetback* soilaren plantan zeharkatu duzun manera baietsezina zitzaidan goizean; eta orain gurekin zaude, deus ez bailitzan, bakarti.

Sigmak bazekien ez zela *wetback* arrunta. Lanean ari zen batzuetan, eta ari ez zenean langabezia sakelara zezakeen. Diru anitzik ez zuen sekula ukan, ez zen aberastuko, nehoiz. Ez diruz bederen. Printzipio bakunak zeuzkan. Gainera ardit gutxiko familia batekoa zen, gurasoak Donapauleko merkatura hamar libera patrikan *zotükatzen* jarraitu zituen, bildotsak, ahateak, arrautzak saltzeko. Ez zuen berak ere benetako zilarrik eskuztatu beltzean ez zen ofizio batean zinpurtzen hasi zeneraino.

Alfer famak edukiagatik, etxe gabeko ondorengo gehienek hilabete-sari finkoz amets zegiten, geriza sozial premiatsuz, herritik joateaz, Amerikak jadanik debekatuak zitzaizkienez, Parisen, Bordelen edo Pauen sustraitzeaz. Belaunal-

di osoek partikatzen zuten desira zen. Sorterrien osagarri demografikoa urratzeraino. Sigma menturaz, mundu gerren artean, hogei urteetara heldu baldin bazen, Charles Hiriart garaztar tratulantaren lauhazkaz, Ameriketara jinen zen, Nevadan, Idahon, Arizonan edo Kalifornian errotu euskaldunengana. Baratzezain. Real estate bulegoetako idazkari. Castroko dendetan, fruta exotiko biologiko saltzaile.

Flagstaff.

Museoko telebistako itxuretan txamana jauzika ari zen: ei-eio-ha-ah-eio-ei orroatuz. Gorputza ikaratzen zitzaion, jatz mitikoaz hauts gorria altxarazten zuela. Distiratsuki apainduriko tribu-kideak harmonia berreskuratzekotan zetzan neskatxa borobilaren erdian zetxikaten. Txamanari erantzunez ei-eio-ha-ah-eio-ei aldarrikatzen zuten noizbehinka. Erritmoan. Korrokari. Pow wow-ko andregaiaren amak lastozkaturiko hontza inarrosten zuen, izebak zozo eta beleen ikurrak dantzarazten zituelarik, historia pertsonalen dolamena laburtzen bailuten.

– Ei-eio-ha-ah-eio-ei...

– Ia-ta-ieh.

Sigmak Izta tinkatu zuen.

Erreserbako alanbrezko sasiak troxatzen zituen ilunpeak. Eki arrasalariaren balakaz bush, wash eta harriak beilegi urre jazartzen ziren. Erakustetxetik aldendu ziren. Airearen mineraltasunak zafratzen zizkieten bekokiak. Kumulus saldoak zetozen ordea iparraldetik, beltz-beltzak, lurraldearen edertasuna azpimarratuz.

– Euria eginen du.

Izta zuhur zebilen. Psili eta Zei zeramatzatela, Coatli eta Lamda aterpetik alde egiten kukuzkatu zituzten. Afaria aiduru zeukaten. Harritzar geldo bihurtu zen Sigma: Txuxka mendien gibelean eguzkia gordetzen zihoan, gailur zorrotzak odolaren kolorez tindatuz. Ortzaizean errauts adarra zurkaizten zen. Artzain navajo bat zitekeen pickupez ardiak korraleratzen, edo ziuntaz zetorren Jim Chee polizia tribala.

– I did my best, it wasn’t much.

Sigma, ondare pikor bat zen.

–8–

Zitak bere bi haur ttarrotuak batera besartean tinkatu zituen.

Presaka zetorren nerabe asiatiko batek, behingoz berrosatzen ari zen familia monogurasoar haren zoriona ikustean harridura markatu zuen. Plazer txiki hori planeta urdinaren azaleko debaldetuen opari zitzaion, minimoa izan edo luxuzkoa. Mexikarrak zirela bazekien, baina zertan zebiltzan, bada, europar eitea zeukaten bi pertsona haiek?

Sigmak ikaslearen susmoa haztatu zuen.

Zitaren gonari tiraka ari zitzaizkion Psili eta Zei, jauzika. Jostari eta alegera.

– Ama! Ama!

– Zatozte ene panpoxak!

– Ama...

Estudiantea astiro aldendu zen.

Iztak Zita musukatu zuen. Coatli eta Lamda autoan zeuden, gertatzen ari zenarekiko sinesgaitz. Ustekabetarik Lamdaren soa Sigmarenean aitzur landatu zen. Haserre. Ez zion amore

emango. Alabaina Flagstaffetik Berkeleyrako 66 errepidean, Los Angelesen sartzean, border patrol kontrol bat pairatu zuten.

Polizia gizon beltz hanpurusak, gidariaren paperak ikertu zituen xeheki. Mexiko DFn matrikulatu chevroleta aztertu zuen mesfidati. Coatli, agirien arabera, New Yorken kokatzen zela baimendurik, eskuaz askatu zituen azkenean. Ematen zuen hargatik zer edo zer oker zebilela susmatzen zuela eta borondate aurkaz baizik ez zituela laxatu. Bizkitartean, ortzaizean, aingeruen hiria alfer hedatzen zen, autopistak goihar, zementu eta burdinazko dantzaria bailitzan.

Zitarekin solasean higatzen zihoan Iztaren itzalean, Sigmari Lamdaren kolera gorriaren amildegia zebilkion oraindik neuronen harrotzaile:

– Ezin da... Lanjerrean jartzen gaituzu aldi oroz.

– Ez da neure errua. Bisaren eskatzea ahantzi nuen. Barkatu beldurra baizik ez baldin badizuet jasanarazi. Linea berdea nerener zeharkatu nuen Suzie Beerekin.

– Noski, ez duzu zuk nehoren beharrik! Bakarrik zabiltza. Egoista halakoa. Porrutipulatik baduzu! Umeak ditugu gurekin: nahi duzu kartzela liputsuetan buka dezaten ala?

– Lamda –artekatu zuen Coatlik–, ez da deus agitu. Bakea emaiozu. Zuek, europarrek, zuen artean elkar bipiltzeaz beste erremediorik ez daukazue ala? Hemen gauzak erlatiboagoak direla konturatuko zarete... tragikoak dira... baina banabestekoaz trenkatzen ditugu.

Bezperan bezala Sigma isilik zegoen.

Irratian, intzirika inguratzen zen Coatlik grabatu *best of* konpakta. Leonard Cohenen *Hallelujah* haren hamalau bertsio zetozen Kd Lang, Jeff Buckley, Damien Rice, The OC, Rufus Wainwright, Tina Dickow, Damien Leith, Allison Crowe, John Cale, Sheryl Crow, Bob Dylan, Bon Jovi, Kate Voegele, Amanda Jenssen edo Jason Castroren ahotsez apaindurik. Gehienetan, pianoa zuten eleek zuztarri, gainerakoetan aldiz, Bukleyren kasua zen, eresilariak tauladako argipean zeuden, gitarra elektrikoa sabelean dilinda eta marrakaz.

Anarik euskaraz egoki baleza?

Sigmaren proposamena.

Los Angeles eta San Francisco artean, zirkulazio gaitzaren zurrunbiloak burtzoraturik, Sigmari zeritzon *Hallelujah* hori XX. mende sufrituan idatzi zen kantarik ukigarrienetarik bat zela, huts egiten ez zituen *Cold Case* edo *FBI: Missing* telesail bakunen bukaerako generiko gisa erabili zelako bereziki. Mikel Laboa zendu zen goizalde euritsuan ez zitzaion Leonard Cohenen otoitz musikatuaz aparteko ahaiderik muineratu, ibai nahasiaren gainetik lanera zihoala. Geroztik lana galdu zuen eta hor, Kalifornia minean, ez zukeen ukatzen zitzaion doluminduaren partekatzeko aukerarik. Hala zirudion behintzat.

Argi azkorrian, Hozho Moteleko harrerategia desertu izan arren, stetson txapelak zaramatzaten behargin akituak gurutzatu zituzten. Buztinez perdukaturiko pickup trucketan metatzen ziren. Flagstaff-eko baserri guneetan barreiatu behitegien logoak papoan zekartzaten nagusiei gazteleraz edo spanglishez mintzo zitzaizkien. Ez ote ziren ertamerikar jatorriko klandestinoak? Estatu Batuetan, herrialde garatu frankotan nola, immigrazioa gaitzesten zen, jendeak etor-

kinen aurka berotzen ziren, manipulatzen alaina; baina ekonomia osoa uhin horien bizkar loratzen zen, pasatzaileak, estatuei garesti ordainarazten zizkieten hotel gela zakar jabeak, abokatuak, enpresariak eta ausarki aberasten ziren jaunkillotak, legeez axolatu ez eta boteretsuen adiskide zirelako. Maltako uhartean adibidez hiru mila afrikar desterratu parkatuak zeuden, nora ez. «Begira», zioen Sigmak, chevroleteko soinutegian Bob Dylanen *Hallelujah* bukatzear zegoela, «ez da urrutira jo beharrik, lur ahul honen haga, herdoilak kurruskatua dela eta bike eskasez uhalak lepondoan zauri dagiela baimentzeko».

Goiz zohar hartan, Psili eta Zei besoetan lotan zeuzkala jalgi zen Izta Hozhotik. Arraposki pausatu zituen atzeko jargietan. Guztiak sakaila tinkatu zirenean, Coatlik izen gabeko KD bat erakutsi zien, sortaldeko lurrertzaren magia ahuspatuz:

– Hallelujah...

– Zer diozu? Daramagun *ilegal* nazkagarri honekin ez dugu aperentziarik ere mistikotasunerako betarik!

– Ez arrangura, Lamda. Musika palpitagarria baino ez da, egiazko rock'n'rolla. Esker onekoa, basamortuaren erdian dastatzekoa.

– Zenbat aldaera atzeman dizkiozu?

Lehen notek Sigmaren izpiritua kilimatu zuten. Coatlik, kontaktuari ekinez, ihardetsi zion behin hasi eta laurogei minutuko diskoaren betetzeko adina bertsio ezberdin deskargatu zituela, ezjakinez menturaz, kanpo geratu zitzaizkiolarik asko. Iztak ahurra sorbaldan pausatu zion.

– Goazen bada...

Segurtasun premia zimizta arduratsuak inarrosi zuen Coatli. Olioaren izaria eta arrasten indarrak ikertu zituen. Artean eguzkiaren erronda minerala bultzatuz, azpimarratuz eta gorrituz John Cale-ren boz lakarra hedatu zen, pianoaz, biolinaz eta kontrabaxuaz lauhazkatua:

– *Now I've heard there was a secret chord...*

Canyon Handiaren holtz hegiak sutzen zituen ekiak. Sage-brushez estali eremuen erdian, higamenetik salbatu axis mundi meharrek zutik zirauten. Ekai zirimolak altxatzen ziren denetarik, larruak pitzatuz. Sartaldean laino astunak gaiztatzen zitezkeen, lautada benedikatuan non gra-

tak bailiran. Alta lurraldea euri erreguz belauniko zetzan, Hopiek edo Navajoek uharrak jauzarazteko zeremonia zaintsuak antolatzen zituztelarik: gutxi aski zen alabaina mundua mundutzeko, espazioa, airea, eguzkia, lantxurda amets bat eta bizpahiru lagun aldamenean. Sigmak burua Iztaren sorbaldan abandonatu zuen, Canyonaren zabalerak ninika zabal-hertsia irensten ziola. Bizkarrean zaku lodia zeukan indio gazte bat agurtu zuten. Errauts sakratuz bete fetitxea zeraman papoan. Exilio guztiak baimentzen zituen errepide mitikoaren ipularrean hormatua bezala zen, barrez, zigarreta ezpainetan, artozko taloa milikatzen, noraino joan zitekeen galdezka.

Into the wild baiki.

Iztaren mugimenduengatik Psili iratzartu zen, pixagale. Lapindegi zizkolatsuetan gatibaturiko kurkumixen pare jalgi ziren chevroletetik, agudo, aharrausika zetzan Zei salbu. Desertuaren usainak larrantzi zituen, hasperen eta intziriak ipar bolera freskoarekin melodia maliziosetan juntatzen zirela. Bele urguilutsuak balantzatzen ziren zuhaitz idorren abarretan, harrizko murru lehorretan behera urak daratulatu harpeetan koiote

eta azeri ironikoak gordetzen, mirotz eta arranoek altzairu urdinezko ortzia zirrimarratzen zutela. Canyon Handia deitu parke nazionala itsasotik urrun zen arren, Pazifikoaren perfumea, atzamarra eta zigilua iragar zitzakeen.

Memoria harrotu zuen Sigmak:

– Duela zenbait urte Pariseko La Villette zentroko saihets-erakusgela batean tindatzaile navajo taldea miretsi nuen. Hondarrak omen ziren. Goizalde osoa bertan iltzaturik iragan nuen: behatz puntekin kolore ezberdineko sableak bihikatzen zituzten, benedikatze kantak xuxurlatzen zituztenen erritmo hipnotikoak ardatz. Beraztu nintzen, erabat. Sand painting ekitaldian, ziotenez, margoa jainkoen etor eta parti lekua zen. Veronica Begay *medecine woman* zelakoa zuten Parisen etxekandere. Ohikoan hoganen hegats pean kudeatzen zen zeremonia azken bolada hauetan nonahi garatzen zen, beharren arabera.

– Zerk zintuen bereziki ukitu?

Iztaren haia zen:

– Besoen eta gorputzen ibilera urriek ninduten uhertu. Orduan mentsa bezala bizi nintzen, itolarrian, presaka, hilko banintz hobe nerasan,

gauzetan eta jendeetan finkatzeko astirik gabe. Estres, bizkarreko eta bihotzeko min baino ez nintzen. Guztiak hala genbiltzan oro har. Ilunena nekarren erraietan, ezezkoan beti, ezeztatua, ezabatua eta ezezkorra. Zinominoka ari ginen, azala galanki lardaskatu ondoan mamiari ezin eutsiz, urratsik sinpleena bere zabaltasun mehatxagarrian konplitzeko lotsaz. Badakizu neoliberalismoak eredutzen dizkigun betekizunen menpe gaudela, gertakariak, ontasunak, ospe nahikundeak, amodio domestikoak, gogoeta gutiziatsuak eta gorrotoak metatzen ditugula, gohaitzeraino. Ez dugu keinu bakar bat sakoneraino eramaten, ohaideak nehoiz zinez maitatu eta laztandu barik ganbara hegian biluz geratzen gara, etxeak eraiki eta handik sei hilabetera zuztarriak kraskatzen zaizkie, eguneroko ogia epe laburrean idortzen zaigu...

– Zergatik hainbeste zinkurin? –Lamda zen, motz eta hotz.

– Arrazoi duzu –erantzun zion Sigmak–, baina hausnartzekoa bada, ezta? Sand painting saioak neure bizimoduarekiko arrangurak urratu zizkidan. Bat-batean gabetasun lehia hori piztu zi-

tzaidan; erran nahi dut minimoarekin ihardokitzeko arrabia, afektiboki manipulatzen gaituen aberastasun material hutsen gaineko diskurtsoez haratago. Ez dakit nola esplika. Debaldeko xendretan urtzeko desira, Coatliren moldean *Hallelujah*-ren hamalau bertsioekiko KDa lepondoko lilihaustegian eta Amaia Lasaren hiru poema bildumak motxilan altxor sekretu. Bai eta...

–...Leslie Marmon Silkoren *Cérémonie*.

–...Monique Wittigen *Les guerrillères.*

– ...Judith Butlerren *Precarious Life.*

Ideiak ez ziren falta.

Algara-jauziak isuri ziren. Canyoneko eguerdia jadanik sapatsu zegoen. Geldotasuna zoramena zen. Borobilean zeuden, lur pikor gorriak purruskatzen, mineralaren urrina eta bazterren biluztasuna beraien baitakoa baino ez bailitzan. Arin sentitzen ziren behingoz: mortua, bidaiari bederarentzat *habitus* bat zen, edozein gisaz. Mugak zeharkatzean, zerrasan Sigmak, klandestinoki ala ez, bestaldean ardura, norbera zen aurkitzen, maskara, gezur eta deboilatik salbatzeko balio zuten mintzaldi seduzitzaileen tramankulurik gabe.

Oreka bila hautsiko ziren hari meheetan.

Edo umezurtz.

Pixka bat frantses gobernuak, Sangatteko jungle entzutetsua garbitu eta suntsitu zuen larrazken hartan afganiarrak, irandarrak eta irakiarrak, kenyarrak, somaliarrak edo etiopiarrak agitu ziren bezalaxe.

Posa. Fahir. Modou.

Lurzurtz.

Sigma urduri zebilen.

Eskerrak border patrolen kontroletik landa ortzaizean Los Angeles agertu zitzaiela. Bakersfieldera iristean, hiriaren sarrerako *basque jatetxe* batean geratzea erabaki zuten. Kamioiak lerroan, aparkalekuak, gasolindegiak, musika memelarekiko dendak eta indiferentziaz itsutu asiarrak, chicanoak, sudacak, indigenak, mozkor eta eske, amerikar zuri gizajoak eta kapelu beilegien azpian aurpegiak ezkutatzen zituzten ibiltariak zirikatu zituzten.

Sigmaren aburuz bizkaitar jatorrikoa zitekeen zerbitzari lerdenak menuen liburukia eskuetan jarri zion Iztari:

– *I come back soon*...

Psilik ostatuko barra hornitzen zuten takoak eskatu zituen karbaz. Coatli desagertu zen. Zei altzoan zetxikala, Lamdak kartak zekarrena irakurri zuen. Iztak mexikar txilakiles zaporetsuak hobetsi zituen, Sigmak Euskal Herriko arrautz-eta-xingar nostalgikoa manatzen zuela. Amerikar brunch tradizionalaren zale zen Lamda.

Jatetxeko jabeak jada ezer berezirik ez zeukala jakinarazi zien.

– Sorry.

– Orduan lau txilakiles, ez sobera pipertsu.

– Edateko?

– Ura.

Takoa ausikitzen zuten maneratik, haurrek Zitaren laztantzeko grina handia zutela nabarmen zitekeen. Hitzemana zitzaien. Bazen hiru urte Ipar Ameriketara joan zitzaiela ama, koiote baten zerbitzuak ordaindu eta Ciudad Juarez lanjerosean linea berdea ausikiz. Hurbileko makilladoreei uko eginez, sehi bihurtu zen Berkeleyn. Apartamentua hiriko auzorik zikinenean alokatzen zuen, baina bost axola, Kalifornian geratzeko paperak sakelaratu zituelako. Psili eta Zei ttarrotuak berarekin bizitzera jinarazten ahal zituen

ondorioz. Zitaren zuri-beltzezko aspaldiko argazkia moltsatik atera zuen Iztak:

– Badu bost urte ez garela batu. New Yorken errotu nintzen eta, diploma erdietsirik, Chalcoratzean Zitak alde egin zuela erran zidaten. Amona xangrinez hil zitzaigun. Haren ildotik aita, urdaileko minbiziaz. Zitaren umeez axolatu zen gure ama. Hondarrean Zitaren berriak lortu genituen, ahotik ahora... Gogoan atxiki ezazue, han eta hemen, botere politikariek salatzen eta gaitzesten duten familia berrosaketa baten obratzen ari garela.

Piper minkarra hozkatu eta eztulka hasi zen.

Batzuen bizitzek besteenek baino gehiago balio ote zuten?

Zerbitzariaren soakoa larderiatsua zen, baina funtsean oneziaz itoa. Sigmak bazekien hori euskotarrena zela. Nehor ez zen determinismo horretarik eskapatzen ahal. Tabernariak Bakersfieldeko Noka saldoaren konpaktua ezarri zuen irakurgailuan. Basque-american bikotearen ahots kilkiratsuek gunea alaitzen zutela, Zitaren deia hartu zuen Iztak. Harroki zebilen, soinalde osoa ikaraz, mendeak mendetegi ez besarkatu, ez ba-

lakatu, ez mamurkatu Zitaren boza aditzen zuelakoan.

Kanpoan ausatzen ziren atzerritarrak zeuzkaten begiko. Coatlik autoko berinaldea xahatzen zuen, Lamda hurbil-hurbil zegokiola. Psili eta Zeiren hortzetan itsatsi janari puskak garbitzen zituen alaiki Iztak. Nolabaiteko burutazioak ihalozkatzen zizkion Nativeyes-en erranak errepikatu zituen berekiko Sigmak:

– Zergatik dira mugak, goiz edo berandu guzti-guztien zeharkatzeko aukera baldin badugu, indarrez, astiaz, intimitatez. Ausart eta elemen. Legeak egiten dituzte izakiak leku zehatzetan konfinatzeko, gosetuak, gaixoak, koloretsuak, langileak, laborariak, baina uharte sasisegurua uholdeak noiznahi irents dezake. Hurrupa. Heia-heia, auhenez zerraikan Nativeyes-ek, mugarik ez da kapitalarentzat, klik bakarraz globoa trabeskatzen du diruak, bioteknologientzat, OGMekiko arto haziak populkatzen dira debekatuak zaizkien pentoketako bihiak kutsatzeko. Eta jendeak ez duela mugajale bilakatzeko eskubiderik? Kamera infragorriak, helikopteroak, ADN testak, kontrol gogorragoak, fronteretan, auto-

pistetan eta trenetan, erretentzio zentroetako egoera zailagoa delarik oraino, deshumanizatzailea arras, eta estatu bortizkeria zilegi, Sahara behereko afrikarrak charterretan estekaturik, txertoz emokaturik edo kolpekaturik igortzen direla.

Nativeyes.

Nor ote zen, Modesto hiriaren erditik zulatuz Berkeleyrantz zihoazela, Sigmak oharkabean, bere imajinazioaren larrutsetarik iradokiriko Nativeyes hori? Bikaina zen horrela solaskide fiktibo baten eraikitzea, errealitatearen islatzeko, kideak asper, narda eta haserre uzteko peril arnegagarritik aldenduz. Irri aingerukoia marraztu eta Iztaren besaintzina zimikatu zuen:

– Min egiten didazu...

– Berkeleyn gaude.

Lamda karkaraz lehertzear zen.

– Zerk kitzikatzen gaitu, errealitatearen eta ametsaren arteko biribilketa zalantzakorrak ez bada? –segitzen zuen marmara Sigmak Iztaren belarrira–. Horrek dizkigu sabelondoak iraultzen. Dudak. Biluztasun ideologikoaren nahikundeak. Gutxiarekin moldatzekoak garela eta hurkoareki-

ko harremanetan nortasun eta ego harropuztuentzat zirrikiturik ez dela haboro baiesteak. Gatzaren oldarrek karramiskatu eta errautsaren duintasunaz hantzen eta berehala hertzen dituen harriak gara. Horretan nago. Obsesio bat da.

Larrua jotzeko desirak larrantzi zion soinaldea.

Ez zuen Iztaren irria bezain loriosik sekula miretsi.

– Arrazoia duzu: nehoiz ez gara ezertara heltzen, eta heltzen dela dioenak, edo heltzeko anbizioa duenak, gezurra dio; geldotasunaren helpuntu bakarra herioa baita. Benetakoa. Metaforikoa. Ez dakigu nola egin, gibelera itzultzea bekatu zaigunean. Nehoiz eztabaidatzen ez ditugun pentsu adarrek zerebroak zitaltzen dizkigute, independentzia politikoaren gaiak, adin piramidearenak, unibertsalismoarenak, migrazioarenak, nagusitasunarenak, funtsezko jabegoarenak, heldutasunarenak, egunetik egunera infantilizatzen gaituzten bitartean.

Hanpurosekiko nazkak naroa.

Izta. Posa. Fahir. Modou.

– Irabazleak ez izan arren, gurea ere bada mundua –Sigma, bat-batean, sukartsu zen–. Ibiltzeko eskumena daukagu, beraientzat eraiki dituzten muga finko bortitzetan ustel daitezela.

Berkeleyn ziren, unibertsitatearen auzoan. Kd Langen *Hallelujah* barreiatzen zen autoan barna, pianoa, boza, pianoa, boza, kideen hatsanka, pianoa, espaloietako oinezko alfertuen algara glosalikoak –nor ote zen letren fakultatetik zanpa-zanpa jalgitzen zen irakasle ile horidun eta txiki-zaintsu hura?–, zarata metalikoak, zintzur oihuak, boza, tuta larderiatsuak, pianoa...

Hau gure lurra da.

Hallelujah.

Boza.